


# MUGARRIAK

AIARALDEA 2024



@kotnatura



**60 ARTISTA  
BAINO GEHIAGO!  
SORMEN EGONALDIAK  
BEKAK  
ARTE HARTZE ZIKLOA  
ANTZERKI ETA  
MARGO ESKOLA  
BITARTEKARITZAK  
KALE ARTE**

**Zorionak eta  
eskerrik asko  
artista eta  
kulturzale  
guztio!**

*Aiaraldeatik  
unibertsora, urte  
berrian gehiago  
eta elkarrekin  
ederrago!*



**KULTURA**

SORMEN  
FAKTORIA

Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio · [kultura@aiaraldea.eus](mailto:kultura@aiaraldea.eus) · 633 517 383 · [@kultura.faktoria](https://www.kultura.faktoria)

# Aiaraldea

## munduaren norantzaren parte

Bata bestearen atzetik igarotzen dira urteak, eta, ohartu orduko, 2025ari ongi etorria ematen ari gara. XXI. mendearen laurdena igarotzeaz gaude. Erraz esaten da. Bizitzaren erritmo frenetikoak nekez usten du tarterik inguruari perspektibaz errepartzeko, eta irudi luke aurrekoaren parekoa izan dela agurtzen ari garen 2024a ere. Eta aurrekoaren aurrekoaren parekoa.

Hori pentsatuko luke inork, mundu globalizatu honi. begirada azkar bat eskainiz gero. Krisiak bata bestearen atzetik pilatzen gabiltza: ekonomikoak, energetikoak, sozialak, klimatikoak... nekez jakin daiteke non bukatzen den bata eta non hasi hurrengoa. Diskurtso belizistak normalizatu ditugu, eta mehatxu nuklearra gure egunerokoaren parte bilakatu da. Donald Trump presidente da berriz, Israelen inpunitateak ez du etenik, bizitza garestitu da... Betiko leloaren betiko leloa.

Katramilatuta gaudela dirudi, baina planetak jiraka jarraitzen du. Eta honekin batera, Aiaraldea ere. Ez gara mundutik aparte, eta aise demostratu dugu hori aurten. Mundua zeharkatzen dituzten kontu berdinek zeharkatzen gaituzte: Goi-buru guztiak hartu dituen Osakidetzaren egoera guren ere ikusi dugu, Palestinako sarraskiaren gelditzeko aldarriek aiaraldea ugari atera dituzte kalera, Valentziako tanta hotzak elkartasun olatua altxatu zuen eskualdeko herritarren artean, ehunka emakume mobilizatu dira biolentzia matxistaren atzean dagoen "gizonezkoen egiturazko konplizitateari" aurre egiteko, etxebizitzaren gaiak kezka piztu ditu, krisi energetikoaren eztabaidan bete betean murgildu gara... Mugarrak hauek eta beste askok markatu dute 2024an aiaraldearrok egin dugun bidea.

Aiaraldea eta munduak jiraka jarraitzen dute. Batzuetan aurrera, beste batzuetan atzera, baina beti nonbaitera. Eta guk, gure txikitasunetik, badugu zer esana horretan.

Jarrai dezagun 2025ean ere bidea mugarriz betetzen!

**Argitalpen data:** 2024ko abendua

**Inprenta:** Gertu. • **Tirada:** 2.500 ale.

**Lege gordailua:** BI-1230-2013

**Ekoizpena:** Aimar Gutierrez Bidarte, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares, Oihane Ozaeta Fernandez Iera Garaio Ibarrondo, Eider Garcia Gomez, Mainer Ramirez Martin.

**Azaleko irudia:** Aimar Gutierrez Bidarte. • **Esker bereziak:** Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko bazkide guztiei.

**Lizentzia:** CC-BY-SA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**araba**  **álava**  
**foru aldundia diputación foral**

# Aurkibidea

6-59 or. KRONOLOGIA

---

## Hezkuntza

62-63 or. Eskola jantokiak eztabaidaren erdian  
64-65 or. Eskola garraioan gorabeherak berriro  
66-67 or. Iritzia: Altxa burua, eta altxa osasuna!

---

## Kirola

70-71 or. Belaunaldi berria kirolari profesionalen olinpoan  
72-75 or. Kirolarien mugarriak  
76-77 or. Iritzia: Arrazakeria eta kirola

---

## Kultura

80-87 or. Disko, liburu, antzezlan eta pelikulen katalogoa  
88-92 or. Aiaraldea ez da Hollywood edo bai?  
93 or. Iritzia: Artziniega Museoak 40 urte

---

## Sozioekonomia

96-97 or. Kaleetatik epaitegietara egin du salto Autoglas-Glavistaren itxieraren auziak  
98-103 or. Etxebizitzarekin Aiaraldean zer?

---

## Jendartea

106-109 or.	Osasun sistema “publiko eta duina”, kezka zein aldarri
110-115 or.	Drogen aurkako gerra bukatu da?
116-119 or.	Renfe berriro ere: irisgarritasuna, atzerapenak eta zerbitzu kaskarra
120-121 or.	Iritzia: Erizain baten iritziz

## Euskara

124-129 or.	Euskararen aldeko mugarria Udalaren erantzunaren zain
130-131 or.	Enbor sendoagoa, adar gehiagori eusteko
132-133 or.	Iritzia: Euskarak mugimendua behar du, elkar mugituz egingo dugu?

## Politika

136-137 or.	Hauteskunde zikloaren ajea pasatzeko unea
138-145 or.	Laudioko politika instituzionala
146-147 or.	Amurrioko politika instituzionala
148-155 or.	Urduñako politika instituzionala
156-163 or.	Orozkoko politika instituzionala
163-171 or.	Arrankudiaga-Zolloko politika instituzionala
172-179 or.	Aiarako politika instituzionala
180-187 or.	Artziniegako politika instituzionala
188-195 or.	Okondoko politika instituzionala
196-197 or.	Arakaldoko politika instituzionala

# Urteko mugarri nagusiak

## hilabetez hilabete



### **Altube eta Aretako bidesarien prezioak igo zituzten urte hasierarekin batera**

2024aren hasierarekin, igo egin zituzten AP-68 autobideko prezioak. Altubeko bidesaria 25 zentimo garestitu zen, 6,25 eurotik 6,5 eurora igaroz. Aretakoa, aldiz, 10 zentimo gehiago balio izan du aurten.



### **2,25 milioi euro utzi zituzten 'El niño' loteriak Laudion**

Lehen eta hirugarren sarien 20 dezimo saldu zituzten guztira Laudioako Resa Etxeak. Establezimenduak hamar dezimo saldu zituzten zerbaki bakoitzeko. Hau da, guztira, 2,25 milioi euro banatu zituzten: 2 milioi euro lehen sariarekin eta 250.000 euro hirugarrenarekin.





### **Herritar baten heriotzak osasun sistema publiko duin baten aldeko mobilizazioa piztu zuen**

Atsekabetuta eta haserre, Audio-kaleetara atera ziren milaka lagun, osasun sistema publikoaren defentsan. David Hernandez 42 urteko audioarraren heriotzak samina hedatu zuen eskualdean, eta Osakidetzako murrizketen aurrean "aski da" oihukatzeke mobilizatu ziren herritarrak; azken hamarkadatik Aiaraldean egon den manifestazio jendetsuenetariko batean.



### **Urduñako espetxe frankistatik identifikatutako bederatzigarren pertsonaren gorpuzkiak, bere senideen eskuetan**

Francisco de la Cruz Orellanaren gorpuzkiak identifikatu zituen Gogora Institutuak, eta bere senideen eskuetan utzi zituen, 80 urte baino gehiagoren ostean.



### **Aiaraldeko txirridularien garaipenak borobildu zuen Amurrioko ziklo-kros asteburua**

Aiaraldean izen propioekin jantzi zen Amurrioko jokatutako Espainiako Ziklo-kros Txapelketako podiuma: Hodei Muñoz, David Hidalgo eta Iñaki Carro, besteak beste. Antolakuntza lanetan aritu zen Kuskumendi Bizikleta Taldea oso pozik azaldu zen txapelketaren emaitzarekin.





***Ettxeko suteen aurkako SUA sistema aurkeztu zuen Julian Iantzik Okondón***

2022an sute baten ondorioz hiru okondoar zendu eta gero, prebentzio neurriak bilatzeari ekin zion Udalak. Horren emaitza da urtarrilean aurkeztutako suteen aurkako prebentzio plan berria. Plan horrekin batera, Mundo Pua enpresak garatutako SUA sistema aurkeztu zieten herritarrei. Julian Iantzi telebistako aurkezleak gidatu zituen SUA sistemaren demostrazio ekitaldiak.



***Ohitura jarraituz, pospoloen argitan ospatu zuten San Anton Jaia Baranbion***

Baranbioko auzokideek San Anton jaia ospatu zuten urtarrilaren 13an Garrastatxun. Antzinako ohiturei jarraituz, pospoloen enkantea izan zen eguneko jarduera nagusia. Igel-toka txapelketak eta baselizan egindako herri afariak ere ez zioten hutsik egin urteroko egitarauari.

URTARRILA



***Fabian Legorbururen ordeztan, Areta Herri Eskola' izena jarri zioten ikastetxeari***

Izen aldaketa tokiko guraso elkarteak bultzatu zuen aurreko ikasturtean, eta prozedura osoa bete zuten horretarako. Izen berria aukeratzeko orduan, gurasoek argi zuten Areta agertu behar zela.






**Ertzaintzak drogen aurkako operazio zabala gauzatu zuten Laudioko Zubiko Kurajo kaleko tabernetan**

Polizia dispositibo zabala gauzatu zuen urtarrilaren 20an Ertzaintzak Laudioko Zubiko Kurajo kaleko bi tabernetan. Laudioko ertzain-etxeke agenteeek, Brigada Mugikorrek eta Txakurren Unitateko kideek parte hartu zuten operatiboan. Guztira hamazazpi lagun zigortu zituzten poliziak, ostalaritza establezimendu baten arduraduna tartean.



**Luiaondoko bizilagunak postaririk gabe geratu direla salatu zuten Administarzio Batzarrak**

Urtarrilaren 1ean aurreko postaria erretiratu zenetik Correosek ordezkariarik jarri ez duela salatu zuten. Postariaren faltak gutunak erregulartasunez jaso ezin dituzten 1.200 bizilagun utzi zituzten. Artziniegan ere antzeko egoera pairatu dute herritarrek aurtan.



**Gaszte belaunaldi berriak saretzeko topaketak antolatu zituzten Urduñako Gaszte Asanbladak**

Azken urteetako inertzia irauli eta belaunaldi berriak aktibatzen asmoz, bilera irekia antolatu zuten Urduñako Gaszte Asanbladako kideek urtarrilaren 26an. Helburuak beteta, indarberriturik atera zen gaszte Asanblada topaketa hartatik, urte osoan ekintza ugari antolatzeko konpromisoa hartuta.



**Dozenaka lagun batu ziren Laudioko Granja kiroldegian jazotako eraso matxista salatzen**

Laudioko kiroldegian eraso matxista salatu zen. Laudioko Eskubaloi Klubak adierazi zuenez, taldeko epaile eta entrenatzaile batek ipurdia ukitu zion klubeko emakume bati. Kirol elkarteak berehala erabaki zuen erasotzailea klubetik kaleratu eta zituen ardurak kentzea, entrenatzailea ere baitzen. Laudioko Mugimendu Feministak erasoaren jasan zuenari babesa adierazi eta elkarretaratzea egin zuen gertaera gaitzesteko.



**Lehen sektoreko protesta olatuak oihartzuna izan zuten Aiaraldean ere**

Europar Batasunak ezarritako neurrien aurka Frantziako eta Espainiako estatuak astindu zituzten lehen sektorearen protestek, eta oihartzuna izan zuten eskualdean ere. Espainiako banderak soinean, Quincoces de Yuso eta Merindadeetako nekazariek Aiaraldea zeharkatu zuten. Tokiko baserritar batzuk ere batu ziren karabanara.



### ***Irudimen festa Aiaraldeko kaleetara atera zuten herritarrek***

Otsailaren 9tik 13ra luzatu ziren inauteriak Aiaraldean. Kirolari olinpikoak, erleak, pertsonaia historikoak, musikariak... irudimena dantzan jarri eta orotariko mozo-roak prestatu zituzten eskualdeko bizilagunek festa-giroa ahalik eta gehien zukutzeko.



### ***Laudioko anbulatorio berria eraikitzeko lanak hasi zituzten Latorro auzoan***

Otsailean ekin zioten Altuna y Uria eta Orma enpresek Lau-dioko anbulatorio berria eraikitzeko lanei. Obrak 14,2 milioi euroko kostua izango du eta 22 hilabeteko epean amaitu beharko dituzte lanak.



### ***Bi Goya sari eskuratu zituen Esti Urresola laudioarrak, herrikideen berotasuna lagun***

Zuzendari hasi berri onenaren eta gidoi onenaren Goya sariak eskuratu zituen Esti Urresola zinemagileak. Zuzendariak lortutako bi sariak ez ezik, hirugarren estatuatxo bat ere etxeratu zuen *20.000 especies de abejas* filmak, Ane Gabarainek irabazitako aktore zerrendako onenaren Goya saria. Gazako herritarrak eta Laudioko bizilagunak izan zituen gogoan bere hitzartzeetan. Laudioko Udalak sari banaketa ekitaldia zuzenean jarraitzeko pantaila erraldoia jarri zuen Alberto Acero enparantzan, eta Urresola animatzeko milaka pegati-na banatu zituen herritik.



***“Euskararen semaforoa” sortu zuten, ekintzak antolatzerako orduan hizkuntza eskubideei arreta jartzen hasteko***

Tresna berria jarri zuen abian Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak: Euskararen Semaforoa. "Herritarren, elkar-teen, entitateen, antolatzaileen eta instituzioen eskura" dago baliabide hori, eta "berehalako informazioa" emateko balioko du, eskaintza zehatz baten gaineko "hizkuntza aukerei buruz".

## OTSAILA



***Guardianek Laudioko erdigunean “industria hilerrri erraldoia utziko duela” salatu zuten Glavistako langileek***

Egurrezko hainbat gurutze jarri zituzten Autoglas-Glavistako aparkalekuko belardian, fabrikaren itxiera eta bertako 240 langileen kaleratzea salatzen.



**Txani Rodriguezen eleberrian oinarritutako 'Azken Erromantikoak' filma grabatzen aritu ziren Laudion**

Zinema platu bilakatu ziren otsailaren 14ean Laudioko tren geltokia eta bere ingurunea. David Perez Sañudo zuzendariaren *Azken Erromantikoak* filma grabatzen aritu ziren bertan, Txani Rodriguezen izen bereko eleberrian oinarritutako pelikula.



**Kargutik kendu zuten Laudioko Udaltzaingoko buruzagia, "gertutasunezko polizia lortzera bidean" urratsak ematen hasteko**

Otsaileko Udal Osoko Bilkuran eman zuten erabakiaren berri. Ainize Gastaka alkateak aldarrikatu zuen "konfiantza eta elkarlana" egon behar direla tokiko poliziaren agintearen muinean. Bere ustez, "orain arte ez da hori egon".



**Drogen aurkako operazio gehiago egin zituen Ertzaintzak, Urduñan eta Laudion**

Ertzaintzak "drogen trafiko eta kontsumoaren prebentzioa sustatzeko" operazioak egin zituen Urduñako eta Laudioko taberna guneeetan. Poliziari egiten ari zirena aurpegiaratu zion herritar bat atxilotu zuten, eta erresistentzia eta agintaritzaren aurkako atentatua leporatu zizkioten.



***Ehunka herritar eta zapata-pare Israelek Palestinan hildakoen omenez, otsailaren 24ean Laudioko erdigunean***

Ohiko mobilizazio eruedetatik aldendu ziren otsailaren 24ean Laudio eguniko ekitaldian. Herriko plaza zapata-parez bete zuten herritarrek, Israelek Palestinan azken hilabeteetan eraildako pertsonak oroitzeko. Israeli boikot egiteko deia zabaldu zuten bertan.



***Arrankudiaga-Zolloko emakumeen I. Topaketa egin zuten Gizarte Etxean***

Antolakuntzan urrats berria emateko asmoz prestatu zuen topaketa Arrankudiaga-Zolloko emakumeen sareak. Urteko plangintza diseinatu zuten bertan, bertaratutako emakume guztien iritzi eta ekarpenekin.



***Tubacex enpresako irabazi garbiek %79,5 egin zuten gora eta 36,3 milioi eurora heldu ziren iaz***

Multinazionalak 100 langile kalera-tu nahi zituen 2021ean etorkizuna kolokan zegoela argudiatuta, baina etekinek gora egin dute etengabe orduz geroztik, otsailean plazaratutako emaitzek erakutsi zuten moduan.



**Aiaraldetik Usansoloko Ospitalera joateko autobus zuzena urtebeteko epean ezartzea onartu zuten Arabako Batzar Nagusietan**

Aiaraldeko Pentsiodunen Mugimenduak urtebete baino gehiago eman du autobus zerbitzua eskatzen. Eztabaida Arabako Batzar Nagusietara itzuli zen martxoan. Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuten, eta PPK beste bat. Azkenean, bi testuak bateratu eta alde bozkatu zuten hiru talde politikoek.

## MARTXOA



**Aiarateka Kultur Elkarte sortu zuten, udalerrria biziberritzeko**

Luiaondoko ama talde batek bultzatu zuen egitasmoa herritarren gogoak eta indarrak batu eta udalerriko tokiei zein bizitzari bultzada emateko asmoz.



**Iker Larrazabal eta Arkaitz Eskuza garaile Orozkoko finalerdietan**

Aiaraldeko bi pilotariek 22-13 irabazi zituzten Orozkoko pilotalekuan jokatu ziren Binakako Serie B Txapelketako Finalerdietako lehengo norgehiagokak, bakoitzak bere bikotearekin.



**Gasteiz kaleko gasolindegiko lanak geldiarazteko mobilizatu ziren Aretako bizilagunak**

Auzokideek salatutako irregulartasunak aztertu eta baimenik gabeko obrak egiten ari zirela egiaztatu ostean, lanak bertan behera uztea eskatu zion Laudioko Udalak Gasteiz kaleko gasolindegia eraikitzen ari zen enpresari.



MARTXOA



**Artziniegan grabatu zuten Julio Medem zinemagilearen film berria**

Urduñan grabatzen aritu ostean Artziniegako Alde Zaharrera mugitu zuten *Ocho* filmaren platoa. Julio Medem zinemagile donostiarraren azken lanak zortzi sekuentzia planotan kontatuko du emakumezko eta gizonezko baten istorioa 90 urtetan zehar, 1931n hasita.



**Enplegua erregulatzekeo espediente berria abiatu zuen Tubos Reunidosek**

2022ko emaitzekin alderatuta, konpainiaren etekinek % 30 egin zuten gora. Hala ere, martxoan Aldi Baterako Enplegua Erregulatzekeo Espediente berria hasi zuten uztaiera bitartean.





***Bizitzen gaineko negozioreen kontrako aldarria atera zuen plazara Aiaraldeko Mugimendu Feministak***

2023ko azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorren lekukoa hartu zuen aurtengo martxoaren 8ak. Ehunka lagun mobilizatu ziren berriro ere Aiaraldeko kaleetan, eta "zaintza sistema publiko komunitarioaren" aldeko borrokan berretsi zen eskualdeko mugimendu feminista.



**Aiaraldeko milaka eta milaka euskaldun harro korrika**

Irudi gogoangarriak utzi zituen 23. Korrikak Aiaraldean. Martxoaren 22an zeharkatu zuen euskararen aldeko ekimen erraldoiak eskualdea. Artziniegatik sartu eta Arrankudiaga-Zollo atzean utzi arte milaka eta milaka euskaltzale atera ziren errepidera, lekukoaren atzetik Aiaraldea euskaldun eta harroa aldarrikatzeko.



**Cake Minuesa eskuin muturreko kazetaria Laudion egon zen grabatzen**

Herritarrek herrigunean ikusi zuten Minuesa, Gazako biktimen monolitoaren eta Laudio Institutu aurrean dagoen LGBTBI+ kolektiboaren aldeko murallean grabatzen.



**Erauntsi Egunak dantzaz busti zituen Urduñako kaleak**

Dantza izan zen martxoaren 23ko protagonista Urduñan, Erauntsi Dantza Taldeak antolaturiko Erauntsi Egunari esker. ADELA elkartera bideratu zuten bildutako diru guztia.



**EAEn inoiz atzeman duten marihuana ekoizle handienak izatea leporatu zien Ertzaintzak Amurrion pabiloi bat zuten hiru gizonezkori**

Hiru pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak Amurrion 11.000 kalamu landare hazteko gaitasuna izango lukeen pabiloia kudeatzea leporatuta. Operazioan 26.000 euro, pistola bat eta hainbat gailu elektronikoko ere topatu zituen poliziak.



**Amurrioko Udalak Laguntza elkarte finantzatzeari uko egin zion, eta elkartearen ibilbideari amaiera eman zion**

Apirilean Amurrioko 95 familiek ez zuten elikagairik jaso. Ordura arte Laguntza elkarte arduratzen zen banaketaz, baina Amurrioko Udalak proiektua finantzatzeari uko egin zion.



**Arabako lehenengo komunitate energetiko industrialia osatu zuten Laudio Group taldeko enpresek**

Laudioko Gardeako industriaguneko hamazazpi enpresek osatzen dute Laudio Group taldea. 100 kW-ko bi azpiegitura fotovoltaiko instalatzeko lanak abiatu zituzten urte hasieran, eta Arabako lehenengo komunitate energetiko industrialia osatu zuten.





**Ehunka lagunek  
parte hartu zuten  
Aiaraldeko olatu  
zuri-gorrian**

Gizonezkoen Errege Kopako finalak ikusmira handia sortu zuen Aiaraldean, eta ehunka athleticzale atera ziren kalera talde zuri-gorria animatzera. Apirilaren 9an zeharkatu zuen Gabarrak Bilboko itsasadarra, eta aiaraldear ugari batu ziren bertan.



**Ramadanaren bukaera jaia ospatu zuten  
Bañueta kiroldegian**

Ramadanaren bukaera jaia, Eid al-Fitir, ospatu zuen Aiaraldeko komunitate musulmanak, eta dozenaka lagun elkartu ziren Amurrioko Bañueta kiroldegian otoitz egin eta janaria elkarbanatzeko.



**Aretako herri  
nortasuna ozen  
aldarrikatu zuten**

Beste marea zuri-gorri batek kaleak hartu zituen apirilean ere: Aretako bizilagunena. Aretako Eguna ospatu zuten, auzokideak elkartu eta Aretaren herri izaera ozen aldarrikatzeko.





**Legebiltzarrerako hauteskondeek EAJren eta EH Bilduren arteko berdinketa erakutsi zuten**

EAJk irabazi zituen apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarre-rako hauteskundeak Aiaraldean, EH Bilduri 42 boto eska-seko aldea aterata. Inoiz baino parekatuago agertu ziren eskualdean nagusi diren bi indar politikoak.



**Jai euskaldunak sustatzeko ekimen bateratu aurkeztu zuten Aiaraldeko sei udalek**

Jai-maratoian murgildu aurretik Gora Aiaraldeko jai eus-kaldunak! ekimena aurkeztu zuten Laudio, Urduña, Artzi-niega, Orozko, Aiara eta Arrankudiaga-Zollo Udalek, Aia-raldeko Euskalgintza Kontseiluarekin elkarlanean.





### **San Prudentzio jaiek ehunka lagun bildu zituzten Aiaran eta San Josen**

Aiarako eta Amurrioko San Jose auzoko jaiek eman zioten hasiera irailera arte luzatu zen herri eta auzoetako festa-maratoiari. Halaber, San Prudentzio jaiek eskualdeko beste zenbait tokitan izan zuen oihartzuna. Izan ere, ugariak izan ziren tokian toki antolatutako danborradak.



### **Kaleratzeak Envases eta Imegar enpresetan**

Bina langile kaleratu zituzten Laudioko Envases eta Imegar enpresetan. Langileek protesta eta lanuzteetara jo zuten, gainera Lan Ikuskaritza Imegarren egon zen eta greba eskubidea urratzen ari zirela ziurtatu zuen.



### **Angel Salas Larrazabal militar urduñar frankistari kondekorazioak kentzeko urratsak abiatu zituen Espainiako Gobernuak**

Gorka Elejabarrieta EH Bilduko senatariak egin zuen eskaera apirilko kontrol saioan eta Espainiako Gobernuak erantzun zuen prozedura abiatuko duela demokrazian emandako aitortzak bertan behera uzteko.



**Zorroza Gestión de Residuos enpresako arduradunek onartu egin zuten Bassirou Dioneren gorpua mugitu zutela, lan heriotza ezkutatzeko**

Bassirou Dione langileak bizia galdu zuenetik lau urtera, maiztaren 8an eseri ziren epailearen aurrean Zorroza Gestión de Residuos enpresako arduradunak. Akordioa erdietsi zuten bi aldeek. Epaileak urtebete eta sei hilabeteko espetxe zigorra eta 30.000 euroko kalte-ordaina ezarri zien enpresako bi arduradunei, haiek gertatutakoak onartu ostean.

MAIATZA



**Moja klaratarren matxinadak Urduña jarri zuen agenda mediatikoaren erdigunean**

Eliza Katolikoarekin hautsi eta Beloradora alde egin zuten maiatzean Urduñako moja klaratarrak. Gaia hedabide handien denborapasa nagusia bilakatu zen, Urduña foku mediatikoan jarritz.



**Aingeru Olabarrietak debuta egin zuen Athletic Clubarekin**

Luiaondoarrak Athletic Club-Sevilla FC partidaren azkenengo minutuak jokatu zituen lehen taldearekin maiatzaren 19an.





### **Jai eredu kontrajarriek bat egin zuten 2024ko Otxomaio jendetsuetan**

Jendetza elkartu zen aurtengo Otxomaio jaietan. Bi asteburuz luzatu ziren jaiak, eta urduñarrek azken unera arte zukutu zuten festa-giroa. Leticia Sabaterren kontzertuak sortu zuen zalaparta gehien. Sabaterrek ehunka pertsona erakarri zituen hirira; bien bitartean, eragile ugari egitarau alternatiboa antolatu zuten, bestelako jai eredu eta festa parekideak aldarrikatzeko.



**Indarberrituta ospatu zituzten Gardeako Jaiak**

Otxomaioei itzal egitetik gertu egon ziren Gardeako jaiak. Jai Batzordea indarberriturik, jai egitarau oparo eta anitza antolatu zuten, auzoko eragile, kolektibo eta norbanakoekin elkarlanean. Mundu osoko gardearrak batu ziren auzoko jaietaz gozatzeko.



**Birrindu egin zituzten Osakidetzaeren erantzunak, "aitzakiak" direla argudiatuta**

Ehundik gora lagun elkartu ziren maiatzaren 23an Amurrioko Osasun Zentroaren atarian, hilabete lehenago abiatutako erreklamazio kanpainari Osakidetzaek emandako erantzuna salatzen.



**Buru osasun zentrozen arteko liga irabazi zuen ASASAM elkarteko areto futboleko taldeak**

ASASAMek irabazi zuen Bizkaiko eta Arabako buru osasunari lotutako elkarteek eta zentroek jokatzeko duten futbol aretoeko liga. Partida guztiak irabazi zituzten aiaraldeen artean, bat salbu.



### **Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu zion eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari**

Maiatzean egin zen publiko albistea: Amurrioko Udalak 6.000 euroko dirulaguntza kendu zion Aiaraldea Komunikabideari. Euskaingintzan aritzen diren hainbat norbanakok eta erakundeek salatu zuten erakunde publikoaren erabakia eta euskararen kontrako erasotzat jo zuten.

## MAIATZA



### **Eguneko giro paregabeaz gozatzeko aitzakia eman zuten txakolinak**

Eguerditik iluntzera arte luzatu zen jaia Amurrioren maiatzaren 26an. Txakolina izan zen festaren ardatza, baina euskarazko komunikabideen aldeko aldarriak ere izan zuten tokia.



### **Orozko osora zabaldu zen bi eguneko rock jaialdia**

Orozko Rocken edizio berriak ehunka lagun erakarri zituen herrira, baina ez soilik gauzez. Izan ere, aurten bi egunetz luzatu da egitaraua, kale-kontzertu eta mahainguruekin.



***Pintaketa homofoboak egin zituzten Amurrion  
LGTBIQ+ kolektiboaren koloreekin margotutako  
bankuan***

Margoketa homofoboak agertu ziren Amurrion LGTBIQ+ kolektiboaren koloreak dituen bankuan. Hala salatu zuten Amurrio Harro taldeko kideek. Amurrioko Mugimendu Feministaren muralean ere egin zuten margoketa.

EKAINA



***Dimisioa aurkeztu zuen Sonia Hidalgo Arakaldoko alkateak***

Idazkari kontu-hartzailerik ez izatearen eta horren ondorioz pilatutako lan-kargaren ondorioz erabaki zuen Sonia Hidakok ekaineko Udal Osoko Bilkuran dimisioa aurkeztea. Arakaldoko Taldeko zerrendaburu aurkeztu zen Hidalgo 2023ko udal hauteskundeetara. Hainbat bizilagunen artean sortu zuten herritar plataforma hori, jarraipena emateko Jabi Asurmendi alkate ohiak aurreko bi legealdietan eginko lanari.



### **Artziniegako zerbitzu publikoen okertzearen aurka mobilizatu ziren herritarrak**

Mobilizazio ugari egin zituzten Artziniegan udaren hasieran, “Artziniega bizirik!” lemapean, udalerriko zerbitzu publikoek okerrera egin zutela salatuz. Zehazki, Correoseko, osasun zentroko eta Arteko Gure Ama ikastetxeko egoera dela eta egin zituzten elkarretaratzeak, Udalak deituta. Protestek emaitzak eman zituzten: Correosek jakinarazi zuen irailean hasiko zela lanean postari berria. Hezkuntza Sailarekin izandako bileran, aldiz, ez zen aurrerapausorik egon, Udalaren arabera.



### **Abstentzioa nagusi Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetan**

Ekainean egindako Europako Legebiltzarrerako hauteskundeek hiru ardatz utzi zituzten Aiaraldean: abstentzioaren areagotzea, EH Bilduren eta EAJren arteko lehia eta politika espainiarraren polarizazioa PSOE eta PPren artean.



### **Lezamako Ezker Abertzaleko familia baten etxebizitza tirokatu zuen polizia nazional ohia epaitu zuten**

Hiru urte eta bederatzir hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion epaileak. Akusazio partikularrak ahalegina egin zuen Lezamako polizia nazional ohia espetxera joan ez zedin. “Ez da garaia kartzelak betetzeko”, adierazi zuen familiaren abokatuak.



**Jende uholdea batu zen Amurrion Aiaraldea Komunikabidearen alde**

Elkarretaratze jendetsua egin zuten Amurrioko Juan Urrutia plazan. 1.700 elkarte, eragile eta norbanako baino gehiagok eskatu zioten Amurrioko Udalarai Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza berrezarri eta euskararen biziberritzean “eragile aktibo” bilakatzea.



### **Omniak Laudioko udal gobernu taldea utzi zuen oposizioan aritzeko**

Omniak udal gobernu taldea utzi zuen ekainean "kudeatzeko moduan erabateko adostasunik ez zegoelako". Hala ere, akordioa erdietsi zuen talde independenteak EH Bildekin adostasuna egondako gaietan elkarlanean jarraitzeko, baina oposiziotik.

## EKAINA



### **Garai Plazako horma-irudi berria inauguratu zuten**

Txerra Ortega artista madrildarrak goitik behera margotu zuen erlojuaren dorrea, *Los engranajes del tiempo* lanarekin. Artziniegako Udalak aurreratu du horrelako horma-irudi gehiago egingo dituztela.



### **Dozenaka lagunen artean ospatu zuten Berbots euskaltegiaren 25. urteurrena**

Laudioko Berbots euskaltegiak 25 urte bete ditu aurten, eta ekainean egin zuten ospakizuna. Irakasle, herritar zein kide ohi ugari batu ziren elkarrekin bazkaltzeko.



**Parte hartze handia izan zuten Amurrioko Gazte Egunak**

Egun osoko egitaraua prestatu zuten Gazte Asanbladaren urteurrenaren XVII. edizioan. Aizkolari probak, herri bazkaria, elektrotxaranga edota kontzertuak izan ziren kaleak hartzeko aitzakia.



**Lehenengo aldiz ospatu zuten CD Orduña Eguna Arbieton**

CD Orduña Eguna ospatu zuten lehenengo aldiz Arbieton. 3x3 futbol txapelketak egin ondoren, herri bazkariari ekin zioten. Aisialdirako eskaintza ere prestatu zuten arratsaldean.

EKAINA



**Luxuzko udako solstizio ospakizuna eskaini zuten Artziniega Museoa**

Artziniega Museoa 40. urteurrena dela eta, udako solstizioaren ospakizun are bereziagoa egin zuten, Joaldunekin, laiaia irrintzi taldearekin eta Korrontzirekin. Suak eta musikak epeldu zuten gaua.





### ***Udako jaien giroz bete zen Laudio, kuadrillen eskutik***

Beste urte batez, abuztuko San Roke jaien aurrerapen txiki bat ikusi ahal izan zen Laudio, Sanpedropeko jaiei esker. Suziri Jai Batzordeak bi eguneko egitaraua prestatu zuen. Aldai plaza izan zen festaren epizentroa. Bertan egin zituzten tortilla eta sukalki txapelketa, karaokea eta kalejiraren abiatzea.



**'El bus de la vida' filmaren aurrestreinaldiak giro liluragarria sortu zuen Urduñan**

Herritar mordoia hurbildu zen Urduñako Foru plazara uztailaren 4an. Filma ikusteaz gain, zuzendari eta antzezleen hitz batzuk ere entzuteko aukera ere izan zuten. Filmeko hainbat kanten zuzeneko emanaldiak borobildu zuen gaua.



**Subiranotasunaren aldeko mezua eraman zuen Gure Eskuk Oletako zelaietara**

Gure Esku plataformak Oleta zelaia hartu zuen, urtero legez, erabakitzeo eskubidearen ikur bilakatzeo ingurua. Aldarrikapena, herri kirolak, dantza eta musika uztartu zituzten, erabakitzeo eskubidea erdigunean jartzeko.



**'Ultreya Mas Sol' mugimenduak 1.000 euroko ekarpena egin zien Artziniega Museoari eta herriko dantza taldeari**

Artziniegara heldu zen Ultreya Mas Sol elkartasun ekimena. Egitasmoak Espainiako Estatuko landa eremuetara jotzen du herri txikien jardura aitortzeko eta laguntzeko. Markel Vivanco eta Peio Ureta izan ziren hiribilduko enbaxadoreak.



**Glavistako kaleratzeak bidegabetzat jo zituen epaileak, Guardianek eta Parter Capitalek ez baitzituzten justifikatu**

Gasteizko merkataritza arloko epaitegiak arrazoa eman zie Autoglas-Glavistako langileei eta adierazi zuten bidegabea zela behargin guztiak kaleratzeko enplegua erregulatzeko espedientea.

UZTAILA





**Ane Gabarain aktorea izan zen Okondoko Txakolin Eguneko enbaxadorea**

Euriak ez zuten Okondoko Txakolin Eguneko giro ona zapuztu. Ane Gabarain izan zen eguneko enbaxadorea, eta alaitsuanez bete zuen azoka.



**Lidia Castrok jantzi zuen txapela I. Emakumeen Aiarako Biran, bi etapetan erakustaldia eginda**

Uztailean lehiatu zen Emakumeen Aiarako Biraren lehengo edizioa. Eskualdean txirindularitzan aritu ziren emakume aitzindariak omendu zituzten.



***Aiaraldeko herri txikiek hartu zuten protagonismoa uztaileko jai-maratoian***

Aiaraldeko herri txikietan bada festa giroa, eta ez nolanhikoa! Aretako, Luiaondoko, Zuhatzako, Arakaldoko... herritarrek aise erakutsi zuten ez dutela milaka pertsonen presentzia behar jai herrikoiki eta bizietaz gozatzeko.





***Festa zaparradak borobildu zituen abuztuko egun luzeak***

Sargoria, euriteak, udako ekaitz bortitzak... ez ziren gai izan aiaraldearren festa gogoia epeltzeko. Laudion, Amurrión, Okondon edota Arrankudiagan, milaka bizilagunek euren alea jarri zuten jai gozagarriak bizi- zeko. Txarangak, herri bazkariak, kontzertuak, jolasak... urteroko irudia errepikatu zen aurten ere.





***Mila lagun baino gehiago batu ziren, osasun sistema publiko eta duin baten alde, mediku-arreta jaso gabe zendu zen herritar baten heriotza salatzeko***

Laudioko kaleak hartu zituzten 1.300 herritarrek abuztuaren 29an, SOS Aiaraldea plataformak deitutako eskualdeko mobilizazioan. Abuztuaren 22an behar bezalako mediku-arreta ez jaso ostean herritar bat zendu izanak piztu zuen protesta, baina eskualdeko plataformak Osakidetzaaren egoera orokorra salatu zuen.





**Laudio Arabako herririk itsusiena zela ondorioztatu zuen Viajar aldizkariak, adimen artifiziala erabili**

Zeresana eman zuen *Viajar* aldizkariak plazaratutako zerrrendak. Agerkari horrek adimen artifiziala baliatu zuen estatuko probintzia bakoitzeko herririk itsusiena identifikatzeko. Laudio zegoen lehen postuan Araban.

## ABUZTUA



**Nerbioiko Parke Linealaren zati berria inauguratu zuten**

Refor eta Saratxoko industriagunearen arteko bide zati bat inauguratu zuten Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak.



**Artziniegako Udalak 3.000 euro bideratu zituen Palestinari laguntza emateko**

Nazio Batuen UNRWA erakundeari egin zioten ekarpena. Izan ere, gerra berpiztu zenetik hainbat herrialdek palestina ekonomikoki laguntzeari utzi zioten.



**Eskualdeko Ernaiko zazpi kide isundu zituzten, euren militantzia politikoagatik**

133 pertsona isundu zituen Segurtasun Sailak Mozal lega aplikatuta, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarren aldeko ekimenetan parte hartzeagatik. Isunduetako bi kide Aiaraldekoak ziren. Ernaiko beste lau kide isundu zituzten, "Polizia gorroto dugu" lema zuen afixak jartzeagatik. Gainera, Greba Feminista Orokorreko ekintzengatik beste sei herritar zigortu zituzten, 2.500 euroko isunekin.



**4.700 euroko ekarpena egin dio Amurrioko elkartasun txosnak Hodeilargi elkarteari**

Amurrioko jaietako Elkartasun Txosnak bildutako dirua Hodeilargi elkarteari luzatu zioten, Battenen gaixotasunaren aurkako borrokan diharduen taldea. Herriko kultur eta kirol eragile ugari egin zuten ekarpena Txosna Solidarioan.

IRAILA



**Udako etenaldia baliatu zuten Granja kiroldagiko amiantoa erretiratzen hasteko**

Apirilean atzeman zuten amiantoa igerilekuetako aldagelutako zenbait eserlekuetan. Aldagelak itxi ostean, amiantoa erretiratzeko lehen lanak egin zituen Udalak, udako etenaldia baliatuta.



### **Humberto Perea jeltzalea izendatu zuten Arakaldoko alkatea**

Sonia Hidalgo Arakaldoko Taldeko alkateak ekainean dimisioa aurkeztu eta gero, Humberto Perea jeltzalearen esku geratu zen eskumen hori. Perea EAJko zinegotzi bakarra da Udalean, baina Arakaldoko Taldeko zinegotziek gobernuburu izateari uko egin ondoren, jeltzaleak onartu egin zuen alkate bilakatzea, besteen eskaerari erantzunda.



### **Irailen hasi zen lanean Artziniegako postari berria**

Hilabeteetako protesta eta salaketen ondoren, irailen hasi zen lanean Artziniegako postari berria. Udan behin behinean itxi zuten posta bulegoa, eta abuztuan 200 herritarrek sinatutako gutuna igorri zioten Correoseko arduradunari.



### **Eraso matxista gertatu zen Arrankudiagan, eta herritarren erantzuna goraipatu zuten**

Arrankudiaga-Zolloko Udalak eta Arrankudiaga-Zolloko Emakumeen Sareak herritarren jarrera eta erantzuna goraipatu zituzten irailen udalerrian gertatutako eraso matxistaren harira. "Indarkeria matxista salatzeaz gain, azpimarratu nahi dugu herritarrek arduraz jokatu zutela eraso baten aurrean", azaldu zuten Udaletik.



***Irailen ere ez zuen etenik izan jai-maratoiak***

Artziniega, Orozko, Abxeta, Latioerro, La Antigua... etxeratzeko gogo gutxi izan zuten aiaraldearek, eta irailen ere uda betea bailitza gozatu zituzten auzo eta herrietako jaietaz. Argi orduak ondo aprobetxatutagauko ordu txikiak arte luzatu ziren dantzaldiak.






**Erdi Arora bidaiatu du Artziniegak, Antzinako Azokaren XXV. edizioan**

Mendeetan atzera egin zuten Artziniegako kaleek, Antzinako Azokaren XXV. edizioan. 1998an Artea Etnografia Elkarteak abiatutako ekimenak Erdi Aroko giroa ekarri zuen beste urte batez hiribildura.



**Jendetzak babestu zuen 8 Mila Bihotzez ekimena Laudion**

7.000 euro bildu zituzten sortzetiko kardiopatia duten haurrei, gazteei, eta haien familiei laguntza emateko karpainan. Ekimenak 8.000 metroko desnibela betetzea zuen helburu, eta 14 aldiz igo ziren Goikoganera horretarako.





### **800 lagun baino gehiagok hartu zuten parte Urduña Hiria Herri Krosean**

Arando Korrikalari Taldeko kideek antolatu zuten proba, urtero bezala, eta pozik azaldu ziren lortutako emaitzarekin, iaz baino kirolari gehiago batu zirelako Foru plazatik abiatutako lau lasterketetan. Euren ustez, 6 kilometroko kategoría laburrago bat jartzea izan zen lortutako arrakastarako gakoetako bat.



### **Iñigo Pinedo jeltzalea izendatu zuten Aiarako Kuadrillako presidente**

Encina Castresanaren dimisioaren ostean, EAJk Iñigo Pinedo Vadillo proposatu zuen Aiarako Kuadrillako presidente izateko. EAJren eta PSE-EEren babesas jaso zuten, irailaren 25eko osoko bilkuran.

## IRAILA



### **Belardi haragi transformazio zentroa inauguratu zuten Urduñan**

Bedarbeste abeltzainen elkartek sustatu zuten azpiegitura berriaren eraikuntza. 1,5 milioi euroko inbertsioa egin zuten horretarako.



***Ehunka lagunek salatu zuten Mohamed Lazraqen heriotza saihestu zitekeela***

Urduñako Foru plazako karpa bete zuten, urriaren 16an Loiun jazotako lan heriotza salatzeko. Mohamed Lazraq, 47 urteko urduñarra, 9 metroko altueratik amildu zen, Amiantec 3000 enpresarentzat lanean ari zela. Urtebete lehenago lan ikuskaritzan salatu zituzten Amurrion kokatutako enpresaren lan baldintza prekarioak.



***Gilen Albisuak Espainiako motokross txapelketa irabazi zuen***

Motor gidari aiarrarra Espainiako txapeldun izendatu zuten 18 urtez azpiko mailan, Baezan jokaturako txapelketan. Albisuak adierazi zuenez "egia bihurtutako ametsa eta egingdako ahalegin eta lan guztiaren sari ezin hobea" izan zen garaipena.



***Iñaki Isasi izendatu zuten Euskadi Fundazioko presidente berria***

Iñaki Isasi Euskadi Fundazioaren presidente berri izendatu zuten Fundazioaren gidaritzan eta kudeaketa indartzeko barne-prozesuaren ondoren. Aiararrak Aitor Galdosen lekukoa hartu zuen.





**Alaitz Aramendi euskal preso politikoaren espe-  
txealdian eragingo luke Espainiako Kongresuak  
onartu zuen lege erreformak**

Espainiako Estatuko politika astindu zuen gaiak Aiaral-  
dean ere eragin zuzena izan zuen. Alaitz Aramendi oro-  
zkoar presoak 13 edota 18 urtetan murriztuko luke bere  
espetxe zigorra. Halaber, egungo legedia kontuan hartuta,  
2061era arte preso egon beharko luke.

URRIA



**Ekaitz bortitz batek ur  
putzuak sortu zituen**

Ekaitz labur baina bizia igaro zen  
Aiaraldetik urriaren 16an. Tru-  
moiak, euria eta txingorra pilatu  
ziren minutu gutxitan. Aretan 6.1  
mm-ko prezipitazioak neurtu zi-  
tuzten 10 minututan eta Saratxon  
9.4koak.



**Aginigako gaztak arrakasta lortu zuen  
Gernikako Urriko Azken Astelehenean**

Aginagako Larrabe Gaztandegiak berriro irabazi zuen  
Gernikako Urriko Azken Asteleheneko Azokako lehiaketa.  
Aiararrek, gainera, marka guztiak hautsi eta 8.000 euroren  
truke saldu dute gazta zati erdia.



**A-15 eta A-16 lineetako autobusek Luiaiondon sartu eta geldialdiak egitea eskatu zuten**

A-15 eta A-16 lineetako autobusak Luiaiondo paretik pasatzen direnean, Luiaiondon sartu eta geldialdiak egiteko eskatu zion Aiarako Udalak Foru Aldundiari.



**Legebiltzarkide izateari utzi zion Julen Arzuagak**

12 urteko ibilbidearen ostean, legebiltzarkide izateari utzi zion Julen Arzuagak. Durangaldeko Urkiola Agentziako kudeatzailea izango da aretarra hemendik aurrera, dagokion prozesu administratiboan lehen postua eskuratu ostean.

URRIA



**Turbocross lasterketa herrikoiak umorea eta dibertsioa ekarri zituen Urduñara**

Urduña City Cross txirrindularitza probaren edizio berria egin zuten urrian. Aurtengoa edizioa berezia izan zen. Izan ere, lasterketa herrikoiaren lehenengo edizioa egin zuten: Turbocrossa.



### **Dozenaka aiaraldear mobilizatu ziren Valentziako uholdeetan kaltetutako pertsonen elkartasuna helarazteko**

Tanta hotzak Valentzian eragindako eurite eta suntsipenaren aurrean, dozenaka aiaraldear mobilizatu ziren kaltetutako herritarrei laguntzeko. Sarraskia gertatu eta gutxira abiatu ziren lehenengo autoak eskualdetik. Egunek aurrera egin ahala geroz eta gehiago ehundu zen elkartasun sarea, eta Valentziaraino bidaiatu gabe, ehunka izan ziren ere eskualdetik aletxoak jarri zutenak: janari bilketekin, garraio lanekin martxa solidarioekin...



**Eskualdeko upategiek iaz baino mahats gutxiago jaso zuten aurtengo uztan**

Albiste txarrak iritsi ziren eskualdeko txakolin upategietatik. Aurtengo uzta-ren emaitza kuantitatiboa "oso etsigarria" izan zen Arabako Txakolinaren hitzetan. Jatorrizko Izendapeko kideek nabarmendu dutenez, 2022tik 2023ra %46ko jaitsiera egon zen jazotako mahats kopuruan, eta 2024ko emaitza are txarragoa izan zen. Dena den, kontuan izan behar da baita ere 2022ko uzta izan zela Arabako Txakolinak inoiz lortutako emaitza oparoena.



**Langile bat hil zen Tubacexen Amurrioko lantegian, bihotzeko baten ondorioz**

Behargin bat hil zen azaroaren 8an Tubacexen, 8:20ak aldera, bihotzeko baten ondorioz. 2019an bi pertsona zendu ziren multinazionalak eskualdean dituen lantegietan.





**Fraideburu protagonista  
Gorobel mendi ibilaldiaren  
edizio arrakastatsu berrian**

Arrakastatsua izan zen oso Gorobel Ibilaldiaren azken edizioa. Giro epelak eskualdeko mendietaz gozateko egun ederra utzi zien Amurrión elkartutako 1.200 mendizaleei. Hego-haizeak eta laino opilek are ikusgarriago egin zituzten eskualdeko paisaiak.



**Lamuza parkea Berpizteko Plan Bereziaren  
proposamena aurkeztu zuten**

Lamuza parkea Berpizteko Plan Bereziaren proposamenak erakusketa batean bildu zituzten, Lamuza plazan jandak dagoena. Amestutako proiektuak ez du soilik eragiten parkean, herriko beste toki batzuetan ere eraikinak sortzea aurreikusten baitu.

**AZAROA**



**Trantsizio feminista, etorkizun  
desiragarriak irudikatzen**

Bilgune Feministak antolatuta, Laudio Emakume\* Abertzaleon X. Topaketa Feminista hartu zuen azaroaren 16an, "Trantsizio feminista dimentsio guztietan" lelopean.



**Urduñako Mendi Lasterketak ehunka kirolari eta ikusle elkartu zituen Gorobeiko lokatz artean**

Lokatz izan zen Urduñako Mendi Lasterketako protagonista nagusia. Goiz lainotsu eta euritsuak mendiko trailaz gozatzeko giro paregabea eskaini zuen. 550 kirolari elkartu ziren Foru plazako irteera lerroan, eta askoz gehiago izan ziren Urduñako kale eta Gorobeiko bidezidor bazterretan batu ziren zaleak.

AZAROA



**Beldur Barik sariek Artziniegako frontoia bete zuten ehunka gazterekin**

Beldur Barik sarien banaketa ekitaldia Artziniegako frontoian egin zuten eta ehunka gaztek parte hartu zuten. Aiaraldeko eta EAE osoko sariak eman zituzten tokiko zein Foru Aldundietako eta Eusko Jaur-laritzako ordezkari politiko zein teknikoei.



**Oxinburu bete zuten espazioaren inaugurazio ekitaldian**

Azaroan ireki zituen atea Arrankudiaga-Zolloko Oxinburu biziguneak. Behark arkitektura estudioak sortu zuen eraikin zaharra goitik behera eraberritzeko proiektua. 1,3 milioi euroko inbertsioa suposatu du obrak.



### **Zollo eta Lezamako jaiek girotu zituzten azaroko egun epelak**

Ohiko egitarauak mantenduta, urteko jai-maratoiari amaiera eman zioten Zolloko eta Lezamako bizilagunek. Haurrentzako jolasak, herri bazkariak, txapelketak, kontzertuak... denetariko ekintzez gozatzeko aukera egon zen bi herrietan.



**"Lotsa bandoz aldatzeko" determinazioarekin mobilizatu zen Aiaraldeko Mugimendu Feminista**

Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunaren tes-tuinguruan ehunka lagun mobilizatu ziren Aiaraldean, "Ez bazara konponbidea, arazoa zara!" lemapean.



**Zaintza sistema publiko eta komunitarioaren beharra kalera ateratu zuten berriro**

Azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorraren urteurre-nean kalera ateratu zuten berriro ere zaintza sistema publiko eta komunitario baten beharra. Azken urtean bide horre-tan egindako urratsen berri emateko baliatu zituzten Lau-dio eta Amurrioko hitzorduak. Amurrion, esaterako, lan handia egin du Emakumeon\* Sareak zaintza baliabideak publikatzeko urtebetean.







**Urduñako espetxe frankistako biktima gehiago deshobiratzeko lanak egin zituen Aranzadi Zientzia Elkartek**

Urduñako hilerrian izan ziren berriro Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak. 2014an abiatutako indusketa lanei segida eman zioten deshobiratze kanpaina berri horrekin. Aurreikusi bezala, 30 pertsonen gorpuzkiak berreskuratu zituzten.



**Aiaraldeko Euskararen Eguna ospatu zuten Arrankudiaga-Zollon, bi eguneko egitarauarekin**

Aiaraldeko Euskararen Eguna Arrankudiaga-Zollon ospatu zuen eskualdeko Euskalgintza Kontseiluak. Azaroaren 29an Zollon abiatu zen festa eta abenduaren 1ean egun osoko egitaraua egon zen Arrankudiagan.

ABENDUA



**Gardeako industriagunea kolorez bete zuten Graffestean dozenaka gaztek**

Dozenaka grafitigile bertaratu ziren azaroaren 30ean Gardea auzoko industriagunera, Graffestaren lehen edizioan parte hartzeko prest. Santa Cruz izeneko geltokiaren parean dagoen horma handi bat zuten margotzeko.



**Lagun eta senideen artean amaitu zuten Aiara Dantza Taldearen 40. urteurrena**

Amurrioko Aiara Dantza Taldeak 40 urte bete zituen 2024an. Urte osoan zehar luzatu zituzten ospakizun ekin-tzak. Besteak beste, Aiarako jaietako suziria piztu zuten apirilean. Urteurrena ixteko, aldiz, emanaldi jendetsua eskaini zuten Amurrio Antzokian.



**120 plaka fotovoltaiko instalatu zituzten Etxaurren Ikastolan**

Bost asteko lanen ostean 120 plaka fotovoltaiko jarri zituzten Etxaurren Ikastolako teilatuan. Instalatutako azpiegiturek 50 Kv ekoizteko balioko dute eta udako igerilekuak ere elikatuko dituzte.

ABENDUA



**Okondoko kultura etxean zegoen amiantoa kendu zuen Udalak**

Okondoko Udalak kultura etxeko teilatuan zegoen fibrozementua kendu zuen urte amaieran. Lan horiek egikaritzeko zenbait dirulaguntza jaso zituen tokiko erakundeak, Eusko Jaurlaritzako EREIN 2024 programaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren partetik eta Arabako Foru Aldundiaren 2022-23 Foru Planaren bitartez.



### **Urduñan ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren jaiaren 32. edizioa, 2025ean**

Abenduan agerraldia egin zuten Euskal Eskola Publikoaren jaiak aurkezteko. 2025eko ekainaren 1ean egingo da jaiak eta, ohiko gune ibiltariaz gain, beste lau gune egongo dira: Foru plaza, museoaren plaza, Gernika plaza eta eskola. Jaiak Urduñako eskola publikoa euskal hezkuntza sistemaren erdigunean kokatzeko helburua duela azaldu zuten agerraldian.



### **Luiaondon grabatu zuten 'Herri Txiki Infernu Handi' saioa**

Une hunkigarri zein dibertigarriak uztartu zituzten 'Herri Txiki Infernu Handi'-ren Luiaondoko grabaketan. Abenduan herriko frontoian egin zuten saioaren azken grabaketa, dozenaka lagunengatik berotasunarekin.



### **5.600 sinadura baino gehiago bildu dituzte eskualdean "osasun sistema publiko eta duinaren alde"**

Osakidetzaren zerbitzu zentralera jo zuten abenduan SOS Aiaraldea plataformako kideek sinaduren entrega egiteko. Hilabeteko epea eman zioten erakundeari erantzun bat jasotzeko.



**Ikasturte amaiera korapilatsua izan zuten Artziniegako Arteko Gure Ama Ikastetxean ekainean. Hezkuntza zentzoko zuzendaritzak dimisioa aurkeztu zuen, irailetik aurrera lanaldi eta heren gutxiago izango zutelako kudeaketa lanetarako. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, ez zituen**

# Murrizketen aurrean, dimisioa



dimisioak onartu. Herritarrek elkarretaratzeak egin zituzten ikastetxearen aurrean zein Toñin Luengas frontoian, eta Udala handik gutxira bildu zen Hezkuntza Sailarekin. Hala ere, tokiko erakundearen arabera, ez zuten aurrerapausorik lortu.

# Eskola jantokiak eztabaidaren erdian

ESKOLA PUBLIKOEN JANTOKIEK POLEMIKAREN ERDIAN EGON DIRA AURTEN BI ARRAZOIREN ONDORIOZ; KALITATEA ETA KUDEAKETA EREDUA.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Eskola publikoen jantokiaren inguruan piztutako gatazkak soka luzea ekarri zuen eta 2024an eztabaida eten ordez, inkognita gehiago utzi ditu Eusko Jurlaritzak egindako apustuarekiko. Izan ere, EHIGE guraso elkarten federazioaren aburuz, Eusko Jurlaritzaren azken aginduak catering enpresak kontratatzea behartzen ditu ikastetxeak.

Dena den, txikitik handira jotzeko, aipatu beharra dago 2023ko amaieran hasi zela ezinezona Serunion catering enpresa errioxarrak irabazi zuelako eskualdeko hainbat ikastetxe publikoko esleipena. Hasteko, gurasoek zein langile askok ez zuten ulertzen zein zentzu zuen Errioxatik bazkariak ekartzea Aiaraldearaino, jasangarritasunaren kalterako eta inguruan enpresa gehiago egonik.

Gero heldu ziren gurasoen ke-

xak, umeek ez baitzuten batere gogoko konpainiak eskaintzen zituen errezetak. Eztabaida subjektiboa zen, irakasle batzuen aburuz, janariaren kalitatea ez zen okerragoa urreko enpresarekin alderatuta, baina bai arrotza ikasleentzat, barazki eta espezia gehiago baliatzen baitzuten.

Dena den, handik gutxira Serunion izena Euskal Herriko hedabide gehienek erroburtu eta egon zen, zizareak agertu baitziren bere menu batzuetan EAEko bost ikastetxetan -ez Aiaraldean, hori bai-. Izan ere, 17 hezkuntza zentrotan ematen zuen zerbitzua.

2023an berotutako giroak 2024an egin zuen eztanda eta Serunionek eta Eusko Jurlaritzak adostu zuten otsailaren 5etik aurrera beste enpresa batzuek hartuko zutelako errioxarren lana, baina ordezkoek ez zuten lortu

arazoa guztiz konpontzea. Izan ere, "ezohiko kausa naturalek" eraginda, zomorro txikiak agertu ziren azaloretan Orozkon.

Gertakari horiek guztiek pil-pilean jarri zuten hainbat familieren artean eskoletako jantokiaren errealitatea, azken finean, hezkuntza sistemaren zati garrantzitsua da zerbitzu hori, haur askoren egonaldia luzatzen baitu ikastetxeetan. Horrek erronka pedagogikoak suposatzen ditu eskolak ematen ez diren bitarteko tarte horietan, baina baita elikadurarekin, elikagaiekin eta otorduekin sortzen diren harremanetan.

## Urduñako erreferentzia

2023ko azken egunetan Gure Platera Gure Aukera plataformak agerraldia eskaini zuen Bilbon eta azpimarratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko 50 ikas-

tetxek adierazi dutela sukalde deszentralizatuia -hau da, catering zerbitzuen menpe ez dagoena- garatzea nahi dutela. EAEn jadanik abian daude horrelako egitasmoak, erreferente bilakatu direnak catering zerbitzuak alboratu dituztenentzat, eta horietako bat Urduñakoa da.

Hiriko ereduia kontsumo lokalean eta agroekologikoan oinarrituta dago eta ezin da bereiztu udalerrian egindako lehen sektorearen eta tokiko ekoizleen aldeko lan orokorretik. Hau da, ez da kasualitatea Urduñak hartzea bere gain jantoki eredu mota hori garatzeko ardura, EAEn egondako esperientzia aitzindari eta pilotu gisa. Halaber, ez da, inondik inora, kasualitatea Belardi Haragi Eraldaketa Zentroa ere Urduñan sortu izana. Berez, Urduñako Udal Sukaldeak ez du bakarrik elikatzen eskola, nagusien egoitza ere hornitzen du, tokikotasuna lehenestuta.

### Eredua izoztuta

Urduñak eta beste ikastetxe apur batzuek abiatutako ereduia ez zuten sortu egitasmo isolatuak izateko. Berez, hezkuntza zentro gehiagora zabaltzeko



asmoz bultzatu zituzten, baina Eusko Jaurlaritzak irailean zabalduetako aginduak ez du hori egin. Are gehiago, EHIGE guraso elkartearen federazioaren iritziz, catering zerbitzua indartu du.

Gauzak horrela, Gure Platera Gure Aukera plataformak -Urduñako kideek tarteko- abenduan jo zuen Eusko Legebiltzarrerera eta Hezkuntza Batzordean

alderdietako ordezkariekin bildu zen desblokeatu zezaten eskola jantokien afera, arestian azaldu bezala, 50 zentrok nahi dutela ereduia aldatzea eta sukaldearen kontrola hartzea. Bileran ez bazen konpromiso zehatzetan islatu ere, EAJK eta PSE-EEK adierazi zuten agindua aldatu daitekela, hortaz, Gure Platera Gure Aukera plataformak ekingo dio lan horri.



**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

*75 urte zurekin*



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

# Eskola garraioan gorabeherak berriro

AIARALDEA EGITURATZEN DUTEN HAINBAT GARRAIO ZERBITZU PUBLIKOK ARAZOAK IZAN DITUZTE AURTEN BERRIRO ERE, BAI ESKOLAN ZEIN HIRIBURUETARA ERAMATEN DITUZTEN KASUETAN.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**


2030 Agendaren helburuak al daketa klimatikoa arintzeko eta jasangarritasuna bermatzeko badiute isla garraioan. Izan ere, erakundeen jarduera gidatu behar duen agiri horren xede batzuk lotuta daude osasuna eta ongizatearekin, energia irisgarri eta kutsakorra ez denarekin, azpiegiturekin eta hiri eta komunitate jasangarriekin. Horiek guztiak eragiten dute, nolabait, garraio publikoan; zerbitzu publikoetako zenbait azpiegiturara jotzeko aukera ahalbidetzen dutelako (osasuna, hezkuntza...), komunitateak eta udalerriak harremanetan jartzeko balio duelako eta ibilgailu pribatu-

tuen erabilera murrizten duen heinean, kutsadura ere ekiditen duelako.

Horregatik guztiatik eta Aiaraldeko zenbait udalerrik biztanleria edota administrazio batzarrek oso sakabanatuta daudelako (Aiara kasu), ezinbestekoa dute hainbat herritarrentzat aukera hori eskura izatea eta behar horrek hauspotzen du gizartearen edo erakundearen erantzuna.

Hala gertatu zen, iaz bezala, irailaren hasieran ikasturte berriarekin. Eusko Jaurlaritzak arazoak izan zituen berriro eskola garraioako linea guztiak kontratazeko, zenbait enpresa ez baitau-

de pretezarritako prezioen truke lan egiteko. Hutsunea betetzeko, Hezkuntza Sailak taxiak kontratatu zituen eskolak hasi zirenean eta horrek kalteak ekarri zizkien Orozkoko Audio Institutuko ikasleei eta Amurrioko Mendiko Eskolakoiei. Izan ere, autobusa baliatu ordez, furgoneta zen bidaiak egiten zituen ibilgailua eta horregatik ikasle guztiak ezin zituen eraman aldi berean leku batetik bestera. Gainera, ikastetxeetara heltzen ziren lehenak -klaseak hasi baino askoz lehenago- ziren itzultzeko azkenak -tarte luzea itxaroreko behararekin-. Zenbait aste horrela igaro eta gero eta ikaste-







txeen zuzendaritzen eta senideen egitasmoei esker, taxi kopurua bikoiztu zuen Hezkuntza Sailak, ikasleek hainbat ordu ez galtzeko joan eta etortzeko bidaietan.

### **Hezkuntza Lege berria**

Hezkuntza Lege berriak kexa ugari sortu ditu hezkuntza komunitatean. Sare publikoko komunitateak salatu du ez dela lehentasuna lege berriarekin eta zenbait itunpeko ikastetxek ere aipatu dute -salaketa publikorik egin gabe, momentuz- euren matrrikulazio gaitasuna, nolabait, mugatu dutela. Eztabaidak, dena den, badauka beste ertz bat; eskola garraioa. Izan ere, soilik izaera publikoa duten ikastetxeek dau-

kate garraioa eskaintzeko derrigortasuna. Egoera horrek eztanda egin zuen Laudion udan. Herritar bat saiatu zen bere semea Latio-rrero Eskolan matrrikulatzen, baina lehen matrrikulan ikastetxe hori ez zuenez zehaztu -une horretan ez baitzen bizi Gardean-, Hezkuntza Sailak itunpeko beste zentro batera bideratu zuen. Aintzat hartuta Gardea herrigunetik urrun dagoela, horrek erabat baldintzatu du familiaren egunerokoa, kontziliazioaren kalterako.

### **Leioako EHUra autobusik ez**

Garraioaren gabeziak ere salatu dituzte Aiara, Amurrio eta Ludio-ko zenbait familiak. 2023/2024 ikasturtera arte, bazegoen au-

tobus zerbitzua eskualdea eta Leioako Euskal Herriko Unibertsitatea lotzeko. Hori bai, enpresa pribatu batek eskaintzen zuen eta 70 ikaslek erabiltzen zuten. Indarrean dagoen ikasturtean, ordea, zerbitzua erabiliko zuten ikasle kopurua nabarmen murriztu da eta ez dute aukerarik izan berriro abiatzeko. Aiara-ko Udalak, esaterako, deialdia zabaldu zuen ahalik eta ikasle gehien batzeko aldarrikapenera, baina ez ziren heldu enpresak behar zuen gutxiengo kopurura. Gauzak horrela, garraio publikoan joan behar direnak, gutxienez bi tren zerbitzu eta beste autobus bat hartu behar dute Leioara heltzeko. Bi ordu baino gehiagoko bidai, alegia.



## Altxa Burua Aiaraldea

Teknologiaren erabilera egokia bultzatu nahi duen guraso taldea

# Altxa burua, eta altxa osasuna!

Zergatik oparitu gure seme-alabei smartphone bat 12 urterekin? Zer dela eta DBHra igarotzean? Zer dela eta lehen jaunartzean (egiten duenari)? Zergatik ez, eskatzen diguten lehen aldian, une hori atzeratzea pentsatu ere egin gabe? Galdera horiek behin baino gehiagotan partekatu ditugu gurasoen artean parkean, eta erantzunik errepikatuen honako haua izan da: "Ondoko guztiek dutenean", nahiz eta guk ez dugun egin nahi. Horri presio soziala deitzen zaio.

Smartphoneak (telefono adimendunak, itzulpen literala) duela 15 bat urte iritsi ziren gure poltsikoetara. Denbora hori igaro ondoren, azterketa soberan egin dira egiaztatzeko erabiltzeak ez dakarrela inolako onurarik, eta bai, ordea, kalte asko, batez ere eratzen ari den adin gabekoen garunarentzat, ez baitira gai beren adinerako egokiak ez diren estimulu eta eduki amaitezin horiek kudeatzeko. Ezinezkoa da. Funtsean, sare sozialak eta aplikazio asko mendekotasuna sortzeko sortu direlako. Gehienak, gainera, doan. Gu garelako produktua. Zenbat eta denbora gehiago eman pantailaren aurrean, orduan eta gehiago aberasten dira teknologia enpresa horiek, gure datu gehiago eta gehiago izatearen kontura, gero algoritmoak interesatzen zaiguna bakarrik eskain diezagun, beste informazio eta iritzi batzuetatik isolatuz.

Ukaezina da iristen dela gure seme-alabek gero

eta denbora gehiago ematen duten etxetik kanpo une bat, eta gurasook lokalizatuta edukitzeko beharra dugu, elkarri deitu ahal izateko, gurekin ez dauden bitartean ezustekoren bat sortzen bada ere, baina horretarako beste aukera batzuk daude, hala nola telefono analogikoak edo SIM txartel bat eta kontaktu kopuru mugatu bat duten erlojuak.

Gure txikiek pantailaren bestaldean topa dezaketen arriskuen zerranda ez da makala: eduki sexual desegokia, apostuetarako sarbidea, lineako indarkeria, ziberbullyinga, ezezagunekiko interakzioa, grooming-a, jokabide autosuntsizaileekiko esposizioa, sextinga, gurasoen gainbegiratze falta, isolamendu soziala, autoestimu baxua, lo-nahasmenduak, errendimendu akademikoko inpaktua, deskonektatzeko zailtasuna etab

Eta, hala eta guztiz ere, UNICEFek egindako "Teknologiak nerabezaroan duen eragina" txostenaren ondorioen arabera, DBHn dauden nerabe ia guztiek ( % 94,8) Interneterako konexioa duen telefono mugikorra dute, eta gailu horretara 10,96 urterekin iristen da, %58,4k mugikorrarekin lo eginda, eta % 21,6k goizaldeko 12ak baino beranduago erabiliz, hainbat datu gehiago kexkagarraren artean.

Osasun publikoko bilakatu den arazo honen aurrean, duela urte batzuk Altxa Burua izeneko familia-mugimendua sortu zen Tolosan. Bertan,

guraso talde batek familiak, ikastetxeak eta era-gile politikoaren arteko itun sozial bat bilatzeko beharra ikusi zuen, denok batera gure seme-alabei Internetarako sarrera duten gailuak ematea atzeratzea ahal den beste (16 urte bete arte posiblea balitz), eskolak telefono mugikorrik gabeko arnagune bihurtzea eta helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea, familiako erabileran eredu izan eta kontzientzia islatzea helburu.

Gaur egun, etengabe hazten ari den taldeen sareak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen du,

probintzia bakoitzatik udalari edo ikastetxeetara antolatuta. Korrante hori Okondoraino ere iritsi zen otsailean, eta Aiaraldera udan. Bertan, Zarobe Institutuko iturri-zentroetako Guraso Elkarteetako kideek batuta, hainbat ekintza egin dituzte: prentsako agerraldiak, informazio-hitzaldiak, dokumentalen proiektzioa, Black Friday eta Gabonetako kanpainak... Edwar O. Wilson biologoak esandako "Gizateria modernoa emozio paleolitikoak, Erdi Aroko erakundeak eta jainkoen teknologia dela" esaldiari buelta emateko helburu.



**Etxeko txiki-  
enen  
ametsak  
gerturatz**

Udalekuak  
Barnetegiak  
Eskola Garraioa  
Txangoak  
Kirol Taldeak  
Aisialdia  
Kanpamentuak





Odol berria dago goi-mailako kirolarien artean. Belaunaldi berria indartsu eta gogotsu iritsi da, eta merezi duten tokia aldarrikatzen ari dira gazteak. Aiaraldearron artean ere badira puntako kirolariak. Horren adi-

# Letra larriz idatzitako izenen urtea



bide dira Arkaitz Eskuza eta Iker Larrazabal pilotariak. Irrati eta telebis-  
tan etengabe ari dira haien izen abizenak errepikatzen. Ez dira bakarrik,  
kirolarien uzta oparoa jaso dugu eskualdean.

# Belaunaldi berria

kirolari profesionalen olinpoan

KIROLARI GAZTEEN BELAUNALDIA AURREKOA ORDEZKATZEKO IRITSI DA. TARTEAN BADIRA AIARALDEKO IZEN PROPIOAK, GEROZ ETA GEHIAGO NONAHI ENTZUNGO DITUGUN IZENAK.

Testua eta argazkiak:

**Aimar Gutierrez Bidarte**

Begibistakoa da; iritsi da kirolari profesionalen belaunaldi berria. Gazteak euren lekua aldarrikatzen dabilta, eta zaharragoek hauei bide ematea besterik ez dute. Kirol eta maila guztietan da agerikoa: kadete mailan, gazte mailan eta baita maila gorenetan ere. Futbole, txirindularitzan, tenisean, pilotan... Geroz eta gehiago dira XXI. mendean jaiotako izarrak, eta Aiaraldean ere badago dir-dir egiten duenik ere.

## Larrazabal eta Eskuza

Honezkerok, inor gutxi harrituko da Iker Larrazabalen edota Arkaitz

Eskuzaren izenak irrati eta telebista esatarien ahotan entzuterakoan. Are gehiago, Larrazabalek Mariezkurrenarekin batera Binakako Txapelketan jokatzeko itxi du urtea, Iñaki Artolaren lesioa tarteko. Goi mailako partidak pilotuz doa Ola-bezarrekoa.

2002 eta 2024an jaiotako dira Larrazabal eta Eskuza, eta, apurka apurka, euren txokoa egiten doaz pilota profesionalen. Eskuzak 2023ko urtarrilean debutatu zuen Eibarko Astelena pilotalekuan, Aspe enpresarekin. Denbora gutxian lan txukuna egin du atzelari laudioarrak. Aipatzekoa aurten-

go Binakako Serie B Txapelketan egindako jarduna, aise iritzi baitzen finalurreko ligaxkara. Iker Larrazabal izan zuen aurrez aurre bertan, profesional mailan bi aiaraldearekin elkarren aurka jokatzeko zuten lehen partidaren. Larrazabal-Eskiroz bikotea gailendu zen norgehiagokan hartan, 22-11 Eskuza eta Egiguren V.aren kaltean. Larrazabalen eskarmentuak jarri zuen alde partidaren nonbait. 2020tik dabil aiararra profesional mailan Baiko enpresarekin jokatzeko. Lau final jokatu ditu eta bi txapela jantzea lortu du; azkenengoa aurten bertan. Biek ala biek ibilbide luzea





Talde Laranjarekin itzuli handietan tokia egitea izango du datorren denboraldiko helburu Ander Ganzabalek

dute aurretik oraindik, eta behin baino gehiagotan aritu beharko dira elkarren aurka kantuan.

### **Txirrindulari gazteak loria bila**

Txirrindularitza profesionalak ere baditu aiaraldea gazteak puntako kirolarien artean. Horietako bat da Ander Ganzabal. Orozkorak denboraldi bikaina egin du Euskadi Fundazioko 23 urte azpiko taldean, eta egindako lan finaren fruituak jasotzen dabil orain. Izan ere, bi urterako sinatu berri du kontratua Euskaltel Taldean, eta munduko onenekin neurtzeko aukera izan du dagoeneko. Triatlloan lehiatuz ekin zion kirol ibilbideari Ganzabalek, eta txirrindularitzara

jauzia “berandu” egin bazuen ere, lortu du lekua egitea tropel profesionalean. “Zorionekoa” dela aitortu zion Aiaraldea Komunikabideari, baina maila oso altua erakutsi du azken urteetan, egindako sakrifizioaren erakusgarri. World Tourrean arituko da 2025ean, eta hainbatetan izango ditu aldamean Pogačar eta Remco bezalako izen handiak. Baliteke ere, aurki, Hodei Muñoz txirrindulari aiararrekin topo egitea tropel profesionalean. Ganzabalek bezala, Muñozek denboraldi bikaina egin du, eta 2025etik aurrera, bi urterako konpromisoa hartu du Devo Teamekin, Soudal Quick-Step taldeko filial amateurrarekin.

***Hodei Muñoz aiararrak bi urteko konpromisoa hartu du Soudal Quick-Step taldeko filial amateurrarekin***

# Mugarri ugari eta anitz

eskualdeko kirolarientzat



**Mirari Gotxi**

Txirindulari aiaraldearrak emaitza bikainak eskuratu ditu aurten, nahiz eta oso gaztea izan. Urte hasiera indartsua izan zuen eta Abadiñon egindako proban Euskadiko Ziklokros Txapelketa irabazi zuen kadete kategorian. Ez zen bat-bateko ezustea izan, aurretik Bizkaiko Kopan, Arabako Txapelketan eta Euskal Federazioaren Challengean gailendu baitzen. Uztailean errepidean ere trebea zela erakutsi zuen, Euskadiko Selektzioarekin Avilesera jo baitzuen eta emakumezkoen kadete erlojupekoan lehenengoa izan zen taldea.



**Hodei Muñoz**

2024an ere Hodei Muñoz luiaondoarrak denboraldi aparta egin du eta errepidean nagusitasuna erakutsi du junior kategorian, Espainiako Cofidis Kopa irabazita. Ziklo-krosean ere nagusi izan da, Espainiako txapeldun titulua eskuratu baitzuen aurtengo urtarrilean Amurrion eta Espainiako Kopa geroago. Egindakoak balio izan dio Devo Team-ekin, Soudal Quick-Step taldeko filial amateurrekin, kontratua sinatzeko. Txirindulari handien taldea da Soudal Quick-Step. Izan ere, bertako txirindulariak dira, besteak beste, Remco Evenepoel eta Mikel Landa.



**Naia Landaluze**

Orozkoarrak emakumeen futbol profesionalean indartzea izan du eskura eta hala egin du. 2023/2024 denboraldian Ligako 28 partida eta Kopako beste bost jokatu ditu. Guztira, 2.000 minutu baino gehiago lehiatu ditu eta, hori gutxi balitz, bi gol egin ditu. Bere hobekuntza saritu du Athletic Clubak eta 2026ko ekainera arte luzatu dio kontratua. Gogoratu beharra dago 2020an uko egin ziola Estatu Batuetan zuen bekari eta talde bizkaitarrera itzuli zela. 2021ean egin zuen debuta lehen taldearekin eta, geroztik, atzelariak ez dio aurrera egiteari utzi.



HAINBAT ADIN, PROFIL ETA KATEGORIETAKO KIROLARI UGARIK EMAN DUTE ZERESANA AURTEN AIARALDEAN. BATZUK LORPEN ESANGURATSUAK LORTU DITUZTE. BESTE BATZUK, ALDIZ, AGUR ESAN DIOTE URTE LUZETAKO KIROL IBILBIDEARI.



### **Itsasne Egia**

Xakeak duen ikusgarritasun eza apurtu du aurten Itsasne Egia laudioarrak. Izan ere, Araian jokaturako Euskadiko Txapelketan parte hartu zuen eta bigarren postua lortuta itzuli zen etxera.

Gainera, txapelduna ez zen euskalduna izan, baizik eta aurten Euskal Herrian ikasten ari den mexikarra. Itsasnerentzat emaitza erabateko ezustea izan zen eta ez dio inolako meriturik kendu bere aurkari mexikarrari. Aurreko urtean bosgarren postua bereganatu ondoren, ahalik eta hoberen egitea baino ez zen bere helburua.



### **Itxaso Escondrillas**

Proba gogorra izan zuen Itxaso Escondrillasek aurten eta ondo baino hobeto gainditu zuen. Hain zuzen, laudioarrak atletismoaren esparruan bere etxea den Donostiara jo zuen Espainiako Master Txapelketa. Mina hartuta joan zen eta horregatik erabaki zuen azken uanean 1.500 metroko lasterketan parte hartu ordez, 3.000 metrokoan arituko zela. Sasoian ez zegoenez, eta indar guztia ezin zuenez erabili, lasterketa luzeagoa hautatu zuen eta apustua ondo atera zitzaion, brontzeko domina jantzita igo baitzen podiumera.



### **Arrietta Ruiz Goiri**

Orozkoko amazonak hezte klasikoko diziplinari eutsi dio 2024an ere eta Segovian lehiaturako Espainiako Pony Txapelketan aitortza bikotza izan du; bat norbanako gisa eta beste bat Euskadiko Federazioak lortutako emaitzengatik. Guztira, hiru proba bete behar izan zituen. Lehenengoan bosgarren postuan sailkatu zen %65,19ko markarekin. Bigarrenean, ordea, bigarren postura heldu zen %68,19ko emaitza lortuta. Azken proban %68,108ko markak ahalbidetu zion hirugarren izatea.



## Koldo Iriarte

1988an abiatutako kirol ibilbideari agur esan zion Koldo Iriarte amurriarrak aurtan. Maila anitzetan eta hamaika pilotarirekin jokatu ondoren eta txapela ugari jantzita, lagun eta senideen artean bukatu zuen bere pilotako bizitza. Izan ere, Amurrioko pilotalekua bete zuten ehunka herritarrek. Mikel Goñi aurkari zuela jokatu zuen bere azken partida Iriartek eta ikuskizuna eskaini zuten. Dena den, kirolaren tokiko ikurrak lekukoa eman du eta Iker Larrazabalen badauka gaiditu duen ikaslea.



## Iñaki Carro


Iaz Espainiako Ziklokros Txapelketa irabazi ondoren Master 35-39 kategorian, Iñaki Carro audioarrak bazekien Europako txapela jokoan egongo zela aurtan Galizian. Printzipioz, txirindulariak ez zion ez helburu ezta presiorik ere jarri bere buruari; baina, datak hurbildu ahala, konturatu zen sasoiaren zegoela Euskadiko Txapelketarako prestaketaren ondorioz.

Gauzak horrela, eta jakinda onenen artean egongo zela, ekin zion kontzentrazio osoz lehiatzeari eta horri esker irabazi zuen lasterketa.



## Aingeru Olabarrieta

Athletic Clubeko aurrelari luiaondoarrak elitean debutatzeko aukera izan zuen maiztzean, jarraitzaile zurigorriek nekez ahaztuko duten denboraldi batean -Kopa irabazi baitzuten-. Bere lehen minutuak San Mamesen bat egin zuten Iker Muniain eta Raul Garcíaren azkenengoekin eta argazki batean jaso zuten belaunaldi aldaketa. Esperientzia hori positibo horren ondoren, Ernesto Valverde entrenatzaileak udan deitu zuen aurrendenboraldia egiteko lehen taldearekin. Amurrioko Etorikizuna klubean abiatu zuen bere ibilbidea aiararrak.



## Uxue Alonso

Laudioarrak Zuazo taldearekin debut arrakastatsua egin zuen 2023/2024 denboraldian eskubaloiko bigarren mailan eta bost gol egin zituen. Barakaldoko kluba lehen mailara igo ondoren, dena den, erabaki du bere bidea abiatzea Castron eta bigarren mailan hobetzen jarraitzea. Helburu anitz ezarri dizkio bere buruari, besteak beste, fisikoki pisua hartzea, nahiz eta bere postuan indarra ez zen horren garrantzitsua. Audio Esku-baloi Kluban militatu ondoren, bost denboraldi egin ditu Zuazon eta orain hobetzen jarraitzea da bere asmoa, lehen mailarako prest egoteko bidean.



## Andere Canales eta Olatz Zulaika

Bizkaia Cup Gomazko Paleta Txapelketa irabazi zuten Andere Canales eta Olatz Zulaika Olgetan klubeko jokalariek. 30-23 gailendu ziren finalean eta aurkariak talde bereko lagunak izan ziren, Nahia Ugarriza eta Naroa Saez, alegia. Canales eta Ugarriza orozkoarrek, Zulaika gasteiztarrek eta Saez aretarrek ibilbide luzea egin zuten finalera heldu arte. Izan ere, lehen mailan jokatu zuten, eta parte hartu zuten hamalau bikoteak bi taldetan banatu zituzten antolatzaileek. Olgetan Kluba oso pozik dago lortutako emaitzekin.



## Tasio Martin

Urduñarrak kapitulu bat itxi eta berri bat zabaldu du bere kirol ibilbidean. Izan ere, aurtengoa bukatu du Espainiako Alpinismo Taldean egindako hiru iurteko ibilbidea. Ugariak izan dira azken hiru urteetan Martinek garatutako proiektu eta espedizioak. Horien artean aurkitzen da urte hasieran Patagoniako Cerro Torre mendi ezagunean egindako eskalada ikusgarria. Udan Pakistaneko K7 mendian istripu arriskutsua pairatu zuen, baina horrek ez du urduñarra gelditu. AEBn pasa ditu azken hilabeteak, bertako horma esagunak eskalatzen.



## Javier Lopez Perez

Amurriarra kirolaren protagonista bitxia izan da, ez baitu inolako lehiaketan parte hartu. Hori bai, 2024an ohore handiko eginkizuna eman diote: Joko Olinpikoen lastargia eramatea 200 metroan. Hain zuzen, Javier Lopez Perez Bridgestone enpresako langilea da (zerbitzu medikuen arduraduna, alegia) eta konpainiak bazituen 20 tar- te su olinpikoa hartzeko. Lopez Perezen kasuan, multinazionalak Basaurin dituen langileen artean hautatu zuten behargin- nek eurek eta uztailaren 11n bete zuten amets hori Auxerren.

# KOPAS

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda, Urkijo, 88 -2º  
48013 Bilbao  
kopas@kopas.es  
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8  
01479 Murga - Aiara  
fabrica@kopas.es  
Tfno. 945.39.94.05

[www.kopas.es](http://www.kopas.es)

Trofeoak, **Kopak**, Txapelak, **Plakak**, Giltzatakoak, **Pin-ak**, Kamisetak, **Zapiak**, Amantalak, **Sukalkit**, Laser grabaketak, **Metakrilatoa**, Promozio artikulua, **Sari instituzionala**, Merchandising, **Grabatuak**, Taillaketak, **Bordatuak**, Estanpazioak, **3D inprimaketak ...**



### Thaylor Lubanzadio

Futbolaria eta Espainiako Inklusio Ministerioko  
enbaxadorea arrazismoaren kontra

# Arrazakeriak kirolean dituen ondorioak suntsitzaileak dira

Arrazakeria gure artean dago oraindik. Jokalekuan, futbolean eta futboletik kanpo ikus dezakegu hori, iraintzea eta min egitea besterik bilatzen ez duten kolektiboekin, horrek dakarren guztiarekin.

Arrazakeriak kirolean dituen ondorioak suntsitzaileak dira, bai maila profesionalean, bai pertsonalean. Errendimenduari eragiten dio eta, batez ere, eragin psikologikoa du jokalariengan. Umiliazio publikoak, babesik ezak eta emozio negatibo multzo batek antsietatea, estresa eta depresioa eragiten dituzte. Jokalari arrazializatuak aurre egin behar diote errealitate horri, eta ez da batere erraza.

Heldu ez diren guztiak izan liteke liburu baten izenburua, harrobi garaian kirola utzi zuten kirolari gazteen istorioak biltzen dituen, ingurune toxikoa eta osasun mentalerako arriskutsua zelako. Historia bakoitza galera bat da, ez bakarrik kirolarentzat, baita gizartearentzat ere. Horrek komunitate arrazializatuari ere eragiten die, ez baitute kirolean inklusio-gune bat ikusten.

Zer pentsatuko dute futbolaria izatea amesten duten haur horiek Vinícius Jr. bezalako pertsona errespetatua, arrakastatsua eta ospetsua eraso arrazisten biktima dela ikustean? Ezinbestean galdetu behar diote elkarri: "Berari gertatzen bazaio, zergatik ez niri? Norbaitek entzungo al lidake niri gertatuko balitzait?"

2024an, bost eraso arrazista baino gehiago iku-

si ditugu hainbat estadioetan. Horieta batzuetan neurriak hartu dira, eta zigor penalak ere izan dira (bazen garaia), baina hori ez da araua. Hain agerikoak ez diren kategorietan, eraso arrazistak isiltasunera baztertzen dira, zigorgabetasun-ingurunea betikotuz.

Gertakari horiek ez dira "gutxi batzuen" kontua, kirolean adierazpen-gune bat aurkitzen duten erreiritzi errotuen isla baizik. Hori guztia, nire ustez, gure gizartearen ispilu da. Jokabide horiek agerian uzten dute gure kulturaren oraindik ere arraza-beizkeria dagoela.

Kiroleko arrazakeria ez da estadioetara mugatzen; aitzitik, kirol-sistemaren egituraren bertan errotuta dago. Hezkuntza-programarik ezak, klubaren barruan lidergo-roletan ordezkariarik ez izateak eta beheagoko kategoriei behar adinako arretarik ez emateak betikotu egiten dute arazo hori.

Kirolak bizitzak eraldatzeko ahalmena du. Horregatik, eraldaketa hori errealitate positiboa izan dadin lan egin behar dugu, guztiok arrazakeriaren aurkako borrokan rol aktiboa hartuta. Kirola errespetuaren, aniztasunaren eta batasunaren benetako espazio bihurtu behar da.

Pixkanaka aurrera goaz, baina oraindik bide luzea dugu egiteko. Hau ez da soilik biktimen edo erakundearen arazoa; guztion arazoa da, eta konponbidea lortuko da bakarrik jarduten badugu.

» Babestu **BERRIA**

Zure babes ekonomikoa ezinbestekoa zaigu euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko. 2025erako 3.000+ izan gaitzen, **egin zure ekarpena:**

Urteko ekarpena

**100€**

(0,27 euro egunean)

Gazteen\* ekarpena


**30€**

(\*) 30 urtetik beherakoak

Ekarpen berezia

**120€**

aukeratu zenbatekoa  
(urtean 120 € edo gehiago)



**berria** **aldi hau**  
kontatzeko



**Aiaraldea ez da Hollywood, ezta beharrik ere. Zinemagintzak begiz jota dauka gure eskualdea. Ohitu egin gara gure kaleetan errodaje plato erraldoiekin elkarbizitzera. Kamerak, aktoreak, argiak... gure egunero-**

# *Aiaraldea ez da Hollywood*



ko paisiaren parte bilakatu dira. Pelikula ugari grabatu dira azken urteetan Aiaraldean, eskualdeko bazter eta bizilagunak munduko pantaila handietara eraman dituztenak.

# Doinu eta erritmo anitz

## Aiaraldeko musika panoraman



### Gau hartan

**Taldea:** Zinkha  
**Zigilua:** Autoekoizpena

Durangoko azokan aurkeztu zuten Zinkha taldearen lehen lan luzea. Bederatzi kantuk osatzen dute diskoa. Eten Espazio Sonoro estudioan grabatu dituzte kantu guztiak urrian, Urtzi Izaren gidaritzapean. **Gau hartan** izango da diskoaren izena. Izan ere, “gau batean gertatu daitekeen guztia” kontatuko dute, “bizipenak mahai gainean” jarriz. Bi urte igaro dira Zinkhako kideak entsegu lokalera lehen aldiz sartu zirenetik. “Orduak eman ditugu lokalean, soinu eta erritmo artean gure bidea bilatuz eta horretan jarraitzen dugu”, azaldu dute.



### Bidean Zuekin

**Taldea:** Etxebarria aita-semeak  
**Zigilua:** Autoekoizpena

Koldo eta Unai Etxebarria aita-semeek osatzen dute bikotea eta urteak daramatzate plazaz plaza trikitia eta panderoa jotzen. Bidean zuekin beraien hirugarren lana da. 10 abestiz osatutako diskoa da eta, adierazi dutenez, “zenbait sorpresa” ditu. Bertsioak eta abesti propioak entzun ahal dira, esaterako **Life is life**, **Otra noche**, **Corazón de neón** eta **El rey** abestien bertsioak. Trikitia eta panderoa dira instrumentu nagusiak. Disko honetan “euskal estiloari” eutsi diote. Hala ere, rantxerak, rock doinuak eta baladak ere entzun ahal dira, besteak beste.



### La muse oubliée II

**Taldea:** Antonio Oyarzabal  
**Zigilua:** IBS Classical

Antonio Oyarzabal audioarrraren bosgarren lana da **La muse oubliée II**. Lan honek aurrekoaren ildo bera jarraitzen du eta 18 emakume konpositoreren piezak berreskuratu ditu. Kasu batzuetan historian lehenengo aldiz grabatu ditu. Nadia Boulanger, Cecilia Chaminade, Florence Price, Ljubica Máric... garai eta toki ezberdinetakoak izanda ere, ezaugarri bera dute denek: emakumezkoak izateagatik ez zutela aitortzarik izan. Oyarzabalek azaldu du motibazio topatzen duela emakume hauen bizitzetan eta lanean ikertzen, musikaren historiografiak baztertu baititu.



ANIZTASUNA DA NAGUSI AIARALDEKO MUSIKA ESZENAN. HORI ARGI IKUS DAITEKE ESKUALDEKO MUSIKARIEK AURTEN PLAZARATUTAKO LANAI ERREPARATUZ GERO: TRIKITI ETA PANDEROAREN DOINU TRADIZIONALETATIK HASI, ETA MUSIKA ELEKTRONIKO ABANGOARDISTENERAINO.



### Orbitaz kanpokoak II

**Taldea:** Iñigo Ibarra  
**Zigilua:** Autoekoizpena

Iñigo Ibarra musika audioar-  
rarak (Al Infierno en Goitibera  
taldean ibilitakoa, besteak bes-  
te) disko berria argitaratu du  
aurten, Internet bidez. Zehazki,  
bere aurreko lanaren bigarren  
parte da eta **Orbitaz kanpo-  
koak II** izendatu du. Aurreko  
diskoetan bezala, berak bakarrik  
jo ditu musika tresna guztiak,  
bateriak salbu, azken hauek  
programatu baititu. Generoari  
dagokionez, ez du rock musika  
baztertu, baina bestelako soi-  
nuak jorratu ditu: "rock gogor,  
psikodeliko, stoner, sludge,  
doom, instrumental, post rock  
edota space rock estiloak". Abes-  
ti gehienak 2020an sortu zituen  
eta bi 2022an.



### Burbuilak

**Taldea:** Burbuilak  
**Zigilua:** Autoekoizpena

Izaskun del Cerrok eta Irati  
eta Izar Mendiguren Cosgaya  
ahizpek osatutako taldeak You-  
tube plataforman 12 abestiko  
lan luzea plazaratu zuten otsai-  
lean. Amurriko Antzokian, lagun  
arte, aurkeztu zuten lana,  
kontzertu berezi batean. Dis-  
koan hiru bertsiio propio plaza-  
ratu ditu: **Morez**, **Zein polita** eta  
**Ate bioleta**. **Morez** kanta Uluka  
taldearena da eta Izar eta Irati  
Mendiguren Cosgayak parte  
hartu zuten proiektu horretan.  
**Zein Polita** eta **Ate bioleta** kan-  
ten kasuak, ordea, bestelakoak  
izan dira. Rosario Flores eta  
Rozalen abeslarien lanak dira,  
hirukoteak euskaratutakoak.




### Autosuntsipena

**Taldea:** Izatefaltsua  
**Zigilua:** Autoekoizpena

Aurten estudioara sartu eta  
plataforma digitaletan entzun-  
gai dago Izatefaltsuaren azken  
lana, **Autosuntsipena** izene-  
koa. Amurriko metal talde  
beteranoak lau kanta bildu ditu  
EPan, denak euskarazko letre-  
kin.

Grabaketa berri honekin, lau  
dira Izatefaltsuako kideek az-  
ken 16 urtetan plazaratutako la-  
nak. 2008an kaleratu zuten **Adi!**  
diskoa, 2015an iritsi zen **Za-  
ratak agindu dezan!** lana eta  
2020an plazaratu zuten orain  
arteko azken albuma, **Amorru  
bizia** izenekoa. Abesti guztiak  
dituzte entzungai Bandcamp  
plataforman.




## Ernetzen

**Taldea:** Belgorri

**Zigilua:** Autoekoizpena

**Lehen Taupadak** EPari segida eman diote amurriotar gazteek, lau abestiz berriz osatutako lanean. Lehen taupaden ostean "erentzeko" unea iritsi zaio Belgorri. Conjuntivitis Estudioan grabatu zituzten kantak uda sasoiari, Javi Palaciosen laguntza eta gidaritzapean.



## Goxoegia

**Taldea:** Igor Arzuaga

**Zigilua:** Gaztelupeko Hotsak

Urte hasierarekin batera **Goxoegia** diskoa plazaratu zuen Igor Arzuagak urte hasieran, Gaztelupeko Hotsak disketxearekin. Bere disko "osatuena" dela dio musikari aretarrak. Pop, jazz, folk eta elektronika doinuak batu ditu lanean. Arzuagarenak dira hitzak eta instrumentu guztiak. Gainera, grabazioak eta nahasketak ere arduratu da. Baina kolaborazioak eta laguntza ere jaso du lanean. Laura Pelayoren flauta **Abuztuak zortzi** kantan bidelagun izan du, eta Larrepetit taldeko kideak zutabe izan dira lan osoan zehar.



## Barneko beldurra

**Taldea:** Nakkiga

**Zigilua:** Spitako Productions

Nakkiga Amurrioko black metal taldeak duela hamar bat egun kaleratu zuen bere bosgarren diskoa: **Barneko beldurra**. Euskal muturreko metal paganoa jorratzen duen bandak Altsasun aurkeztu zuen lana urtarrileko azken asteburuan eta Galizian, Portugalen, Bartzelonan edota Kantabrian jo dute egindako duten biran.

Berez, CD euskarrarian atera da lana, 500 ale ekoiztu baititu Spitako Productions disketxeak; eta orain zigilu gehiagoren babesa bilatzen ari dira biniloan ere plazaratzeko euren musika.



## This is hardcore, not Spain

**Taldea:** Erruki Jauna eta Zutik!

**Zigilua:** Autoekoizpena

Aiaraldeko bi taldek eta Kataluniako beste bik abuztuan plazaratu zuten **This is hardcore, not Spain** binilo diskoa. Adiskidetasunak sustatutako proiektua da, Zutik! eta Erruki Jauna bandak eskualdekoak baitira. Crida Salvatge eta Animal Farm kataluniarrak ere lagunak dira, oholta partekatuta baitute aiaraldearekin behin baino gehiagotan. Guztira, Erruki Jaunak bost abesti grabatu ditu; **Infernura goaz**, **Infringe la ley**, **El portal de Belén**, **Nagi** eta **Odissea Catalana**. Zutik!-ek, aldiz, hiru kanta sortu ditu: **Ez**, **Noraezean** eta **Ez eraman**.



## Deriba

Alex Hijarrubia, Jon Ander Millán, Maren Goti eta Alex Yarza laukoteak osatzen du Deriba taldea. Aurtengo udan eskualdeko hainbat oholtza astindu dituzte, eta irailean bandaren lehenengo EPa grabatzeari ekin zioten Tio Pete estudioan.



## Laztana laztana

Udan jendea dantzan jartzeko asmoz kaleratu zuten Lazatana Lazatana taldeak **Arranopola** singlea. Johann Sebastian Bachen **Badinerie** konposiziotik atera zuten samplea baliatu zuten, musika elektronikoa eta klasikoa nahasteko.



## Eztuk

Musika elektronikoa, euskara eta gaztelarazko errimak eta mezu sozial baina positiboak. Osagai horiek baliatu dituzte Alberto Villar **Berbit** ekoizle eta Jurgi Ibarretxe musikariak EZtuk proiektua ezau-garritzeko. **Despierta** izeneko kantua-rekin aurkeztu zuten taldea.



## Cuatro Bancos

Abesti eta bideoklip berria sareratu zituen Cuatro Bancos talde amurriorarrak maiatzean. **Dime quién eres** izena jarri diote sorkuntza pieza berriari. Komunikazio komunikazio agentziako Naia Vallejok ekoiztu zuen bideoklipa.



## Ez Dok Bape

Laudio, Arrankudiaga-Zollo eta Ugaoko lau lagunen artean osatu dute aurtien Ez Dok Bape taldea. Ugaon eskaini zuten lehen emanaldia apirilean, eta Faktoriako oholtzara igo ziren ekainaren 7an.




## Luis Vil

20 urte igaro dira aurtien Luis Vilek bere bakarkako lehen lana plazaratu zuenetik. Ibilbide hori ospatzeko hainbat kontzertu berezi eskaini ditu, formatu akustikoan, sean Valleren eta Jona semearen konpainia.

# Literatura genero anitz

## 2024an Aiaraldean



### Hau ez da gerra bat

**Idazlea:** Mikel Ayllon  
**Argitaletxea:** Susa

Susa argitaletxeak eta EHAZE elkarteak antzerki-testuak argitaratzeko elkarrekin sortutako Ganbila bildumaren barruan plazaratu udan zuen Mikel Ayllon idazle audioarrak **Hau ez da gerra bat** liburua. Hain zuzen ere, Mikel Ayllonek Piszifaktoria Ideien Laborategiarentzat idatzitako hiru lanekin osatu da: **Bunker**, **Hau ez da gerra bat** eta **Hau gerra bat da**. Igor Arzuaga da azalaren egilea eta Irati Agirreaz-kuenagak idatzi du hitzaurrea.

### Txani Rodríguez


La seca



### La Seca

**Idazlea:** Txani Rodríguez  
**Argitaletxea:** Seix Barral

**Los últimos románticos** nobelarekin Euskadi Literatura Saria irabazi eta gero, urte berriarekin batera argitaratuko zuen Txani Rodríguezek **La Seca** liburu berria. Idazle audioarrak Espainiako estatuaren hegoaldean girotu du bere eleberrri berria, naturgune babestu batean dagoen eta kortxoak ekoizten duen herri batean. Istorio horren bidez, etorkizuna ikusteko bi modu irudikatuko ditu Rodríguezek.



### Los ojos que nunca duermen

**Idazlea:** Mari Carmen Morillo  
**Argitaletxea:** Babidi-bú

Mari Carmen Morillo Martin amurriar idazle eta irakaslea da. Bere bigarren liburua argitaratu du aurten, **Los ojos que nunca duermen** izenekoa.

Liburuak Migueloren, 1960. hamarkadako haur umezurtz baten istorioa kontatzen du. Palentziako katedralean kokatuta, Miguelo hainbat egoera korapilotsutan harrapatuta ikusiko du bere burua. Horretarako katedralako gargolen laguntza jasoko du egoerari aurre egiteko.



## Euskal Herria Underground

**Idazlea:** Mikel Urkixo

**Argitaletxea:** Beta III Milenio

14 protagonisten testigaztatik abiatuta (tartean bi audioar). Musika elektronikoa "bazterreko eta autentikoenak" Euskal Herrian egindako bidea aztertzen du.



## Delator

**Idazlea:** Joritz Flores

**Argitaletxea:** Autoekoizpena

Joritz Floresen lehen eleberria. Saga literario luzeago baten lehen liburua. Joko baten barruan harrapatutako protagonistek ihes egitea lortu beharko dute, bizitza arriksuan jarritz.



## Haizene eta oroitzapenen indarra

**Idazlea:** Maitane Perez

**Argitaletxea:** Babidi-bú

Dluaren gaia haurrekin lantzeko idatzitako ipuina da Maitane Perez amurriarrak argitaratutakoa. Oroitzapenen balioa sustatzea, du helburu.



## Girgileria

**Idazlea:** Juana Dolores

**Itzultzailea:** Mainer Ramirez

**Argitaletxea:** Katakarak

Juana Dolores idazle katalanaren *Bijuteria* lehen olerki liburua euskaratzeko erronka izan du Mainer Ramirez audioarrak aruten.



## Las mujeres eran luna

**Idazlea:** Idoia Sojo

**Argitaletxea:** Circulo Rojo

Okondoarraren lehen eleberria da. Ameriketatik Muskizera bizitzera doan haur baten istorioa kontatzen du, eta kolonizazioaren krudeltasuna "duena ardatz.



## Aiaraldeko Mari

**Idazlea:** Irati Mendiguren,

Julene Onaindia

**Ilustratzailea:** Eider Garcia

Kokoriko Hezkuntza Faktoriak Mari Domingiren figura berrezauz garrizteko asmoz sortutako lana da. Kapela galdu duen Mari Domingiren abentura kontatzen du.

# Oholtza zein pantailetan

Aiaraldea presente



## Los amantes rumiantes

Antzerki taldea osatu dute Irune Ibarretxe eta Ainhoa Sabio audioarrek, eta haien lehenengo pieza sortu ere bai: Los amantes rumiantes. "Pertsonen arteko harremanen behaketatik ateratako terapia da" obra aktoreen hitzetan, umore bidez taularatu. "Maitasunarekiko mezu positiboa bidali nahi genuen: zer da maitasuna? Norbere buruarekiko maitasuna baldintza izan behar da, gainontzekoak sanoki maitatu ahal izateko", azaldu zioten Aiaraldea Komunikabidea Amurrio Antzokian aurkeztu zuten pieza ekainean.



## Gordura

Jare Prietoren lana da Gordura. Duela urte bete sortu zuen pieza eta Bilboko Ay Dragmela taldean aurkeztu zuen lehenengo aldiz. Eva Perez Ponselkin elkarlanean pieza horren euskaratze performatiboa egin du aurten artista audioarrak, Aiataldea Ekintzen Faktorian garatutako egonaldia artistikoan. Ponselk, itzultzaile eta laguntzaile tekniko lanak bideratu ditu. Lodifobia du ardatz obrak. Jasaten zuen biolentzia azalera eta jendea erakusteko "beharretik" sortu zuen obra Jare Prietok.



## Takoidun zapata gorria


Oholtzetara itzuli da Takoidun zapata gorria antzezlan. Duela zazpi urte sortu zuten obra Piszifaktoria ideien laborategiko kideek, Mikel Ayllon idazlearen, Igor Arzuaga musikariaren, Haizea Paris dantzariaren eta Jabi de la Ydalga eta Pablo Ibarluzea aktoreen indarrak batuta. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian estreinatu zuten lana, eta beste hainbat tokitan ere plazaratu zuten. Gasteizko Jaialdiak hainbat pieza xiki berreskuratze asmoa izan du aurtengo edizioan, eta horien artean egonda Piszifaktoriaren lana.

ZINEMAREN ZEIN ANTZERKIAREN ESPARRUAN ERE URTE  
OPAROA IZAN DA 2024A AIARALDEKO SORTZAILEENTZAT.  
ASKO IZAN DIRA ESKUALDEAN EKOIZTUTAKO ETA KRITKAK  
GORAIPATUTAKO FILMAK.



## Paktu bat

Maria Iturbek eta Maialen Rami-rezek Aiaraleda Ekintzen Faktoriako egonaldi artistikoan eman zioten forma haien antzerki pieza berriari: *Paktu bat*. Horrela laborubildu zituzten lanaren nondik norakoak "Zahartzaroak zaugarri bihurtzen du ama bat, berriz ere neskato gazte bat balitz bezala. Bere burua zaindu ezin duenean nor eskainiko dio zaintza eta maitasuna? Odolak ama eta alaba uste baino indartsuago lotzen ditu, baina zer dio batak besteari? Ama-alaba harremanak aztertuz, etxeko berotasunak ezkutatzan dituen zauritaz eta biolentzia "leunaz" oharzen gara".



## Azken erromantikoak

Azaroaren 15ean estreinatu zuten zinema aretoetan David Perez Sañudo zinemagilearen *Azken Erromantikoak* filma, Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* nobelan oinarritutako lana. Miren Gaztañaga aktoreak gorpuztu du Irune protagonistarne papera. Aurretik, Donostiako Zinemaldiko New Directors kategoriaren barruan estreinatu zuten pelikula. Hainbat kokapenetan grabatu dute Perez Sañudoren pelikula, hala nola Elgoibarren, Gernikan, Lisboa, Rondon... Otsailaren Laudion izan ziren, baina orduan grabatutakoak ez dira azken emaitzan islatu.



## Historias de Halloween

Sitgeseko jaialditik igaro ostean, urriaren 31n estreinatu zuten Kiko Pradaren lehen filma luzea: *Historias de Halloween*. Bere gurasoekin urbanizazio baten bizi den haur baten istorioa kontatzen du filmak. Umea 'ziria edo saria' egitera aterako da Arimen Gaueko arratsaldean, eta Gasteizen hirigunera iritsiko da. Martxoan grabatu zuten filma Arabako hainbat txokotan, horien artean Kexaako monumentu historikoan. Ibilbide oparoko aktoreak jarri dira kamararen aurrean; Macarena Gomez, Christian Thomas eta Javier Botet, besteak beste.

# Aiaraldea ez da Hollywood edo bai?

2024. URTEAK ZERBAIT EKARRI BADU AIARALDERA ZINEMA IZAN DA. ESTI URRESOLAREN PELIKULA ARRAKASTATSUA, TXANI RODRIGUEZEN LIBURUAREN MOLDAKETA ETA HAINBAT FILMEREN GRABAKETA.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aimar Gutierrez Bidarte, Naia Vallejo Torres**

Nekez izango du Aiaraldeak beste urte bat horren borobila zinemari dagokionez. Izan ere, hainbat modutan harilkatu da eskualdea zazpigarren artearekin eta uzta oso oparoa utzi dute igarotako hamabi hilabeteek Edonola ere, izen batek modu distiratsuan itsutu baditu besteak, hori Esti Urresola zinemagile audioarrarena izan da, modu apur bat artifizialean bada ere.

Izan ere, Urresolaren *20.000 especies de abejas* parte hartze izugarri arrakastatsua izan zuen hamaika nazioarteko jaialditan 2023an. Etxera eramandako sariak ezin dira zenbatu, oso ugariak izan zirelako, baina Berlinen, Iberoamerikako Zinema sarietan, Malagan, Tokyon... airtortza jaso zuen urte berean eta Oscar sarietara joateko lehian ere aritu zen.

Hori guztia lortuta ere, 2024an

sari euritea ez zen eten. Bi Feroz sari eta Naizen euskal adingabe transexualen familien elkarteak emandakoa heldu zitzaizkion urtarrilean, oso bestelako arrazoen ondorioz. Batzuek bere lanaren kalitate artistikoa azpimarratu zuten. Naizenek, aldiz, aldarrikatu zuen Urresolak egindako ekarpena adingabe transexualak ikusarazteko orduan -egia da kontrakoa onartu zuela Voxek filmaren erosketa boikoteatu zuenean Burrianan-.

Hori guztia eginda ere, otsailen pil-pilean egoteko unea suertatu zitzaion zinemagile audioarrari. Izan ere, estatu espainiarreko zinema akademiaren Goya Sariak banatu zituzten. Urresolaren filmak hamabost izendapen lortu zituen eta azkenean bi garaikur eraman zituen etxera. Bata gidoi original onenagatik eta bestea zuzendaritza lan nobelari. Ho-

***Eskualdeko udalerrri batek lortu badu ia plato bilakatzea, hori Urduña izan da. Aurten estreinatu dute 'El bus de la vida', eta hiru film gehiagok hartu dute hiriko toki bat edo beste irudiak grabatzeko***







Goya sariarekin saritu zuten Esti Urresola, *20.000 especies de abejas* filmaren zuzendaritza lana aitortuz.

rrez gain, Ane Gabarainek eskuratu zuen aktore zerrendako onenaren Goya saria.

Nabarmentzekoa da hainbat audioar, Udalaren deialdia jarraiki, erlez mozorrotu zirela sari banaketaren egunean eta Urresolak irmoki salatu zuela Gazako sarraskia.

### **Azken erromantikoak**

2024an ere Txani Rodriguezen *Los últimos románticos* eleberria *Azken erromantikoak* filma bilakatu da. Idazlea bera eszena batean agertzen da, nahiz eta protagonista nagusia Miren Gaztañaga izan Arakaldon bizi den antzezlea. Donostiako Zinemalditik igaro zen eta azaroan zinema aretotan

ikusteko aukera egon da. Estreinaldia baino lehen, pelikularen grabaketa egin zen Laudion, hori bai, azkenean irudi horiek ez ziren agertu ikus daitekeen bertsioan. Filma ikusi dutenek, edonola ere, nabaritu dute hori ez dela istorioak duen aldaketa bakarra. Berez, idazleak berak aitortu zuenez, “zinemak eta literaturak hizkuntza ezberdinak dituzte”. Are gehiago, Txani Rodriguez oso pozik dago David Perez Sañudo zuzendariak egingando lanarekin.

### **Sañudo, *Sacamantecas***

Txani Rodriguez eta Miren Gaztañaga ez dira Raul Perez Sañudorekin elkarlanean aritu diren bakarrak. Berez, Kevin

Iglesias amurriarrak ekoizle ardurak hartu ditu zinemagilearen hurrengo filman: *Sacamantecas*. Istorioak kontatuko du XIX. mendean Araban egondako serieko hiltzailea eta Iglesiasek ez du betekizun samurra izango.

Hain zuzen, pelikula karlistaldien testuinguruan girotuta dago eta jende ugariko irudiak izango ditu. Hortaz, jendea kontratatu eta modu egokian agertuko direla bermatu beharko du Iglesiasek. Gainera, film horren eskutik itzuli da Sañudo Aiaraldera eta, esaterako, azaroan Barribion aritu ziren grabatzen.

### **Urduña plato erraldoia**

Dena den, 2024an eskualde-

ko udalerrri batek lortu badu ia plato bilakatzea, hori Urduña izan da. Aurten estreinatu dute *El bus de la vida*, Dani Rovirarekin, eta Udalak plazan eskaini zuen, pelikula gehiena Urduñan grabatu zelako eta hiriaren ize-na baliatu dutelako.

Hori gutxi balitz, aurten hiru film gehiagok hartu dute hiriko toki bat edo bestea irudiak hartzeko eta erabaki hori hartu dutenak aski ezagunak dira. Adibidez, Julio Medem zinemagile donostiarrak Aiaraldera jo zuen *Ocho* grabatzeko. Gipuzkoarrak erronka handia hartu bere gain, pelikula zortzi sekuentzia planotan kontatuko baitu. 1931n hasiko da istorioa eta emakumezko eta gizonezko baten istorioa jarraituko du 90 urtetan zehar.

Otsailean izan bazen Medemen bisita, uztailean heldu ziren Urduñara Alex de la Iglesia bilbotarraren ekoiztetxeko ki-deak *Los Muertimer* grabatzeko. Léa Mazé komikilari frantsesaren binetetan oinarritzen da filma eta hilerri batean krimen bat ikertzen duten bi umeren abenturak ditu ardatz. Alex de la Iglesia zuzendariaren eta Carolina Bang aktorearen esku dagoen Pokepsie Films produkzio-etxeak ekoiztiko du filma, *Errementari* filma edo HBO plataformako *30 Monedas* telesaila ekoizteaz arduratu den etxea, alegia. Foru Plaza, Frankos, Orruño eta Donibane kaleak hartu zituzten, besteak beste, akziozko irudiak hartzeko. Urte amaieran, ordea, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *Maspalomas* proiektuak

## Urduñako Foru Plazan proiektatu zuten hirian bertan grabatutako 'El bus de la vida' filma





kuartel nagusia izan du Antiguako pasalekuan kokatuta dagoen Mariaren Konpainia eraikina. Arregi eta Goenaga bereziki ezagunak ez izateak ez du esan nahi eskarmentu handia ez izatea zineman. Alegia, *La trinchera infinita*, *Loreak*, *Lucio*, *Handia*, *Marco* edo *Cristobal Balenciaga* pelikula eta dokumentaletan.

### **Toñi Hinojosa**

Aipamena merezi du ere Toñi Hinojosaren kasuak, zeinak antzezle gisa aurten ekin dion lan egiteari. Amurriarra gorra da eta hori ez zen izan inolako oztoporik *Cuerpo Escombros* filman agertzeko. Dani Rovirarekin pantailan par-

tekatzeko parada izan ez ezik, harreman ona egin zuen berarekin.

### **Underground: Josu Vaquerizo**

Edonola ere, dena ez denez zinema komertziala, Aiaraldeak baditu bestelako zinemagileak, Josu Vaquerizo kasu. Audioarra Ingalaterran bizi da eta zinema esperimentalak lantzen du. 2022an zazpi sari jaso zituen Estatu Batuetan eta handik heldu zitzaion proposamena aurten bere filmak VHS euskarrian saltzeko. Horrez gain, Javi Gil zuzendariaren inguruan mugitzen den taldeak bi sari jaso ditu Belchiteko zinema lehiaketan eta Bilboko Hilerriko I. zinema jaialdian.

***Aipamena merezi du ere Toñi Hinojosaren kasuak, zeinak antzezle gisa aurten ekin dion lan egiteari***



# Artziniega Museoak

## 40 urte

### Paki Ofizialdegi

Artea Etnografia Elkarteko kidea

2024an Artziniega Museoaren 40. urteurrena ospatu dugu. Artea Etnografia Elkarteak ospakizun berezi honen balantzea egin nahi du.

Ez ditugu jatorriak azalduko, baina bai zergatia: Ez genuen nahi 1970eko hamarkadan Artziniengan industria iritsi eta baserrietan lan egiteari utzi zitzaionean zegoen paradigma-aldaketa hark objektuak desagerraraztea, eta, ondorioz, garai bateko bizimoduaren oroimena. Horrela, ondare hori gordetzen joan ginen, harik eta XX. mendearen erdialdeko landa-bizitza eta hiribildua aren egunerokotasuna irudikatuko zuen museoa sortzea lortu genuen arte. Bizimodu hau mendeetan zehar existitu zen eta bat-batean desagertzen zihoan. Ez genuen erakusketak bat egin nahi, zerbait bizia baizik. Lanbidez lanbide, ez genuen objektu bakar bat ere kanpona utzi nahi, gaur egun artisaubakoitzak garai batean bezala lan egin ahal izateko. Horri guztia ikuspegi daktikoa gehitu genion, belaunaldi berriek bizimodu ekologikoagoa eta iraunkorragoa ezagutu eta horren inguruan hausnar zezaten. 40 urte hauetan fase asko igaro dira. Gehien hunkitzen gaituenetako bat gaur egungo museoa muntatzeko euren aletxoak jarri zuten hainbeste pertsonen lankidetzat da. Adituak esperientzia hori bizi izan zuten pertsonak izan ziren. Oeaindik ere mimoz zaindu eta maitatzen dute museoa, bizilagunen pertenez sentimendua sakon errotuz. Gaur egun, kudeaketa kontuak direla eta, esan dezakegu Udala eta Aldundia direla alderdi ekonomikoaz arduratzen direnak, eta gure elkarte kudeaketa eta dinamizazio kultural zein etnografikoaz arduratzen da. Horregatik, alkatetzak urteurren honetarako programa berezi bat antolatzea proposatu zigunean, ez genuen zalantzarik izan. Ahalegin handiko hilabeteak izan dira, baina oso pozik gaude lortutako emaitzarekin: ikusgarritasun handiagoa eman zaio museoari, izan ere, 40 urte izan arren, ez da hain ezaguna, edo, akaso, jende askok ez gaitu

bisitatu bere dimentsioak eta potentzialak ez ezagutzeagatik. Era berean, Artziniégako eta Aiaraldeko eskaintza kulturala aberasten lagundu dugu. Gainera, gure funts etnografikoa aberastu ditugu, landutako gaiei leial izaten jarraituz, egin behar genituen ikerketetan sakonduz. Gure urteko programazioaren barruan pentsaezinak izango lirakeen jarduerak egin ahal izan ditugu, prezioa eta ahalegin pertsonala direla eta. Lehenik eta behin, ukitu berezia eman nahi izan diogu urteko jarduera etnografiko bakoitzari, baina, ondoren, urtea askotariko programarekin osatu dugu. Urtea Museo Biziarekin hasi genuen, zeramikariaren eta eskultorearen ogibidea nabarmenduta. Estilo eta jatorri anitzeko kontzertuak egi ditugu euskal folklore garaikidea Korrontzirekin, musika lirikoa Patricia Sesar sopranoarekin eta Itziar Barreda pianistarekin, musika korala Bleibet Ahots Taldearekin. Hitzaldiak antolatuta ditugu: Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Xabier Santxotenaarekin Agote komunitateari buruz, edota Luis Angel Villaterekin Txarribodari buruz, Ekonomia Zirkularraren ikuspegitik. Performanceak laia Irintzi Taldeak irrintziri eskainitako ikuspegi garaikidearekin. Dantzez eta joaldunez. Tailerrez; hala nola, antzina-ko jokoak, etnografikoak, marrazkikoak, Ekonomia Zirkularrari buruzkoak, Arima Gauari buruzkoak. Eta lan guzti hori borobiltzeko XX. mendeko arropen desfiteaz gozatu genuen. Bertan, Museoaren funtsak erakutsi genituen, eta hainbat kolaborazio izan ziren, hala nola Balenciagak diseinatutako Milagros Bohoyoren bi jantzi, gure herriko boluntario talde batek erakutsi zituenak, eta oso txalotua izan zena. Ez dugu ahaztu nahi 23. Korrikari parte hartu genuela, jaien pregoilari izendatu gintuztela eta Ultreya Mugimenduak egin zigun dohaintza. Azken finean, jarduera oso interesgarri eta aberasgarri betetako urtea izan da, bai elkarte honentzat, bai etnografia eta kultura maite duten guztientzat.



**Amaitzen ez den gaitza da. Aurten ere prekarietateak modurik krudele-  
nean kolpatu du eskualdea. Martxoan hil zen Mohamed Lazraq Urduña-  
ko bizilaguna Amiantec 3000 enpresarentzat lanean ari zela. Bederatzi**

A large crowd of people is gathered for a protest. In the foreground, a red banner with white text is held across the street. The text on the banner reads "BARIETATEA" on the top line and "ZAILA" on the bottom line. The crowd consists of people of various ages and ethnicities, some looking towards the camera and others looking away. The scene is outdoors, and the ground appears to be wet, possibly from rain. The lighting is bright, suggesting it is daytime.

**BARIETATEA  
ZAILA**

# ***Bizitzak jokoan***

metroko altueratik amildu zen Lazraq, eta halabeharrez Bassirou Diorenen heriotza ekarri die askori gogora. Aurten eseri dira epailearen aurrean Zorroza enpresako arduradunak, 2020ko lan-istripua argitzeko.

# Kaleetatik epaitegietara

## egin du salto Autoglas-Glavistaren itxierak

UDAREN ATARIAN EGIN ZUTEN AZKEN ELKARRETARATZEA KALERATUTAKO LANGILEEK, BAINA AUZITEGIETAN ORAINDIK BIDEA DU EGITEKE AUZIAK.

Testua: **Txabi Alvarado Bañares**

Argazkiak: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Atzean geratu dira iazko elkarretaratzeak, mobilizazio jendetsuak eta itxialdiak. Beste fase batera igaro da aurten Autoglas-Glavistako itxieraren auzia, kaleetatik epaitegietara salto eginez. Udaren atarian egin zuten beharginek azken elkarretaratzea. Jada urrun dago noizbait fabrikara itzultzeko aukera, eta beste lanpostu batzuk bilatzeari ekin diote gehienek.

Auzia, baina, ez da amaitu oraindik. Maiatzean berrabiarazi zuten enpresa itxi eta langileak kaleratzeko Enplegua Erregulatzeko Espedientea, sei hilabeteke etenaldiaren ostean. Epaileak dokumentazio ugari eskatu zien 2023ko urrian Parter Capital eta Guardian enpresei, baina hauek

ez zuten aurtengo apirilera arte entregatu, eta horrek atzeratu zuen prozesu osoa, sindikatuek salatu zutenaz.

Akordiorik gabe amaitu zen espedientearen kontsulta fasea, eta uztailean atera zen epailearen ebazpena: Gasteizko merkataritza arloko epaitegiak arrazoia eman zien Autoglas-Glavistako langileei eta adierazi zuten bidegabera zela behargin guztiak kaleratzeko enplegua erregulatzeko espedientea.

Baina hor ez zen amaitu epaitegietakozko prozesua. ELAk Guardian eta Parter Capitalen aurka salaketa abiatu zuen hartzekodunen lehiaketaren kalifikazioan, eta azaroan atera zen horren sen-

tentzia. Epaileak partzialki onartu zuen sindikatuaren eskaera: ebatzi zuen Terrahe & Associates Beteiligungs (Parter Capitalek Glavista kudeatzeko baliatutako enpresa) zela fabrikaren itxieraren erruduna. Hori espero zitekeen: Parter Capitalen zuzendari maiatzean atxilotu zuten Frantzian, bertako beste lantegi bat porrote-ramatea leporatuta.

Baina epaileak ez Guardian saku berean sartu, beiraren multinazionala izan zen arren 2020an Autoglas-Glavista Parter Capitali saldu ziona.

Dena dela, esan bezala, auzia ez da itxi oraindik. Enpresa ixteko prozesuak aurrera darrai, eta EAEko Auzitegi Gorenak ebatzi







Beste fase batera igaro da itxieraren auzia, eta atzean geratu dira mobilizazio eta elkarretaratze jendetsuak

beharko du sindikatuek zein inplikaturako enpresek jarritako helegiteei erantzunez. Ebazten horren bidez zehaztuko da, besteak beste, nork hartuko dituen bere gain langileen kaleratzeen

kostuak. Ebazpenak ebazpen, ez dirudi enpresaren itxierak atzera bueltarik izango duenik, eta horren emaitza argia da: 240 lanpostu gutxiago daude Aiaraldeko industrian, eta ortzimuga ere ilun

dago. Glavista-Autoglas saldu ostean, langileen erdia baino gutxiagorekin geratu zen Guardian, eta ez dago etorkizunean jokaldia errepikatu nahiko ez duenaren bermerik.



**Generali**  
Aseguru perfektua bilatzea, inoiz ez da hain erreza izan!



Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza aurrezkiak, Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua...

**ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA**  
Agente eksklusiboa

946 610 361 - 688 856 744  
aritzamorrortu@generalimediadores.es  
Sastegi 1 behea, OROZKO



# Etxebizitzarekin

## Aiaraldean zer?

2024KO KEZKA SOZIAL ESANGURATSUENETAKO BAT IZAN DA ETXEBIZITZARENA, EUSKAL HERRIAN ZEIN ESPAINIAKO ESTATUAN. AIARALDEAN, ALDIZ, GAIK EZ DU KALERA EZTA EZTABAIDA PUBLIKORA SALTO EGIN ORAINDIK.

Testua: **Txabi Alvarado Bañares**

Argazkiak: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Urteko gaietako bat izan da etxebizitzarena. Tentsionatutako eremuak, etxegabetzeak, gentrifikazioa... ohiko kontzeptuak bilakatu dira hedabideen titularretan. Abenduaren 14an Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuek eginiko mobilizazioak milaka lagun bildu zituen Bilbon. Aiaraldean, aldiz, gaiak ez du kalera ezta eztabaida publikora salto egin oraindik, aurre horri lotutako hainbat zantzu egon diren arren.

### 2008ko krisia

Berez, etxegabetzeen aurkako borroka orain baino nabarmen presentetago egon zen eskualdean iragan hamarkadaren hasieran. Historia aski ezaguna da: 2008ko krisiaren ondorioz, jende asko hipoteka ordaindu ezinik geratu zen. Kaleratze olatu han-

dia eratu zen orduan, eta baita horren aurkako mugimendu sendo eta zabala ere. Testuinguru horretan jaio ziren Stop Desahucios edota Plataforma de Afectados por la Hipoteca (PAH) bezalako plataformak. Eragile horiek lehen planora ekarri zuten egun batetik bestera bizitokirik gabe geratu ziren herritarren errealitatea, eta horren aurkako neurriak hartzera derrigortu zituzten erakunde publikoak.

Hemerotekari begiratu bat ematen badiogu, ikusi daiteke mugimendu hark eskualdean ere izan zuela oihartzuna. 2012ko apirilekoa da Aiaraldea Komunikabideak jasotako lehen kasua. Orduko hartan Aretako emakume batek bere etxegabetzea ekiditea lortu zuen, Stop Desahuciosen laguntzarekin, Banco Santanderre-

**Urteko gaietako bat izan da etxebizitzarena. Tentsionatutako eremuak, etxegabetzeak, gentrifikazioa... ohiko kontzeptuak bilakatu dira hedabideen titularretan**





kin alokairua birnegoziatuta. Urte bereko azaroan sortu zen Stop Desahucios Aiara. Eragile horietako ordezkariak aholkularitza juridikoa zein arreta psikologikoa eskaintzen zieten etxegabete egoeran zeuden bizilagunei, eta mobilizazio bateratuak egin zituzten baita eskualdeko bestelako eragile sozial eta sindikalekin.

Instituzio publikoekin ere garatu zuten elkarlana. Audioko Udalak 2013ko otsailean aurkeztu zuen etxegabetezi aurre egiteko protokolo propioa, EAEko udal batek egiten zuen lehenengoetarikoa izan zena. Protokolo horrek hainbat neurri jasotzen

zituen eta, besteak beste, aukera ematen zion tokiko erakundeari etxegabeteza gauzatu nahi zuen finantza erakundearekin harreman ekonomikoak eteteko.

### Gaur egungo egoera

Stop Desahucios Aiara hiruzpalau urtez egon zen funtzionamenduan, baina bere jarduna eten zuen gero (zaila da zehaztea noiz desegin zen guztiz, ez baitzuten publikoki jakinarazi). Ordutik hona ez da egon etxebizitzaren auziari heldu dion bestelako mugimendurik eskualdean. Gaiarekin zerikusia duen ekimen bakanetako bat 2020an jazo zen,

**Stop Desahucios Aiara hiruzpalau urtez egon zen funtzionamenduan, baina bere jarduna eten zuen gero Ordutik hona ez da egon etxebizitzaren auziari heldu dion bestelako mugimendurik**

Orbeko Etxea gune autogestionatuko kideek okupazioaren kriminalizazioaren aurkako mobilizazioa egin zutenean.

Baina arazoa eztabaida publikora salto egin ez izanak ez du esan nahi existitzen ez denik. Eustatek iaz eginiko neurketaren arabera, 17.536 etxebizitza daude gaur egun eskualdean. Horietako 14.975 (%85,3) jabetza erregimenean daude, eta 2.177 (%12,41) baino ez daude alokatuta. Ehuneko txikia da, EAEko (%14,5) zein Arabako (%15,4) batez bestekoen azpitik kokatzen dena (orokorrean, alokairuan dauden etxebizitzak ehuneko oso baxua da Espainiako Estatuan, are gehiago Europako beste herrialde batzuekin alderatuz gero).

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren ekaineko neurketen arabera, 555,1 eurokoa zen Aiaraldean kontratupeko alokairuan zeuden etxebizitzak batez besteko errenta, EAEkoa 754,3 eurokoa zen bitartean. Hala ere, etxebizitza beharra dagoela erakusten dute datuek, eta gehiagorako doan fenomeno da. Aurtengo urrian gutxienez 1.464 aiaraldealde zeuden Etxebiden izena emanda etxe-eskatzaille gisa, gehienak alokairu bila. Gutxienez diogu, estatistikan ez dituelako Artziniega, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo eta Okondoko datuak erakusten, udalari txikiak direlako datuen babeserako legearen irizpideei begira. Igoera nabarmena izan da: 2023ko urrian 1.225 ziren etxe-eskatzailleak, eta 2021eko hilabete berean 968. Hau da, azken hiru urtetan 496 pertsona gehiago batu dira eskatzaileren zerrendara; esan bezala, gehienak

## **Aurtengo urrian gutxienez 1.464 aiaraldealde zeuden Etxebiden izena emanda etxe-eskatzaille gisa, gehienak alokairu bila**





Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren igoerak haserrea piztu zuen Amurrioko hainbat bizilagunen artean

alokairuaren modalitatean. Badago beste datu bat ere kontuan hartzeko modukoa: 15 pertsona bizi dira kalean Laudion, egini-ko azken zenbaketaren arabera. Igoera deigarria da, 2022an egini-ko zenbatekan ez baitzen inor kontabilizatu. Gainera, kontuan izan behar da Laudion soilik egin dela kontaketa aurten. Eskualdeko errealitatea askoz gordinagoa izan daiteke beraz.

### **Etxe hutsak eta zergak**

Lehen aipatu dugu azken urteetan ez dela egon etxebizitzari lotutako mobilizaziorik, baina hori ez da guztiz zehatza. Iragan abenduaren 9an dozenaka lagun batu ziren Amurrioko parkean, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren igoeraren aurka protes-

tatzeko. Salatu zutenez, bizilagun batzuei %20 igo diete zerga, eta aurreratu zuten ekimen eta mobilizazio gehiago egingo dituztela horren aurka.

Hori bada deigarria: eskualde honetan lehenago mobilizatu dira higiezinaren jabeak, alokairuan bizi direnak baino. Eta horrek agian pistaren bat eman dezake Aiaraldean dagoen errealitatearen inguruan.

Eta pista gehiago eman ditzakete baita Laudioko Udalak irailen plazaratutako datuek. Tokiko erakundeak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen herrian hutsik dauden etxebizitzaren zerrenda, euren jabeen %50ko errekarua ezarriko zitzaizela jakinarazteko. Etxe huts horiek alokairu merkatura

**Laudioko Udalak plazaratutako zerrendaren arabera, 660 etxe huts daude herrian**

mugitzea zen neurriaren xedea, baina kritika gogorrak jaso zituen zenbait alderdiren partetik. EAJK zerrenda publiko egin izana deitoratu zuen, “jabetza pribatua estigmatizatzen” duela argudiatuta. PPK, bere aldetik, adierazi zuen ez zuela uste neurri egokia zenik errenergia ezartzearena. Alderdi Popularraren aburuz, etxebizitza huts horien jabeak herri txikietan bizi diren biztanleak dira eta bigarren etxebizitza erosi dute euren bizitokitan eskura ez dituzten zenbait zerbitzu publikoetara heltzeko.

Baina, zer diote datuek? Laudio Udalak plazaratutako zerrendaren arabera, 660 etxe huts daude herrian. Kopuru handia

da, EAEko batz bestekotik nabarmen gora kokatzen dena. Hala ere, kontuan izan behar da kopuru behin-behinekoa dela.

Zerrenda aztertuz gero, ez dirudi jabetza-pilaketa handia dagoenik. Jabe gehienek (394) etxebizitza bat dute hutsik gehien jota. 103 jabe daude bi etxe huts dituztenak, 11 jabe daude hiru etxe hutsekin, hiru jabe lau etxe hutsekin eta bana zazpi eta zortzi etxe hutsekin. Baina kontuan izan behar da zerrenda horretan etxe hutsak baino ez daudela zenbaita. Gauzak hala, ezin da zehaztasunez jakin Laudion jabe-handi asko dauden edo ez.

Zerrendan agertu egiten dira bankuenak edota funts putree-

nak diren zenbait etxebizitza; baina, lehen begiratuan behintzat, ez dirudi inondik inora gehienak direnik. Gauzak hala, intuitu daiteke Laudio (eta eskualdeko) errealitatea ez dela Bilbo edota antzeko beste hirietakoa bezalako. Hemen ez dirudi kapital handirik dagoenik auzo eta eraikin blokeekin espekulatze irrikitan, edo ez behintzat horren modu nabarmenean. Eta agian hori izan daiteke etxebizitzaren problematika beste toki batzuetan bezala azaleratu ez izanaren arrazoietaiko bat. Dena den, argi dago eskualdeko errealitateak badituela osagai nahiko toki batetik edo bestetik gainezka egiteko. Nondik egingo duen da galdera.





**David Hernandezen heriotzak eskualdea alderik alde astindu zuen. Lau-dioko Etengabeko Arreta Gunean medikurik ez zela zendu zen Hernandez urtarrilean. Gertaerak haserrea eta samina piztu zituen eskualdean,**



# *Haserrea eta samina piztu dira*



eta osasun sistema "publiko eta duin" baten aldeko mobilizazio olatu handia altxatu zuen. Protestak errepikatu diren bezain beste errepikatu dira medikurik gabeko egunak Aiaraldeko osasun zentroetan.

# Osasun sistema

“publiko eta duina”,  
kezka zein aldarri

OSASUN SISTEMA PUBLIKOAREN EGOERA IZAN DA URTEKO GAI NAGUSIETAKO BAT. IA HILABETERO EGON DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AGENDA SOZIAL ETA POLITIKOAN, ETA BEREZIKI IZAN DU ERAGINA AIARALDEAN.

Testua: **Txabi Alvarado bañares**

Argazkiak: **Naia Vallejo Torres, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte**

Urteko gaietako bat izan da Osakidetzaren egoera, bai Aiaraldean eta baita Euskal Herrian ere. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan eztabaidagai nagusietako bat izan zen apirilean, eta urteko gainontzeko hilabeteetan ere eman du zeresan handia.

Eskualdean urtea hasi berrian egin zuen salto kezkak iritzi publikora. Urtarrilaren 12an hil zen David Hernandez *Fabi*, 42 urteko laudioarra. Laudioko Etengabeko Arretako Gunera jo zuen ondoezik, eta bihotzekoak jota hil zen bertan, medikurik ez zegoen une batean. Albistek biharamunean

egin zuen salto komunikabideetara, eta handik astebetera milaka lagun atera ziren kalera “Osasun sistema publiko eta duin baten alde”, azken hamarkadan eginiko mobilizazio jendetsuenetako batean. SOS Aiaraldeak eta JEZeko enpresa batzordeak egin zuten deialdia, lantegi horretan lan egiten baitzuen Hernandezek.

Baina protesta ez zen manifestazio horretara mugatu. Kezka soziala kalean zegoen jada, eta herritar talde bat biltzen hasi zen bestelako dinamika batzuk martxan jartzeko asmoarekin. Handik aste batzuetara egin zuten lehena:

elkarretaratzea deitu zuten mediku gabeziaren arazoak bere horretan jarraitzen zuela azaleratzeko.

Laudioko Udalak, bere aldetik, bilera izan zuen otsailean Gotzone Sagarduirekin, orduko osasun sailburuarekin. Tokiko erakundearen aburuz, bilerak ez zuten “emaitza positiborik” utzi, baina Osasun Sailak kontrakoa erantzun zuen handik egun batzuetara zabaldutako komunikatuan. Beste urrats batzuk ere eman zituen Udalak: Arabako eta Bizkaiko Medikuen Elkargoekin bildu zen, eta bilera bat egiten saiatu zen eskualdeko gainontzeko Udale-





Samina eta haserrea piztu zituen David Hernandezen heriotzak

kin. Baina Amurrio, Okondo, Urduña eta Orozkoko Udalek uko egin zioten bertan parte hartzeari. "Desleialtasuna" leporatu zioten Audioko Udal Gobernuari, hedabideetan horren berri emateagatik euren erantzuna jaso baino lehen.

Bien bitartean, protesta gehiago prestatzen jarraitu zuten osasun sistema publiko eta duinaren alde antolatutako herritarrek. Apirilean kanpaina abiatu zuten osasun zentroetako murrizketak azaleratzeko, eta erreklamazioak jartzeko deia luzatu zuten.

Handik hilabete batera, maiatzaren 25ean, agerraldia egin zuten Amurrioko osasun zentroaren

aurrean. Osakidetzak erantzuna eman zien aurkeztutako erreklamazioetako askori; baina, salatu zutenez, "aitzakia bera" erabili zuten kasu guztietan: "medikuen eskasia dagoela eta, horregatik, baja batzuk, 'ahaleginak egin arren', ezin direla familia-medikuntzako profesionalekin bete". Ekintza sinboliko batekin erantzun zioten bizilagunek osasun erakunde publikoaren jarrerari, jasotako erantzunak birrinduz, eta erreklamazioak jartzen jarraitzeko deia luzatu zuten.

Zaila da kanpaina horrek zenbaiterainoko eragina izan zuen jakitea. Osasun Sailak emandako datuen arabera, EAE osoan

## **Urtarrilaren 12an hil zen David Hernandez 'Fabi', 42 urteko audioarra**



Urduñako Osasun Zentroaren aurrean aurkeztu zuten sinadura bilketa kanpaina

%20 igo zen Osakidetzari eginiko erreklamazio kopurua urtarriletik irailera, aurreko urteko garai bereko kopuruekin alderatuta. Noski, igoera hori ez zen Aiaraldean abiatutako kanpainagatik izan, baina datuek nahiko argi uzten dute kezka orokortu egin dela aurten, eskualde barruan zein eskualdetik kanpo.

### Udako murrizketak

Urte osoan zehar egon da mediku gabezia Aiaraldeko Etengabeako Arretako Guneetan, egun puntaletan. Udan, baina, nabarmen areagotu egin zen arazoa. Osasun Sailak berak emandako datuen arabera, ekainetik irailera bitarteko txanden %18,3an ez

zen medikurik egon Laudio eta Amurrioko Etengabeako Arretako Guneetan. Zehazki, Amurrion 242 txandetatik 46 geratu ziren bete gabe, eta Laudioan 43 guztira. Modu horretan, EAEko batez bestekoa ia bikoiztu zen eskualdean.

Hala ere, murrizketak ez ziren soilik arreta gunehorietan egon. Laudioko Zainketa Intentsiboetarako Unitatean (ZIU) ere gertatu ziren horrelakoak. Abuztuaren 23an Bilboko ZIU mugikorra bertaratu behar izan zen eskualdera bihotzeko bat eta bihotz-gelditze bat artatzera, Laudiokoan medikurik ez zegoelako. Bihotz-gelditzea pairatu zuen pertsona hil egin zen azkenean, eta horrek berriz piztu zituen protestak. Elkarretaratzea

**Osasun  
Sailak berak  
emandako  
datuen arabera,  
ekainetik  
irailera  
bitarteko  
txanden  
%18,3an ez  
zen medikurik  
egon Laudio  
eta Amurrioko  
Etengabeako  
Arretako  
Guneetan**

egin zuten jai kuadrillek Laudioko jaien Odoloste Egunean, eta hurrengo astean mobilizazio jendetsua egin zen, 1.300 pertsonaren parte hartzearekin.

### 5.646 sinadura

Uda amaituta, mediku gabezia aurreko parametroetara itzuli zen berriz. Mobilizazio soziala, aldiz, ez zen gelditu. Urriaren hasieran kanpaina berri bat aurkeztu zuten SOS Aiaraldea plataformako kideek Urduñako kontsultategiaren aurrean: sinadura bilketa. Lau aldarri zehatz planteatu zituzten. Lehena, beharrezko giza baliabide guztiak “uneoro bermatzea” Osakidetza eskualdean dituen azpiegitura guztietan. Bigarrena, gauza bera ziurtatzea Laudioko anbulantzia medikalizatuan ere. Hirugarrena, “Osakidetzaren oinarrizko asistentzia-zerbitzuak bermatzea”; eta laugarrena, Buru Osasunerako Zentroko arreta arina izatea, “psikiatra zein psikologoagatik artatuak izateko itxaron zerrendak murriztuz”.

Azaroaren amaierara arte aritu ziren atxikimenduak biltzen, eta 5.646 sinadura fisiko bildu zituzten orotara. Abenduaren 12an entregatu zituzten guztiak, Gasteizen, Osakidetzaren zerbitzu zentraletan. Ikusteke dago zer erantzun jasotzen dute osasun erakundearen partetik. Epe luzeago batera begira, ikusteke dagoen beste gauza bat bada ea nola garatu eta amaitzen diren Laudioko anbulatorio berriko obrak. Otsailan hasi ziren eraikina egiteko lanak Latorroko orubean eta, aurreikuspenen arabera, datorren urtearen amaierarako egon beharko lukete amaituta.

## *Azaroaren amaierara arte aritu ziren atxikimenduak biltzen, eta 5.646 sinadura fisiko bildu zituzten*



# Drogen aurkako gerra bukatu da?

URTEKO LEHEN LAU HILABETEETAN ATXILOKETA, ISUN ETA GATAZKA UGARI GERTATU ZIREN DROGEN KONTSUMOA ETA SALMENTAREN KONTRAKO SAREKADETAN.

Testua: **Aitor Aspuru Saez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

2023an eta 2024an drogen kontrako sarekada eta operazio ugari gertatu dira Aiaraldean. 2023. urtea ez zen makala izan zentzu horretan, baina 2024ko gertakariak lau hilabeteetan metatu ziren eta zenbait ostalari eta herritarren artean ezinegona eta haserrea piztu zituzten. Berez, zaila da jakitea benetan zenbat esku-hartze egin zituen Ertzaintzak, baina Aiaraldea Komunikabideak dozena bat artikulu baino gehiago argitaratu zituen lau hilabete eskasetan.

Poliziak egindako lehen atxilotetak ez zuen aparteko zaratarik sortu. Urtarrilaren 12an 200 gramo kokaina zituen herritar bat harrapatu zuen, 1.300 euro gainean zituela. Ohiko errepide kontrol batean jazo zen, baina egindako hurrengo sarekadak oihartzun handia izan zuen aldagai ugari batu zirelako.

Lehenik eta behin David Hernandez *Fabi* audioarraren herio-

tza salatzeko manifestazio jendetsuaren ondoren abiatu zutelako. Jendetza anbulategitik herrian barrena sakabanatzen ari zela, Brigada Mugikorak Zubiko Kurajoko bi taberna inguratu zituen eta barruan zeuden herritarrak identifikatu eta miatu zituen — horietako asko afaltzen ari ziren bitartean—. Egoerak ikara eta amorrua ekarri zien bezero zein tabernariei eta herritarrek eurek hartutako irudiak bolo-bolo zabaldu ziren sare sozialen bitartez, tabernetara korrika joaten ziren agenteak protagonista zirela, kasko, ezkutu eta babes guztiak jantzita.

Operazio handi horren emaitzak, edonola ere, urriak izan ziren. Bi tabernetan zeuden hamazazpi lagun zigortu zituen poliziak, Ertzaintzaren prentsa bulegoak zabaldutako informazioaren arabera. Hamahiru pertsona zigortu zituzten substantzia estupefazianteak kontsumitzeagatik

**Ertzaintzak urtarrilean Laudioko Zubiko Kurajo kalean egindako sarekadak oihartzun handia izan zuen**



LAND CRUISER

E · 2591



ERTZAINZA

[www.ertzaintza.eus](http://www.ertzaintza.eus)

POLIZIA



Urduñan Brigada Mugikorrek parte hartu zuen drogen aurkako operazio zabal batean

eta beste hiru arma zuriak bide publikoan edukitzeagatik. Ostalaritza establezimenduetako baten arduraduna ere isundu zuten kudeatzen duen tabernan drogararen kontsumoa toleratzeagatik. Horrez gain, beste bi pertsona gehiago ikerketapean utzi zituzten, droga-trafikoko delitu bana egotzita. Ikertuetako bat 70 gramo haxix zituen, polizia iturrien arabera. Ertzaintzak zabaldu zenez, bigarren ikertua tabernetako baten komunetan aurkitu zuen poliziak, droga-trafikoarekin lotutako materiala ezkutatzen.

### **Kontsumitzaileak jomugan**

Operazio horrek ezarri zituen, nolabait, atzetik etorri ziren hainbat esku-hartzeren ezaugarriak; droga-saltzaile handien kontra jo ordez, sozialki kriminalizatuta dauden zenbait eremu edo ostalaritza negoziari jarraipen estua egitea. Laudioko establezimendu batek, esaterako, bezero gazteak, eta ondorioz sarekadak, ekiditeko, bere negozio eredu guztiz aldatu zuen. Alegia, gazteak alden du eta pintxoetan zentratu zen. Baina poliziaren agerraldiak ez ziren mugatu tabernetara, eta ur-

***Droga saltzaile handien kontra jo ordez, sozialki kriminalizatuta dauden zenbait eremu edo ostalaritza negoziari jarraipen estua egin zaie***



tarrilean eta otsailean sarekadak egin zituzten Lamuza parkean eta Lanbide Heziketako ikastetxean, atsedean orduan. Operazioek ez zuten, berriro ere, emaitza handirik utzi, hainbat gazte identifikatu eta gero, bati 7 gramo anfetamina topatu zizkioten.

Otsailaren erdialdean beste bi operazio egin zituen Ertzaintzak bi ostalaritza negoziotan. Amurrioren erabiltzaile batzuk isundu zituzten drogak gainean izateagatik -norberaren kontsumorako, ez baitziren ikertuak izan- eta Orozkon, aldiz, taberna baten jabeari leporatu zioten drogen trafikoa.

Otsaila gehiago berotu zen, hurrengo asteburuan Brigada Mugikorrek Laudioko herriguneko bi tabernetan sartu zenean. Berez, drogen trafikoagatik ez zuten inor atxilotu, bai ordea, herritar bat erresistentzia eta agintaritzaren kontrako eraso leporatuta eraman zuten. Aiaraldeak berak elkarriketatu zuen gizona eta azaldu zuen tabernara bertaratu zela bere emaztea barruan zegoelako eta ez zuelako NAN gainean. Hara heldu zenean bi polizia bultzatu zuten eta eztabaida izan ondoren, hura atxilotzeko agindua eman zuten. Berak soilik eskatu zuen eskuburdinak aurretik jartzea, eta ez sorbalda, bajaran baitzegoen lesio baten ondorioz. Laudioarraren iritzia izan zen sarekadek ez zutela zerikusirik osasun publikoarekin.

Gau berean, hori gertatu eta gero, dena den, Brigada Mugikorrek Urduñara jo zuen eta beste taberna batean sartu zen, eta kalea itxi zuten. Tabernan zeuden hainbat bezero identifikatu eta

## **11.000 kalamu landare hazteko gaitasuna izango zuen pabilioi baten kontra egin zuen operazioa Ertzaintzak martxoan**



isuntzeko prozesua abiatu zuten substantzia sorgarriak izateagatik.

Martxoaren hasieran heldu zen poliziak burututako hurrengo operazioa. Kasu horretan ez zen izan sarekada bat itsuan, baizik eta 11.000 kalamu landare hazteko gaitasuna izango zuen pabilioi baten kontrakoa. Esku-hartzean 26.000 euro, pistola bat eta hain-

bat gailu elektronikoko ere topatu zituen poliziak. Hiru akusatuek aske utzi zituzten gero, baldintzapean.

Hori bai, egun gutxira Ertzaintzak beste esku-hartze handia egin zuen Laudioko taberna batean. 20 agentek parte hartu zuten eta hiru lagunak isunak jarri zizkioten legez kanpoko substantziak edukitzeagatik.



Urteko lehenengo lauhilekoan ohikoak bilakatu ziren horrelako irudiak eskualdeko taberna guneetan

### **Azken ekaitza**

Operazio eta sarekada kate horien azken begia apirilean izan zen eta hori izan zen, hain zuzen, kaltetu gehien utzi zuena. Apirilaren 13ko gaueko ordu txikitan Ertzaintza taberna batean sartu zen sarekada gauzatzeko eta esku-hartzeak 22 identifikaturekin bukatu zuen, bi atxiloturekin eta hainbat zauriturekin. Alegia, hiritarrek salatu zuten borrak ez ezik, foamezko balak ere erabili zituela poliziak euren kontra. Halaber, neska batek ertzain bat salatu zuen erasotzeagatik, nahiz eta salaketak ez zuen biderik egin, Ertzaintzak berak baztertu baitzuen agentearen identifikazioa lortzea.

### **Zergatik azken operazioa?**

2023an eta 2024ko lehen hila-beteetan bizitasun handiz sarekadak gertatu eta gero, urtea igaro da albiste handirik gabe eta horren arrazoia argia da: 2024an Laudioko Ertzain Etxeko burua aldatu zen. Laburbilduz, Aritz Corralek utzi zuen kargua. Izan ere, ez da zaila ikustea ertzain horren obsesioa izan zela operazioen iturburua, eta bera joan zenetik, ez da polemikarik erreplikatu.

Corralek berak hainbat hedabidetan -ez Aiaraldean, nahiz eta elkarrizketa ofizialki eskatu zitzaion-esku-hartze horiei buruz hitz egin zuen Laudioko komisaldegiko arduraduna izan bitartean.

***2024ko lehen hilabeteetan bizitasun handiz sarekadak gertatu eta gero, urtea igaro da albiste handirik gabe eta horren arrazoia argia da: 2024an Laudioko Ertzain Etxeko burua aldatu zen***



### Noren kontrako oprazioak?

Gutxi ukatu dezakete drogak badirela gizarteak duen arazoe-tako bat. Ordea, horri aurre egiteko tresna ezberdinak daude; hezkuntza, arriskuak murrizteko politikak edota errepresioa, eta aurreko Ertzain buruak hartutako bidea hori izan zen, hain justu. Eta ez zen izan erabaki neutroa. Izan ere, sarekaden helburua izan ziren kalamua kontsumitzen duten -edo hori egiteagatik susmagarriak diren-gazteak eta baliatzen zituzten espazioak jazartzea. Izan tabernak edo izan eremu publikoak -parkea, esaterako-. Hau da, drogen salmenten eta kontsumoa-ren katean dauden pertsonen

artean, zaugarrienak eta erra-zenak kolpatzea. Eskualdeak ikusitako operazio ia guztiek jo dute herritar xumeen kontra eta ez, inondik inora, droga-saltzaile handien edota negozio horren dirua zuritzen dutenen aurka. Are gehiago, jazartu den droga kontsumoa izan da bistakoena (kalamuarena), eta bestelakoak (kokaina, adibidez) ia ukitu gabe utzi dira. Finean, kontsumitzaile batzuen kriminalizazioan sakondu da, irudikatuta horiena soilik dela arazoa. Eskala txikian, drogen aurkako gerrak Aiaraldean ez du inolako aztarna positiborik utzi. Trafikoa ez da murriztu eta, gehienez, droga kontsumitzaileak bultzatu di-

tuzte leku pribatuetara kontsumitzaera -ahal dutenek, jakina-. Horrez gain, jadanik existitzen ziren estereotipoak indartu dira -jende gaztea soilik, edo zenbait jende gazte dela arazoak dituen drogekin- eta irtenbiderik ez da eskaini, errepresioa baino ez. Horri gehitu behar zaio batzutan sarekadek bat egin dutela une kritikoekin -esaterako, David Hernandez *Fabi*-ren heriotza salatu zuen manifestazioarekin- eta susmoak piztu dituztela zenbait herritarren artean. Izan ere, askok salatu dute maiz drogen aurkako gerra batzuetan badela saiakera bestelako arazoaren garrantzia arduren lehen lerrotik kentzeko.

# Renfe berriro ere:

irisgarritasuna, atzerapenak  
eta zerbitzu kaskarra

RENFE TREN ZERBITZUA AIARALDEAN GERO ETA OKERRAGO DAGOELA ESTAEN GENUEN IAZ, ETA AURTEN BERRETSI EGIN DA BAIEZTAPEN HORI. IZAN ERE, KONPONBIDERIK EZ BILATZEAZ GAIN, ARAZOAK AREAGOTU ERE EGIN DIRA. HERRITARREK DAGOENEKO MOBILIZATZEARI EGIN DIOTE

Testua: **Oihane Ozaeta Fernandez**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Aiaraldeko eta Bizkaiko pentsiodunen mugimenduak sentsibilizazio-kanpaina berria eta askotariko ekimenak prestatu dituzte aurten, mugikortasun urriko pertsonak Renferen Aldirietako C-3 lineako trenetara igo ahal izateko.

Maiatzean eta ekainean herritarrei irekitako kanpaina egin zuten, Renfek neurri egokiak har zitzan eta unitate bakoitzeko bagoi batek, gutxienez, sarbide irisgarria izateko. Horrekin batera, mozioak aurkeztu zituzten tren-linea hori igarotzen den udalerritan, eta eskaera horren alde agertu ziren Amurrio, Urduña, Laudio, Ugao eta Arrigorriagako Udalak. Era berean, hainbat herritan sinadurak

bildu zituzten ekainaren 17an, geltokietan aurkeztu ziren norbanakoen erreklamazioei eransteko.


Pentsiodunen mugimenduak azaldu duenaren arabera, "Renfeko arduradunek behin baino gehiagotan adierazi dute arazo hori konpontzeko prest daudela aurreikusita dituzten tren berriekin, baina beti zehaztu gabe noiz jarriko diren martxan".

Urrian tren modelo irisgarriagoa probatzen aritu ziren Bilboko Aldiriak zerbitzuan, Tren modelo berria (Civia 464 izenekoa) C-1 eta C-2 lineetan probatu zituzten (hau da, ez Aiaraldeara heltzen den C-3 linean), baina ariketa horien bitartez argitu nahi dute zein aldaketa

behar dituzten Civia 464 modeloek Bilboko Aldiriak zerbitzura egokitzeko.

Testatzen ari diren unitate horiek ez dira, berez, berriak. Maiatzean iturri sindikalek aurreratu zuten moduan, Bartzelonan egun funtzionamenduan daudenak dira eta jadanik hamabost dituzte. Sindikatuen iturriek iragarri dute, dena den, bost urte barru helduko direla unitateak Bilbora eta orduan 20 urte inguru izango dituztela. "Nahiko zaharkituta egongo dira", iritzi du sindikatuetako kide batek.

Pentsiodunek, haien aldetik, Renfeko trenen irisgarritasuna aldarrikatu zuten Espainiako Go-





bernu Ordezkaritzaren aurrean azaroaren 4an. Bertan utzi zuten irisgarritasuna bermatzen duen zerbitzu publikoa exijitzen duen eskutitza, Oscar Puente Ministroarentzat.

Bestalde, EAJK Urduña eta Bilbo arteko aldiriko trenetan gutxienez bagoi irisgarri bat jar dezala eskatu dio Espainiako Gobernuari. EAJK egin zuen proposamena eta aho batez onartu zuten, ERC, EH Bildu, PP eta PSOEren emendakinak gehituta. Horrela, Urduña eta Bilbo arteko tren irisgarriak 2025eko azken hiruhilekorako prest egotea eskatu dio Senatuak Espainiako Gobernuari. Gauzak hala, ikusteke dago Espainiako Gobernu

epe hori urtebetera murrizteko gai izango den edo, kontrara, bagoi irisgarriak jarri beharko dituen behin behineko alternatiba gisa.

#### **Betiko leloaren betiko leleoa**

“Atzerapenak daude Renfeko zerbitzuan”, edota “renfe tren zerbitzuak kentzen ari da”, gehiegitan irakurritako titularrak dira. Gero eta sarriago egiten dugu topo problematika horrekin, ia normalizatzeraino, izan tren-sareko komunikazio sisteman matxura gertatu delako, arrazoi operatiiboengatik, gidarien gabezia dela eta, matxura bat tarteko edota arrazoirik gabe trenen eskaintza eten egiten dutelako.

***Uztailean Renfe tren zerbitzuak kentzen aritu zen jakinarazpenik gabe, 15 eta 30 minutu bitarteko atzerapenak sortuta***



Ohiko matxurez gain, bestelako arazoak ere egon dira aurtan. Apirilean, esaterako, Renfeko mantenu langileek 10 eguneko greba egin zuten Ollargango tailerren kudeaketa txarragatik. C-3 lineako trenen mantenua egiten duten langileek salatu zuten azpiegiturak ez direla egokiak, eta pieza zein behargin gehiago behar direla zerbitzu egokia eskaintzeko.

Maiatzean astebetetz 200 tren zerbitzu gutxiago egon ziren. Izan ere, gidari nahiko egon arren, gerentziak txarto kudeatu zituen lan-orduak eta horregatik murriztu zen zerbitzua zazpi egunetan. Hain zuzen, gerenteek erabaki zuten lau hilabetetan orekatzea iaz gidariak egindako gehiegizko lanaldiak. Ondorioz, nahiz eta "inoiz baino makinista gehiago egon", ez zituzten zerbitzu guztiak eskaini.

Sindikatuak adierazi dute egoera aurreikusi zutela, baina konpainia publikoko arduradunek ez zirela jaramonik egin.

Uztailean Renfe tren zerbitzuak kentzen aritu zen jakinarazpenik gabe, 15 -30 minutuko atzerapenak sortuta. Geltokietako langileek Aiaraldea Komunikabideari azaldu ziotenez, trenen eskaintza eten zen, baina ez dakite zergatik. "Bat-batean mezu bat jasotzen dugu, zeinean esaten diguten hurrengo trena ez dela igaroko", argitu du behargin batek. Berez, bozgorailuen bitartez zabaldu zen mezu batek aipatzen zuen matxura baten ondorioz jazotzen ari zela atzerapena, baina langileek ezin izan dute hori egiaztatatu.

Renfeko erabiltzaileek egunero jasan behar dituzten ohiko eragozpen eta oztopoak dira horiek.

***Mobilizazio ugari egin dituzte pentsiodunek azken urteetan, tren-zerbitzu irisgarri bat aldarrikatzeko***

Urte hasieran Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak zabaldu zuten Renfe aldiriko zerbitzua EAEko erakundeen esku geratuko zela eta, iragarpen horren harira, EH Bilduk exijitu die Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari "propaganda alde batera uzteko" eta C-3 linean inbertsioak egiteko.

EH Bilduk uste du berria pozgarria dela, "nahiz eta 40 urte berandu dena, aipatu du eskumenen transferentzia ezin dela aitzakia izan C-3 linean egin behar diren hobekuntzak gelditzekeo.

Gazteek, haien aldetik, Aiaraldea komunikabidean nabarmendu dute haien bizitzak duintasunez aurrera eramateko beharrezko zerbitzu bat dela garraioa. Aiaraldeko gazteek garraio publikoa egunero erabiltzen dute eta honen egoera prekariora jasan behar dute uneoro. "Renfe C-3 aldiriko trenen egoera kaxkarra da, eta inbertsio milioidunak saltzen dizkiguten arren, egunero-kotasunean aldiriko zerbitzuak ez ditu gazteen beharrak asetzen". Astebururo herriz-herriz joateko ordutegi ratioa murriztea, gaueko trenak ezabatu izana edota azken orduan tren zerbitzua bertan behera uztea egoera horren adibide garbiak dira.

## Urduña eta Bilbo arteko tren irisgarriak 2025eko azken hiruhilekorako prest egotea eskatu dio Senatuak Espainiako Gobernuari



**ENKARKI**  
ALQUILAMOS SOLUCIONES · VENDEMOS SERVICIO

### MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

Eraikuntza, industria, ekitaldiak,  
lorenzaintza eta garbiketa



**Marisa Fernandez Diego**  
Artziniegako erizain ohia

# Erizain baten iritziz

Erizaina naiz, duela gutxi erretiraturia, berrogeita bi urte luzeren ondoren. 1979. urtean hasi nintzen, landa-eremuan lanean. Garai hartan ez zegoen erizainik herri hauetan, eta norbaiti otu zitzaion beharrezkoak zirela. Beharrezkoa zela formazioa eta zaintza eskainiko zituen emakumezko figura kontsolatzaile hori, garai hartako ekipo medikoa osatzen zuen irudi maskulinoaren aurrean.

Gaur egun hirugarren munduko herritzat joko genituzkeen hornitu gabeko herrietatik, lokalak, materialak, tresneria, erizain trebeak eta gehienak emakumezkoak diren medikuak dituzten herrietara igaro gara. Atzean utzi berri dudan unitatean, emakumezko medikuak % 73,3 dira, eta gizonezko, aldiz, % 26,6. Zer esanik ez erizainen ehunekoari buruz, emakumeak gara, oro har, pazienteei arreta emateaz arduratzen garenak. Uste dut oso garrantztsua dela emakumea lan-munduan sartzeak izan duen eragina, eta "mugimendu" horrek gure gizartean alderdi askotan izan dituen eragina.

Lehen Mailako Arretan lan egiteko modua, osasuna zentzurik zabalenean ikusteko modua... aldatuz joan da. Gaur egun, heziketa komunitarioa egiten da, prebentzioa, txertaketa, esku-hartze sozialak, gaixotasun kronikoen kontrola, tratamendu aringarriak, terminalen zaintza. Hori guztia egiten da, baina eskaria aldatu egin da. Prestazioaren hurbiltasunak, handitu egin du, baita prozesu arinetarako ere osasun zentroetara hurbiltzeko joera; gure amonek eta amek medikuarengana jo gabe konponduko lituzketen kontuak.

Osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozia-

la da, eta ez bakarrik gaixotasun eza. Gure kontsultetara beste egoera batzuk iristen dira, gure pazienteak beste ikusmira batekin artatzera behartzen gaituztenak. Pentsamolde zabalagoarekin: egoera soziala, lan-prekarietatea, soldata txikiak, familia bateratzeko arazoak, adinekoak etxean zaintzea (egoitzetako plaza-defizita), gainkarga emozionala, lan-absentismoa... Finean, gaur egun dena ez dela klinikoa.

Azken urteetan, longitudinal hitza erabili duten autoren asko hori definitzeko. Niri korapilotsu samarra egiten zait, eta ia nahiago dut jarraikortasuna. Jarraikortasun horrek harreman estuak, konfiantzazkoak eta elkar ezagutzan oinarritutakoak lortzen ditu. Lehen mailako arretan, eta bereziki, hain ondo ezagutzen dudan landa-eremuan, ezinbestekoa da. Funtsezkoa eta onuragarria da pazientearentzat, profesionalarentzat, osasun-sistemarentzat eta gizarte osoarentzat.

Pazienteari ez zaizkio aldaketak gustatzen, profesional bera aurkitu nahi dute beti. Dena, edo ia dena kontatu, dioten hori. Ez dute beste profesional batekin berriro hutsetik behar izatea nahi.

Logitudinaltasunak lehen mailako arreta definitzen du. Hemen pazienteak mantendu egiten dira eta gaixotasunak aldatzen dira. Beraz, Lehen Mailako Arreta gizabanakoan zentratzen da, ez gaixotasunean.

Lehen Mailako Arretako lana ez da beti kodifikagarria; batzuetan, gure informazioa urteetan zehar sortutako harreman batetik dator, intimitate- eta konfiantza-giro batean sortua. Batzuetan pazienteak etorri, hitz egin eta joan egiten dira. Kontzea betserik ez zuten nahi, hitz egitea, iritzia eskatzea, barrenak hustea. Horrega-



tik esaten dute, apaiz edo psikologo lanak egiten ditugula... Haien mediku, haien erizain propiotzat gaitzue, eta nik uste horrek esanahi handia duela-

Gure pazientea ezagutzen dugunean, zalantza gutxiago sortzen zaizkigu, gida gutxiago erabiltzen ditugu eta, agian, ez dugu hainbeste proba osagarriren beharrik. Aurpegiari eta keinuei, ahots-tonuari eta gorputz-hizkuntzari erreparatzen diegu. Beharbada, duela gutxi gertatu zaion zerbait kontatu digute, eta, horregatik, gure historia klinikoa osatuagoa da.

Gugan jartzen duten konfiantza gure erabakiekiko errespetuan islatzen da. Gugan konfiantza dute, tratamenduak hobeto betetzen dituzte, ez dira ospitaleko larrialdietara joaten. Ikerketa batzuen arabera batzuen arabera, heriotza tasa hobetu egiten du. Beraz, lehen mailako arretan profesional on eta iraunkorrek izatea hil ala biziko kontua da.

Hala ere, honek ere badu bere alde iluna, eta batzuetan osasun-langileok erasoak jasaten ditugu desadostasunengatik

Beno, orain 01 /..... zenbakia bilakatu naizenez, nik ere osatu nahi dut nire desioen zerrenda:

-Osasun-langileen lanpostuaren egonkortasuna eskatzen dut, kontratua egonkorragoak.

-Burkorazia egiteari utzi diezaioten eskatzen dut, Lehen Mailako Arreta egiin dezaten.

-Kudeatzaile edota bigarren mailako lankideek medikuari autoritaterik ez kentzea eskatzen dut

-Herritarrei eskatzen diet ez nahastea irisgarritasuna eta berehalakotasuna. Horrela agendak gainezka egitea saihestuko dugu, eta pazientearen segurtasuna hobetu.

-Medikuak eta erizainak artatzea eskatzen dut.

-Babesik handiena eskatzen diot Lehen Mailako Arretari.

-Murrizketarik gabeko Osasun Publikoa eskatzen dut.

Eta Gabonetan gaudenez, hau da Olentzerori gure desio guztiak egia bihur daitezela eskatzeko unerik egokiena.

ZORIONAKI!





**Energia dosi handia ekarri dio Korrikaren 23. edizioak Aiaraldeko euskalgintzari. Martxoaren 22an eskuz esku igaro zen lekukoa eskualdeko milaka euskaltzalaren babesari esker. Orduan bildutako indarra urteko**

# *Aiaraldea euskaldun eta harro*



erronkei aurre egiteko izan da. Amurrioko Udalaren auziak euskalgintzaren agenda markatu du nahitanahiez, baina egon dira hizkuntzaren biziberritzearen aldeko ekimen eta mugarri ugari ere.

# Euskararen aldeko mugarría

## Udalaren erantzunaren zain

AMURRIOKO UDALAK URTE HASIERAN KENDU ZION DIRULAGUNTZA AIARALDEA KOMUNIKABIDEARI. ORDUTIK HONA URRATS UGARI EGON DIRA, EKAINEAN EGINIKO AGERRALDIAREN MUGARRIA BARNE, BAINA EGOERA EZ DA BIDERATU ORAINDIK.

Testua: **Txabi Alvarado Bañares**  
Argazkiak: **Aiaraldea.eus**

Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabideari kendutako dirulaguntzaren auzia izan da, seguru aski, euskararen esparruan eskualdean 2024an jazotako gertakariarik esanguratsuenetakoa bat. Dena den, logikoa da guk, Aiaraldea Komunikabidetik, hori horrela ikustea, gure jarduna erabat baldintzatu duen gaia izan baita Amurrioko Udalarena, onerako zein txarrerako. Txarrerako, energia eta denbora asko kendu digulako tokiko erakundearekin borroka dinamika batean sartzeak. Eta onerako, komunikabideak jaso duen elkartasun olatuak pilak erabat kargatu dizkigulako aurre egiteko.

Bihurgune ugari izan ditu auziak azken hilabeteetan. Beraz, hurrengo lerroetan saiatuko gara gertakari eta titular nagusiak laburbiltzen, gaian zerotik murgildu

nahi duen irakurleak krokis osoa izan dezan.

Goazen hasierara: Maiatzaren 24an jakinarazi genuen Amurrioko Udalak 12 urtez indarrean egondako dirulaguntza kendu ziola eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari, egun batetik bestera eta aurretik inolako jakinarazpenik eman gabe.

Berez, bide ez-ofizialeatik jaso genuen erabakiaren berri, apirilean. Udalarekin harremanetan jartzeko saiakeretan igaro genituen hurrengo asteak, bilera bat egiteko eskatuz. Gaur gaurkoz, oraindik ez dugu Udalaren partetik inolako jakinarazpen ofizialik jaso, eta alkateak hainbat aldiz egin dio uko biltze hutsari.

### Euskararen aurkako erabakia

Egoera hori ikusita, auzia plazaratu publikora eramatea erabaki

**Amurrioko Udalak behin baino gehiagotan egin dio uko eskualdeko euskara hutsezko komunikabide bakarrari kendutako dirulaguntzaren auziaz hitz egiteko biltze hutsari**

# Amurrion euskaraz bizi nahi dugu!

#EuskarazkoKomunikabideenAlde

AIARALDEA

AIARALDEA FAKTORIA

K

O

Z

M

U

A

Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu dio eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari

AIARALDEA FAKTORIA



Ekainaren 21ean Amurrioko Udalarearen aurrean eginiko agerraldi jendetsua izan zen auzi honetako mugarriz garrantzitsuenak.

genuen. Txakolin Eguna baliatu genuen horretarako. Amurrioko hainbat bazkide eta boluntariok esker, eskuorri eta kartelen bidez salatu genuen Udalak euskararen aurka hartutako erabakia. Bai, euskararen aurkakoa. Gaztekeraz esaten den moduan, zuhaitzak ez dezala basoa ezkutatu. Euskararen aurkako erabakiak bata bestearen atzetik joan dira Txerra Molinuevok alkate makila hartu zuenetik. Amurrioko Udalak uko egin dio Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak euskararen alde planteatutako azken ekimenetan parte hartzeari (Euskararen Semaforoan, jaietan euskara sustatzeko dinamikan edota udal hauteskundeetan konpromiso zehatzak hartzeko planteamenduan, besteak beste).

Horrez gain, euskararen teknikari lanpostua udal langileen zerrendatik ezabatzea erabaki zuen iaz, azkenean presio sozialagatik

atzera egin zuen arren. Aurtetik, aldiz, langileen euskara profil derriortasuna kendu du Amurrioko udal kirol guneen kudeaketarako lizitazio publikotik.

Hori guztia salatzeari ekin genion udaren atarian, euskarazko komunikabideen aldeko atxikimendu kanpaina abiatzearekin batera. Bilera maratoia abiatu genuen Amurrioko ehun sozial eta ekonomikoko zein kultur edota kirol elkarteetako ordezkariekin. Baina Udalak ere ekin zion bere fitxak mugitzeari: kontaktu erronda propioa abiatu zuen herriko elkarteekin, bere bertsioa plazaratzeko, eta Aiaraldea Komunikabidearen kartelak kentzeko agindua eman zuen, Komunikabideko kideok hainbat iturritatik konprobatu ahal izan genuenez.

### Udalaren iritzia

Gelditu dezagun kontakizuna tarte batez, gauza inportante bat

**Aiaraldea Komunikabideari dirulaguntza kentzea Amurrioko Udalak euskararen aurka hartutako hainbat erabakiren segida da**

utzi baitugu tintontzian. Zein zen Udalaren bertsioa gai honetan guztian? Tokiko erakundeak bi aldiz baino ez du adierazpen publikorik egin afera honen inguruan. Lehen aldia maiatzean bertan izan zen, albisteak hedabideetara salto egin eta biharamunean. Argudio nagusi bat plazaratu zuen bertan Amurrioko Udal Gobernuak prentsa ohar baten bidez: Aiaraldea Komunikabidea “enpresa pribatu” bat dela eta “lehia desleiala” egiten diela herriko gainontzeko negozioei, gainontzeko “tokiko ekintzaileek” ez dituztelako horrelako dirulaguntzak jasotzen.

Aiaraldea Komunikabidetik analisi luze batekin desmuntatu genituen ohar horretan plazaratutako argudio guztiak. Ez dugu azalpen berdina berriro emango, urtekari honetan dagoen espazioa mugatua delako; baina, oso modu eskematikoan laburbiltzeko:


1) Aiaraldea Komunikabidea gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko kooperatiba da (aitortza hori eman dio Eusko Jaurlaritzak). Irabazirik izatekotan proiektuan berrinbertitzen da, eta Udaletatik jasotzen duen dirua komunikabidean jarduna finantzatzera bideratzen ehuneko ehunean.

2) Komunikabidearen jarduna ez da ekonomikoki errentagarria. Kooperatibak urtez urte jarri behar du dirua defizita estaltzeko, eta beste toki batzuetatik eskuratu behar du finantziazioa, bazkideen kuoten bidez edota bestelako zerbitzuak eskainiz, besteak beste.

Eta 3) Irabazi asmodun enpresek dirua jasotzen dute Amurrioko Udalaren zein bestelako erakunde publikoen partetik.

Udalak ez zien kontra-argu-

## 1.700 eragile eta norbanako baino gehiagok eskatu diote Amurrioko Udalari dirulaguntza berrezartzea





1.700 norbanako eta elkarte baino gehiagoren atxikimenduak aurkeztu ziren ekainaren 21ean eginiko agerraldian.

dio horiei erantzun, eta ez zuen bestelakoa adierazpenik egin, irailera arte. Hilabete horretako Udal Osoko Bilkuran EH Bilduren taldeak galdetu zion alkateari ea zergatik ez zen Aiaraldea Komunikabidearekin bildu ere egin. Hau izan zen, hitzez hitz, Txerra Molinuevoren erantzun osoa: “Jada eman genien gaiari buruzko iritzia. Aiaraldea enpresa pribatu bat da eta ez du ezta... esan zitzaizen ez gurela eurekin bildu behar, ez gurelako ulertzen zertarako bildu behar ginen. Eurek egin dute... nahi dutena kontatu dute... baina tira, berriro errepikatuko dut: Aiaraldea enpresa pribatu bat da”. Udalaren bertsioa azalduta, jarrai dezagun kronologiarekin.

### 1.700 pertsona baino gehiago

Udaren atarian abiatutako atxikimendu kanpainak bere goia jo zuen ekainaren 21ean. Agerraldi jendetsua egin zen egun horretan Amurrioko udaletxearen aurrean, euskarazko komunikabideen alde. 1.700 eragile eta norbanako baino gehiagoren atxikimenduak aurkeztu ziren bertan, Amurrioko 500 elkarte eta norbanako baino gehiagorenak tartean.

Patri Pinedo eskubaloi jokalaria ohiak eta Manolo Plazak (Amurrioko Olentzeroa) irakurri zuten manifestua, eta hainbat eskaera egin zizkieten Udalari. Alde bate-tik, “elkarlana estutzea” udalerriko zein eskualdeko euskalgintza-aren eragileekin, “eragile aktibo” bilakatzeko “euskararen bizibe-

**Egoerak blokeatuta jarraitzen du gaur gaurkoz. Abiatzen saiatu garen bitartekaritza prozesuak ez du emaitzarik izan orain arte**





rritzearen prozesuan". Bestetik, Aiaraldea Komunikabidearekin biltzea, bi entitateen arteko elkarlana berriz abiatu eta normalizatzeko, dirulaguntza berrezartzeko eta babes ekonomiko horren zerbatekoa eguneratzeko, "eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz".

Agerraldian uda amaierara arte eman zitzaion Udalari planteatutako eskaerei erantzuteko epea. Spoiler: ez zuen egin. Are gehiago, berriz uko egin zion biltze hutsari.

Egoera ikusita, eskua luzatuta jarraitzea erabaki genuen Komunikabidetik, eta beste bide bat jorratzea erabaki genuen. Amurrioko Udalarekiko gatazkan bitartekaritza lanak egiteko eskae-

ra luzatu genion Josune Irabieni, Eusko Jaurlaritzako Euskara Zuzendari izendatu berriari. Uste genuen (eta uste dugu) bera dela funtzio hori betetzeko pertsonarik aproposena. Zergatik? Bada Euskara Zuzendari bezala dituen arduren artean kokatzen delako euskarazko hedabideak indartzeko eta sustatzeko ekimenak bultzatzea eta ezin hobe ezagutzen duelako Amurrioko errealtatea, bertako alkate izan zelako 9 urtez. Berak sinatu zuen 2012an Aiaraldea Komunikabidearen hitzarmena, eta berak pasatu zion aginte makila Txerra Molinuevori.

### **Erantzunik gabe oraindik**

Gauzak hala, bitartekaritza hori garatzeko saiakeretan igaro dugu

urtearen azken zatia. Egon dira bilera informalak, Komunikabideak aterabide posibleak jarri ditu mahai gainean... baina, gaur gaurkoz (urtekari hau inprentara bidaltzen ari garen unean) esan dezakegu prozesu horrek ez duela momentuz inolako emaitzarik izan, Udalak ez dielako erantzun ere egin planteatutako proposamen eta alternatibei.

Hala ere, eskuak luzatuta jarraitzen dugu. Gainontzeko instituzio publikoak bezala, 2025eko aurrekontuen prestaketan murgilduta dabil uneotan Amurrioko Udala. Badu aukera, beraz, egoera bideratu eta Amurrioko 500 bizilagun eta elkarte baino gehiagok eginko eskaerari behingoz erantzuteko.

# Enbor sendoagoa, adar gehiagori eusteko

HEZKUNTZA, KIROLA, POLITIKA INSTITUZIO-  
NALA... ESPARRU ASKOTARA ZABALDU DIRA  
AZKENALDIAN AIARALDEKO EUSKALGINTZA  
KONTSEILUAREN ADARRAK. HORRI AURRE EGI-  
TEKO, BERE EGITURA SENDOTU DU ESKUALDE-  
KO ERAGILEAK AURTEN.

Testua: **Txabi Alvarado Bañares**

Argazkiak: **Aimar Gutierrez Bidarte**

Atzetik datorren kontua da, baina aurten nahiko modu argian ikusi ahal izan da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren adarren aniztasuna. Kirolean, hezkuntzan, politika instituzionalean... esparru askotan jarduten du duela zortzi urte sortutako eragileak, eta fruituak lortzeari ere ekin dio.

Tresna berri bat plazaratuta hasi zuten urtea Kontseiluko ki-deek: Euskararen semaforoa. Hizkuntzaren presentzia neurtzeko sistema bat proposatu zuten, eta hori erabiltzeko gonbita luzatu zieten eskualdean ekitaldiak antolatzen dituzten eragile guztiei.

Ordutik hona, hainbat instituzio publikok zein elkartek bere egin dute tresna, eta kartel, programa zein bestelako euskarrietan erabiliz.

Udaberrian, herrietako jaiei begira jarri zen Kontseilua, Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamika aurkeztuta. Audio, Urduña, Orozko, Artziniega, Aiara eta Arrankudiaga-Zolloko Udalek egin zuten bat ekimenarekin, festetan euskara sustatzeko hainbat neurri adostuta. Txosnetarako hizkuntza irizpideak, ekitaldietan esatari euskaldunak bermatzea, ostalarientzako gomendioak edota Eus-

kararen Semaforoaren erabilera bera adostu zituzten, besteak beste. Otxomaioetan egin zuten lehenengo proba, eta talka izan zuten Bihotza Konpartsarekin. "Euskara baztertzea" eta txosnen arautegia ez betetzea leporatu zion Kontseiluak hiriko eragileari.

## Udaletan lanketa

Instituzio publikoetan ere eman dituzte urratsak. Iaz EH Bilduk, Elkarrekin Podemosek, Orain Amurriok eta Okondo Aurrerak hartu zituzten euskararen aldeko konpromisoak, Bai we can kanpainaren barruan eta udal eta foru





hauteskundeen testuinguruan. Aurten, aldiz, beste bi talde batu dira: Omnia eta Orozkoko EAJ, herriko alkatea barne.

Baina lorpenak ez dira horretara mugatu. Elkarlan estua erdietsi du Kontseiluak eskualdeko zenbait Udalekin, eta horren fruitua izan dira Laudioko Udalaren Hizkuntza Politikaren Diagnostikoa (Euskal Herriko Euskalgintzaren Kontseiluak garatutakoa) edota Orozkon zein Arrankudiaga-Zollon une honetan garatzen dabiltzan euskara sustatzeko plan estrategikoak.

### **Gurasolekuren arrakasta**

Hezkuntzaren esparruan ere mugargi garrantzitsuak erdietsi ditu Kontseiluak aurten. Guraso-

leku ekimena da horren adibide. Ekimen hori 2021ean abiatu zen, baina inoizko izen ematerik handiena izan du aurten, 142 pertsona batuta guztira. Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo, Urduña, Laudio eta Amurriora zabaldu dute eskaintza aurten, haurreskola eta ikastetxe guztien parte hartzearekin.

Sukalde lana ere egin dute: 2022an abiatutako Hezkuntza Foroak ez du titularrik eman aurten, baina martxan jarraitu du, eskualdeko 12 ikastetxerekin. Hausnarketa bat osatzen ari dira, datorren urtean plazaratuko dutena, eta "oso puntu inportantea" izango dena orain arteko bidean, Kontseiluko kideen esanetan.

Aipatutakoez gain, bestelako

ekimen batzuk ere antolatuta dituzte aurten. Hor daude azaroan eginiko gazte euskaltzaleen topaketan hirugarren edizioa, eliteko kirolari euskaldunek ikastetxeetan eskainitako hitzaldi-sorta edota Arrankudiaga-Zollon ospatutako Euskararen Eguna.

Geroz eta adar gehiago ditu euskalgintzaren zuhaitzak eskualdean. Horregatik, Kontseiluaren enborra ere sendotu dute, lan-taldera langile berri bat batuta. "Badago kezka, baina badago gogoia, eta baita elkarlana ere", ziurtatu zuten Kontseiluko kideek Euskararen Egunean bertan eskainitako elkarrizketan, eta aurreratu zuten aipatutako adarretako askok "fruituak" emango dituztela 2025ean zehar.



**Goiatz Urkijo Castañares**  
Euskaraldiko koordinatzailea

# Euskarak mugimendua behar du, elkar mugituz egingo dugu?

Euskaldunok bizi dugun egoera larrialdi linguistiko gisa izendatzen hasiak gara euskalgintzako eragileok. Alarma gorria sakatu dugu, baina zergatik?

Unescok dio gaur egun munduan hitz egiten diren hizkuntzen erdia mende amaierarako desagertuta egongo direla, eta euskara arrisku egoeran daudenen artean kokatzen du.

Euskararen ezagutza goranzko bidean badago ere, erabileran goia jo dugun sentrazioa dugu. Hiztun askok euskaraz eroso jarduteko gaitasun kamutsa du eta eremu euskaldunetan galerak ematen ari dira. Gauzak ezberdin egiten hasten ez bagara, atzera egiteko arriskua daukagu.

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako zati handiengan euskara hizkuntza ofiziala ez izateak ere ondorio larriak dakartza. Eta hau gutxi balitz, azken aldian bizi dugun oldarraldi judizialak erakutsi digu euskara ofiziala den eremuetan ere, euskara biziberritzearen aldeko lege babesak arrakalak dituela.

Globalizazioak eragindako korrante homogeneizatzailea hizkuntza gutxitu eta txikien kontrako norabidean dator, eta bizimoduaren digitalizazioaren eraginez, geroz eta modu indartsuagoan kolpatzen ari da hegemonikoak ez diren hizkuntzak, kulturak eta herriak.

Baina baditugu larrialditik indarraldira jauzi egin dezakegula sinesteko arrazoiak. Honakoa ez da euskara

eta euskaldunok egoera larrian egon garen lehen aldia. Honaino iritsi bagara, euskaldunon kemenari eta bizinahari esker izan da. Gure tokia bilatzen jakin izan dugu. Eta hala egin dugu badakigulako asko dugula irabazteko: euskaraz ere bizi ahal izango den herria herri hobea izango dela; justuagoa, berdinzaleagoa, kohesionatuagoa, eta zoriontsuagoa, azken finean.

Errekan gora doan izokina bezalakoa da euskalduna, korrontearen kontra ari dena. Horregatik, alarma gorria sakatu dugu erreakzio bat eragiteko, larrialditik indarraldira igarotzeko.

Denok dugu eraldaketa honetan eragiteko aukera eta ardura; eta bide honetan bere alea jartzera dator Euskaraldiaren laugarren edizioa ere.

Euskararen erabileran eragiteko daukagun tresna-bide-modu masiboena da Euskaraldia, munduan ez da halako ekimenik inon eta inoiz antolatu. Eta gainera, eraginkorra dela frogatuta dago. Ez da kanpaina edo festa bat; ariketa soziala da, erronkan jartzen gaitu. Ezinbestekoa da, baina ez nahikoa.

Baina berebiziko garrantzia du, premiazkoa delako erabilera sustatzen jarraitzea. Azken hamarkadatan euskararen ezagutza hedatzea lortu dugu, baina hori ez da nahikoa: hiztunak aktibatu eta euskara erabiltzea da, hizkuntzaren normalizaziorako behar nagusia.

Horregatik, ez dugu nahi Euskaraldia egun jakinetara mugatzen den ariketa soziala izatea soilik. Euskararen

erabilerak aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dugu, kaleko euskalgintza, euskaldun eta euskaltzaleak mugiarazi, dinamika soziala indartu.

Eta horren isla ere bada laugarren edizioaren leloa: elkar mugituz egingo dugu. Izan ere, euskaraz hitz egin ez, bata bestea mugitu egiten du, eta besteak bata, hizkuntza inertziak eraldatuz. Lehen hitzetik euskaraz eginda edo ahal den guztietan euskara erabilia, mugitu egiten ditugu solaskideak, eta jendartea bera. In-

terakzio bakoitzak euskararen erabilerak handitzen du, eta milaka eta milaka pertsonak batera eginda, efektu biderkatzailea lortzen dugu.

Euskarak nazio mailako ekimen masiboak behar ditu, denok batzen eta mugitzen gaituztenak. Baina horrekin batera, euskarak mugimendua behar du. Euskaraz hitz egin eta bizitzeko aukerak eta baldintzak biderkatzeko, bultzada herritar indartsu bat behar dugu, mugimendu indartsu bat.



**Berbots Euskaltegian  
bigarren familia sortu dugu.**

**25 URTE ZUEKIN,  
EUSKARAZ**

Zubiaur 5, LAUDIO  
94 672 67 22 · 663 194 177  
laudio@ae.eus · @laudioaek

**ae**





**Hauteskunde zikloa egon da agenda politikoaren erdigunean. Eusko Legebiltzarrerako zein Europako Parlamenturako bozek azken urteetako ziklo elektorala itxi dute. EAJ eta EH Bilduren arteko lehia estua utzi**

# *Hauteskunde zikloa itxi da*



dute azken hitzordu elektoralek. Orain, emaitzak patxadaz aztertze-  
koa da. Ezustekorik ezean, Aiaraldeko bizilagunak ez dira 2027ra arte  
hautetsontzietara hurbilduko.

# Hauteskunde zikloaren ajea pasatzeko unea

HAUTESKUNDE ZIKLO BIZIA AMAIERARA IRITSI DA. 2027RA ARTE EZ DITUZTE BERRIRO ZABALDUKO HAUTESLEKUAK ESQUALDEAN. AURTENGO BI HITZORDU ELEKTORALEK LEHIA ESTUA UTZI DUTE EAJ ETA EH BILDUREN ARTEAN. EMAITZAK PATXADAZ AZTERTZEKO UNEA DA ORAIN.

Testua eta argazkiak:

**Aimar Gutierrez Bidarte**

Bukatu da hauteskunde zikloa. Ez hain aspaldi hain ohikoak ziren *plot-twist* politikorik ezean, Aiaraldeko bizilagunek ez dute 2027ra arte hautetsontzietara jo beharko. 2023ko Udal eta Foru hauteskundeen eta Espainiako hauteskunde orokorren ondotik, Eusko Legebiltzarreko zein Europar Parlamentuko ordezkariak hautatzeko urtea izan da aurtengo.

Aiaraldeko maparen kolore politikoa aldatuz joan da, eta agerian utzi du alderdi abertzaleen nagusitasuna. Gainera, bi alderdi horien arteko aldea nabarmen

murriztu da azken urteetako hauteskunde prozesuetan, eta EAJ eta EH Bildu inoiz baino berdinduago daude eskualdean orain.

## 42 boto

42 botoko aldea atera zion EAJk EH Bilduri apirilaren 21ean ospatutako Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan; 8.413 eta 8.371 boto lortu zituzten, hurrenez hurren. Laudion gertatu zen berdinketa tekniko horren adibiderik argiena, non bi indarrek boto kopuru berbera jaso zuten: 3.327.

Ohikoa izaten da, hauteskunde

osteko aje betean, alderdi guztiek garaile plantak egitea. Baina, paradokikoa dirudien arren EAJK zein EH Bilduk dute zer ospatu eskualdean apirilean erdietsitako emaitzetatik. Jeltzaleek lehen indarra izaten jarraitzen dute Aiaraldean, eta ez dute nozitu 2020ko hauteskundeekiko EAE mailako boto galera. Hartara, botoetan ere gora egin dute, apalki bada ere, 108 boza berri eskuratuta.

EH Bilduk, aldiz, azken urteetako gorakada etengabearen bidean jarraitu du azken hauteskunde hauetan ere. Duela lau urte baino 2.072 boto gehiago







jaso ditu, eta EAJri hegemonia lehiatzetik oso gertu aurkitzen da. Amurrion, esaterako, EAJ garaitzea lortu zuten subiranistek.

### **Aiaraldearrak Legebiltzarrean**

Guztira hemeretzi ziren Eusko Legebiltzarrerako Arabako eta Bizkaiko zerrendetan aurkezten ziren Aiaraldeko ordezkari politikoak. Hauteskunde gauak zerrenda doitu, eta bost izan ziren azkenean jarlekua lortu zutenak. Horien artean aurkitzen zen Julen Arzuaga aretarra, baina urrian iragarri zuen legebiltzarkide izateari utziko zio-la, 12 urteko ibilbidearen ostean. Gauzak horrela, Ander Añibarro eta Jonatan Moreno jeltzaleak eta

EH Bilduko Eba Blanco eta Lamia Arcas dira eskualdeko ahotsa Gasteizko parlamentuan datozen lau urteetarako.

### **Eskuin muturra**

Ekaineko europar hauteskundeek argazki desberdina utzi zuten Aiaraldean. Orduko hartan bai, EH Bilduk EAJK baino boto gehiago lortu zituen, baina garai-pen horren esanahi politikoa neurrian hartu behar da. Eta, EAJren gainbehera nabarmena izan bazen ere, %47ko abstentzioak eta espainiar alderdien polarizazio biziak, zaildu egiten du ondorio demoskopikoak ateratzea. Ezbairik gabe, ordea, espainiar ezker

konfederalaren porrota izan da Europar hauteskundeetatik atara daitekeen ondorio argiena. Sumar eta Elkarrekin Podemos alderdietan banatuta agertu ziren ekaineko hauteskundeetara; eta biek gaur lortutako botoen batura ez da dela lau urteko emaitzara iristen. Kontrara, eskuin muturrak gorakada islatzeko baliatu zituen ekaineko hauteskundeak Aiaraldean ere. VOXek bikoiztu egin zuten 2019an lortutako boto kopurua, eta Se Acabó La Fiesta zerrenda ultraeskuindarrak ere 206 boza metatu zituen eskualdean. Tentuz jarraitu beharreko igoera, politika elektoralaren planotik kanpo ere arreata berezia eskatuko duena.



**LAUDIO  
UDALA**

*Babestutako  
edukia*

# Laudioko

## 2024ko mugarriak

### Udalaren balantzea

URTE BIZIA IZAN DA AURTENGOA LAUDION. LAUDIOKO UDAL GOBERNUAK EZARRITAKO GOBERNANTZA EREDU BERRIAK HERRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATU DU. UGARIAK IZAN DIRA 2024KO MUGARRIAK, ETA UDALERRIAREN ERALDAKETAN SAKONDU DUTE.



***Aurrekontu  
kolaboratiboak.  
Helburua  
herritarrek Laudion  
gidatzen diren  
ekintzen erdigunean  
kokatzea jarraitzen  
du izaten.***

***Tokiko Batzarra  
eta Kontseilua.  
Herri osoko  
ikusmira duten  
partaidetzarako  
guneak eratu  
dira, auzokako  
antolaketa  
historikoa  
osagarrituz.***





**Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Egitasmo berria elikatu duen inoizko inkestarik zabalena bideratu da, datorren urtean ezagutzera emango den arrurapen agirian islatuko dena.**



**Next Generation funts europarrei esker, Abastos Plazak hartzen duen espazioa birplanteatzea lortu dugu, lehen sektoreak behar duen espazioa emanez.**

**Tokiko abeltzainek eta harakinek gaur egun bizi duten egoera zaila arintzeko, Udalak hitzarmen bat sinatu du Bedarbide elkartearekin, sektorean Laudioaren etorkizuna eta erreferentzialtasuna ziurtatzeko.**





**"Zukutu Feminis-  
moa" jardunaldiak  
mugarri garrantzi-  
tsua izan dira Lau-  
diorentzat, Udalak  
eta udalerrriak  
balio feministekin  
eta gizarte bidez-  
koago eta ber-  
dinzaleago baten  
eraikuntzarekin  
duten konpromi-  
soa sendotuz.**

**Fiskalitate  
bidezkoagorako  
eta berdeagorako  
bidea markatzen  
jarraituko  
du Gobernu  
Taldeak alokairu  
publikoko ezein  
programatan  
ez dauden  
etxebizitza hutsen  
errekarguarekin.**



**Nagusien  
jantokia.  
Proiektu honekin  
topalekuak  
sustatu nahi  
dira Laudioko  
adinekoen artean,  
sozializazioa  
bultzatzeko eta  
elikadura-ohitura  
osasungarri  
eta orekatuak  
sustatzeko.**



**Lamuzako parkea eta bere ingurua “Kultura Sortzaileen Gunea” bihurtze aldera, Laudioko Udalak prozesu parte-hartzailea bideratu du aurten kultur eragileen behar zehatzak ezagutzeko eta auzokideen ikuspegia partekatzeko.**



**Laudioarrak dira jaien egitaraua definitzen dutenak; horregatik, aurten parte-hartze sistema berri bat abiatuko da Udaletik.**





## AINIZE GASTAKAK URTE BIZIA IZAN DU LAUDIOKO UDAL GOBERNUBURU LANETAN ETA PIL-PILEAN EGON DIREN GAIEI BURUZ MINTZATU DA.

Testua eta argazkia:

**Aitor Aspuru Saez**

**Bi herritarren heriotzak gertatu dira medikuen falta egon den bitartean aurten. Zein izan da Udalaren erantzuna horri aurre egiteko?**

Lehenik eta behin, gertaera oso gogorrak izan dira eta samina eragin dute herrian. Udalaren jardue-ra bikoitza izan da. Alde batetik, familiekin harremanetan jarri gara laguntza eta babesa eskaintzeko, euren gogoa errespetatuta.

Bestetik, ulertzen dugu gertaera horiek ikuspegi politiko eta soziala dutela eta ondorio batzuk atera behar direla. Egindako lehen gauza Gotzone Sagardui garaiko

sailburuarekin elkartzea izan zen. Adierazi genion Osakidetzak duen egoerak zer nolako ondorio larri izan dituen Laudion. Halaber, neurriak hartzeko eskatu genion.

Bide batez, komunikazioa eskatu genion anbulatorio berriari dagokionez. Kasu batean zein bestean, ez genuen konpromisorik lortu bere aldetik. Horrez gain, Arabako eta Bizkaiko Medikuen Elkargoekin bildu ginen eta Laudio zein Amurrioko larrialdietako langileekin, egoeraren irudi osoa izateko. Herri mugimenduak sinadura bilketa abiatu du eta guk errespetatu dugu, medikuen fal-

tari jarraipena eginda eta Osakidetzari dagozkion neurriak ezartzea eskatzen.

**Zein da antzokiaren eta Abasto plazaren obren egoera?**

Biek jarraitzen dute aurrera egiten eta ez dago arazo tekniko berezirik. Espero dugu antzokia 2026ko amaieran inauguratzea. Egia da obra hasi eta gutxira gelditzeko beharra egon zela. Industketak aurreikusitakoa baino zailagoak izan ziren eta horrek eragin zuen lanen prezioaren igoera.

Orain kudeaketa ereduari buruz hasi beharko gara hitz egiten.

# *“Laudioko antzokia 2026ko abenduan inauguratzea espero dugu eta Abasto plaza 2025eko amaieran”*

Parte-hartze prozesuaren bidez erabakiko da eta helburua da Lau-dioko kultur eragileek espazio hori baliatzeko baldintzak sortzea.

Abasto plazaren kasuan aurreikuspena da 2025eko amaieran irekitzea. Hemen kezka zen eliza alboan egoteagatik hilerria egotea eta lanak atzeratzea hezurdurak agertu eta gero. Arkeologoa egon zen obran horretarako, baina ez da ezer agertu. Next Generation funtsen bitartez finantzatu-koenez, baldintza da aurtengo abenduaren 31rako lanen %60 amaituta egotea, eta uste dugu ez dela arazorik egongo horretarako.

**San Roke egoitza zaharraren birgaitzeari uko egin diozue, hori bai.**

Aipatutako bi obrak, plaza eta antzokia, obra handiak dira Lau-

dioren neurriko udalerrri batean. San Roke egoitzako proiektua ere egikaritu nahi genuen, aurreko legealdian dirulaguntza eskatu zelako. Dena den, dirulaguntza hori eskatu zuten aurreikuspen ekonomiko batzuekin eta guk proiektua erredaktatu dugunean, kostua errealistagoa da eta nabarmen garestitu da. Ondorioz, dirulaguntzak ordainduko ez lukeena gure bitartekoekin egin beharko genuke. Beste dirulaguntza batzuk bilatu genituen edo faseka egitea aztertu, baina ez zen bideragarria. Pena ematen digu, baina arduraz jokatu behar dugu udal ekonomia ez baldintzatzeko eta birgaitze hori atzeratu da.

**Omniak utzi zuen udal gobernu taldea ekainean. Nolako da orain egoera?**

Modu adostuan izan zen irteera, akordiotik. EH Bilduri dagokion ikuspegitik, aldaketak ekarri dio kudeaketa osoa bere gain hartzea, baina ordezkarien zenbakiak ez dira aldatu eta akordioen beharra genuen eta dugu. Hori onartzen dugu eta lehenesten dugu akordioak lortzea. Zinegotzi berriak sartu dira eta udal gobernu taldea eraberritua sentitzen da berriz.

**Udaltzain burua hautatzeko prozesua luzea izan da.**

Zaila eta luzea izan da, baina oso pozik gaude eta ilusio handia dugu. Oso aukera ona lortu dugu Laudiorako eta apustu handia dela sinisten dut. Ulertzen dut Udaltzaingorako lan egiteko bi esparru irekitzen dituela. Alde batetik, profesionaltasuna indartzea eta aurrerapausoak ematea. Bestetik, gertuko polizia eredia jorratzea eta aurrera egitea horrekin.

Jon Agirrebengoa Deustuko udaltzain etxeko burua izan da eta postu hori utzi du Laudiora etortzeko. Trebatua dago, jakintza dauka eta polizia eredu berria ezartzeko gaitasuna ere bai. Aldaketa ez da ikusiko egun batetik bestera, baina legegintzaldiko apustua izango da.

**Aretako gasolindegiko lanak eten dituzue.**

Zehazteko, baimenik gabe egindako jarduera batzuk gelditu ditugu, baina gasolindegia eraikitze-ko lizentziak jarraitzen du indarrean. Dena den, horren aurrean plan berezia abiatu dugu gasolindegien eraikuntza arautzeko herrian, egoera ez errepikatze-ko. Izan ere, egungo araudia oso malgua da eta aukera ematen du etxebizitzetatik gertu eraikitze-ko. Hori egoki-

tu beharra dago. Horrez gain, negoziazioa abiatu dugu herritarren, jabeen eta Udalaren beharrak asetuko duen konponbidea topatzeko.

**Arantzarreko aparkalekuko langileek protestak egin zituzten udan, nola amaituko da prozesu hori?**

Arantzarreko aparkalekuan konponbide baketsua nahi dugu. Tesuingurua da aparkaleku horretan kontratatutako zerbitzua dela ibilgailuen sarrera eta irteeren kontrola egitea, ez zaintza. Kokapenagatik, aparkalekua estrategikoa da eta probetxu handia atera ahal diogu sare industrialerako. Horretarako zerbitzuak hobetu behar

**“Gertuko polizia eredua jorratuko dugu udaltzain buru berriarekin”**

dira. Orain amaituko da lizitazio eta zerbitzu gehiago eskatuko ditugu: hesien automatizazioa eta segurtasuna dira gutxieneko baldintzak. Langileak enpresa batekoak dira, baina gu trantsiziorako bidelagunak izango gara.

**Amiantoa kendu duzue kiroldegian. Nola doa prozesu hori?**

Amiantoa agertu zen udal kiroldegiko bi tokitan. Aldageletan eta harmailen zati batean. Lehen neurria izan da aldageletakoa kentzea. udako tartea baliatu da horretarako. Harmailetan Osalane iradokitako neurriak ezarri ditugu eta prestatzen ari gara hurrengo lanak han egiteko. Hurrengo udan izango dira obrak.



## Konponbide eta proposamenen Laudiok aldaketa behar du

**Ander Añibarro Maestre**  
EAJ-PNVko zinegotzia

2024 Laudioko balantze kezkarri batekin amaitzen da. EH-Bilduk, Udalaren buru dela, erakutsi du ez duela norabide argirik eta ez duela eragin kezkarrik, eta horrek lozorroan jartzen duela udalerria. Herritarren parte-hartzea, plangintza estrategikoa eta aurrerapena agindu zituzten, baina ikusi duguna audioarren opakutasuna, paralisia eta benetako premiekiko interesik eza izan da.

EAJ-PNVn atsedetik gabe lan egin dugu alternatiba arduratsu eta propositiboak proposatzeko. Zine-zerbitzua berreskuratzetik Jesus Guridi plaza bezalako espazio publikoak hobetu edo gure gazteriarentzako baliabide berriak sortzeraino, gure ekimen guztiak baztertu ditu Laudio hobe bat eraikitzeko baino oposizioari ezikusiarrena egiteko ardura handiagoa duen gobernu-taldeak.

Gardentasunik eza eta herritarrei entzuteari uko egitea dira agintaldi honen beste arazo larri batzuk. Ez dago zinegotzien postontzirik eta ez da bizilagunen kexa askorik erantzuten. Bitartean, antzokia edo Landaluzeko birgaitzea bezalako funtsezko proiektuak mantso doaz aurrera, udalerraren etorkizuna hipotekatuz.

2025ean lanean jarraituko dugu Laudio herri inklusiboagoa, dinamikoagoa eta bizilagunekin konektatuagoa izan dadin. Laudiok aurrera egitea merezi duelako, eta EAJ-PNVn ez dugu atsedetik hartuko LAUDIO GEHIAGO ETA HOBEA lortu arte.





## Laudioko bizilagunak gure lehentasuna

**Jakinda Artaraz Martin**  
OMNIAko zinegotzia

14 urte bete ditugu Laudioko udal-talde politiko gisa, eta, zalantzarik gabe, aurtengoa izan da guztien artean zailena. Bagenekien gobernu partekatu bat ez zela inolaz ere erraza izango, eta hala ere, gure borondate eta ahaleginak jarri genituen, gure lehentasuna Laudioko bizilagunak direlako. Pentsatu genuen, gobernuan egonda, aurrera egin ahal izango genuela jorrazteko ezinbestekoak ziren gaiekin, baina legealdia hasi eta urtebetera ikusi genuen EH Bilduren kudeaketak jasanezin bihurtzen zuela gure gobernu-akordioa. Gure kudeatzeko modua eta EH Bildurena desberdinak dira. Guk parte-hartze garbiagoan sinesten dugu, horren emaitza moldatzen duen gidaririk gabe, eta talde-lanaren aldeko apustua egiten dugu, premiazko arazoak konpontzera bideratuta, Laudioko egungo eta etorkizuneko beharrei begiratzeari utzi gabe. Hala ere, gobernutik atera gara adostuta geneuzkan eta jada jorrazten ari ginen gaietan ezinbesteko akordio batzuei eutsiz, batez ere HA-POri dagokionez. Orain, oposizioan, gainontzeko gaietan (ordenantzak, aurrekontuak, etab...), gure ekarpenak egingo ditugu eta gobernuari babesa emango diogu, audioarrentzat onuragarria bada. 2025erako Ordenantzetan ikusi zen bezala, gure ekarpenak onartuak izan zirenez, OMNIAren botoa aldekoa izan zen. Oposizioko talde gisa egiten dugun lana audioarren interesak zaintzea da, horregatik gobernu honi gertutik begiratuko eta Laudiok aurrera egin dezan lan egingo dugu.



## Benetako politika egiteko egiten dugu lan

**Loli Muriel Aroca**  
PSE-EEko zinegotzia

Amaitu den urtea Laudioko PSE-EEK bere herriaren alde lan egiteari utzi ez dion urtea izan da. Ezgaitasunez eta jarduera ezarekin Udala gobernatzen duen gobernu talde batekin egin dugu topo. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, politika aurrerakoiei eutsi nahi diegu, gure bizilagunei ongizatea ekarriko dieten politikei. Inor atzean utziko ez duten politikei, jatorria, klase soziala edo ideologia politikoa edozein dela ere. Benetako politika egiteko lan egiten dugu, jendearengana iristen dena, kalean nabaritzen dena. Gure bizilagunek helarazten dizkiguten kezketatik abiatutako politika. Izan ere, nola ez, gure lehentasuna pertsonak dira.

Gure aldetik, guztien konfiantza izango duen alderdia izan nahi dugu. Gure kudeaketa da gure bermea. Izan ere, erakunde guztietan presentzia izateak baliabideak eta indarra ematen dizkigu proiektuak aurrera ateratzeko eta ongizatean irabazteko. Ez gara hitzetan geratzen. Ekintzarako alderdia gara, eta hori erakusten dugu gure proiektuak aurrera eramanez.

Laudioko PSE-EEek Laudioren alde lanean jarraitzen du. Gazteentzat etorkizuna duen herri bat nahi dugu, guztiontzako aukerak dituen, guztiok merezi ditugun erosotasun eta zerbitzuekin bizitzeko.

2025a oparotasun-urtea izatea nahi dugu gure eskualdearentzat, hazkunde-urtea gure industria eta enpresentzat, baliabide-urtea guztiontzat. Indarkeria-mota guztiak desagertuko diren urte izatea nahi dugu.

# Elkarrizketa egiteari uko egin dio

## Txerra Molinuevo Laña alkateak

Orri hauetan joan behar zuen Txerra Molinuevo Lañari eginiko elkarrizketa. Baina, aurreko urteetan ez bezala, aurten Amurrioko alkateak uko egin dio elkarrizketa egiteari. Aiaraldea Komunikabideak azaroan luzatu zion proposamena, Udaleko prentsa arduradunaren bitartez. 24 ordu eskasetan jaso zuen Komunikabideak erantzuna: Txerrak ez zuen elkarrizketarik egingo.



## Herria gure mugarria

**Angela Rico Herrera**  
EH Bilduko zinegotzia

Berehala 2024ari agur esango diogu eta urte honek Udalean utzitakoak kezkatzen gaitu. 2024an ere, Igegin-tzaldi hasieratik EAJK eta PSEk osatzen duten gehiengoak EH Bilduren hitza zokoratzen saiatu da. EH Bilduk bitartean zorrotzasunez jarraitu du lanean, gobernuaren kontrol politika egiten eta proposamen zehatzak aurkezten. Udalak planteatutako inbertsioen bideragarritasun eza helarazi diogu gobernu-taldeari. Ez gara nekak-tuko esaten ez dagoela dirurik saldutako proiektu guztietarako. Izan ere, Landako auzoaren urbanizaziorako 716.000 euroko dirulaguntzari uko egin behar izan dio Udalak, esaterako. Otsailean Arrastariako adinekoek Urduñako egoitza erabiltzeko eskubidea bermatzeko mozioa aurkeztu genuen. Ekainean eskatu genuen txabolak eta estalpeak erabiltzeko ordenantza errealtate izatea. Irailean proposamen sorta bat aurkeztu genuen tasa eta zergen ordenantza fiskalen negoziazioan, eta honetan ere, Udalak ezetz. Datozen egunotan 2025eko aurrekontuen eztabaidari ekingo diogu, eta aukera berri bat zabaltzen da Amurrioko hiru alderdi politikoen arteko adostasunak lortzeko. Horretarako, gazteriak pairatzen duen egoera latza ardatz hartuta, etxebizitza eta osasun mentalarekin lotutako proposamenak ditugu, baita Batzar Administrazio, kirol eta kultura, trantsizio energetiko eta berdintasun arloetan oinarritutako planteamenduak ere.

Amurrioko bizilagunen bizi-kalitatea bermatzeko duten akordioak erdiestera gonbidatzen dugu gobernu-taldea. Amurriok merezi du.



## Informazioaren erronka aro digitalean

**Laura Fernandez Fernandez**  
PSE-EEko zinegotzia

Adierazpen askatasuna gizarte demokratikoen oinarritzko eskubidea da. Hala ere, mundu hiper-konektatuan, eskubide honek erronka berriak ditu, interneten eta sare sozialen bidez zabaltzen diren gezurren eta albiste faltsuen ondorioz. Fenomeno honek ez du soilik eztabaida publikoaren kalitatean eragiten, baita pentsamendu kritikoa erabiltzeko gaitasuna ere arriskuan jartzen du.

Internet, bere irismen globalarekin, desinformazioa zabaltzeko lurralde emankor bihurtu da. Albiste faltsuek oihartzuna aurkitzen dute algoritmoek edukia biralitatearen arabera lehenesten dutelako, egiazkotasuna iragazi gabe. Informazioa sortzeko eta partekatzeko erraztasunak komunikazioa demokratizatu duen arren, gezurrak maila guztietan zabaltzea erraztu du, Udalariko dagozkionak barne.

Pentsamendu kritikoa ezinbestekoa da: iturriak ebaluatu, aurreiritziak identifikatu eta datuak alderatu behar dira. Hala ere, gezurrek emozioetara jotzen dute, azterketa arrazionala zailduz. Gezurren ondorioak larriak dira: hauteskundeetan eragina izatek hasi eta erakunde publikoekiko —udal- barne— eta zientziarekiko konfiantza gutxitzeraino. Gainera, zabalkunde masiboak komunitateak zaitu eta polarizazioa areagotu dezake. Adierazpen askatasunak erantzukizun kolektiboarekin bat egin behar du: egiazko informazioa bilatze, partekatzea eta defendatzea guztion zeregina da, herritarrena, erakunde publikoena eta baita alderdi politikoen ere.

# Urduñako

## 2024ko mugarriak

### Udalaren balantzea

URTE BIZIA IZAN DA 2024A URDUÑAN. HIRIKO KALEAK EKINTZAZ BETERIK EGON DIRA UDALAREN, ELKARTEEN ETA BIZILAGUNEN INPLIKAZIOARI ESKER. MUGARRIZ BETERIKO URTEA BALIATU DU UDALAK HIRIAREN IRUDIA MUNDU ZABALEAN PROIEKTATZEKO.



*Sociedad Ciclista Orduñesa-k “Urduña City Cross” antolatu zuen. Estatu mailako proba izan zen, eta hiri-erdiko zirkuitu berritzaile bat diseinatu zuten, bizikleta-modalitate hori publikoari hurbiltzeko ideiarekin.*

*“Arrakasta borobila, zuen parte hartzeari esker”*





**Martxan da Harresi-Barrua Parkea. Honen bidez, Urduñako ondare historikoari balioa ematea nahi da. Hirian eragin dinamizatzailea izatea espero da eremu soziokulturalean, ekonomikoan eta turistikoan.**

**Aurten Arando Korrikalari Taldeak gure herri krosean jende gehiagori parte hartzeko aukera eman zion, 6km-ko proba berri bat sortuz. "Gogoia den tokian, aldaparik ez"**



**Urduñak bere eskaintza turistikoa eta bere erakargarritasunak aurkeztu zituen joan den urtarilean Madrilén egin zen FITUR nazioarteko turismo azokan, erakuskeiho bikaina izan zen.**



**Aurten, Orduña Hiria Museoa ondare etnografiko eta kulturalari eskainitako museoa dena, Bizkaiko Museoen Mapan/Sarean sartzea lortu dute.**

**Urduñan girotutako eta grabatutako 'El Bus de la Vida' filmaren estreinaldiaren harira, pase berezia antolatu zuten sustapen ekonomikoko arloak Ibon Cormenzanarekin lankidetzan hiritar guztientzat, pelikularen filmazioan jasotako tratua eskertzeko.**



**Iñigo Arrizabalagak eta Loraldi elkarteak bultzatutako proiektuak Medina de Pomarrekin kultura trukerako aisia eta turismoa sustatzea du helburu, loturak indartuz eta elkar aberastea lortuz.**



**Ordenantzak Foru Plaza arautzen du oinezkoak lehenesteko, trafikoa murrizteko eta hirigune historikoa babesteko, irisgarritasuna eta iraunkortasuna sustatuz ordutegi murriztuekin eta funtsezko kasuetarako baimen bereziekin**

**Belardi, Urduñako haragi-transformazio zentro berriak, tokiko abeltzainei laguntzen die, bitartekariak kenduz, belaunaldien arteko erreleboa sustatuz eta lehen sektorea suspertzen duen ekoizpen jasangarria bultzatuz.**



**Urduñako Udalak hiria eta ondarea sustatzeko bideak sortu ditu, eta sare soziale-tan zabaldu, ikusgarritasuna areagotzeko eta jaien eta turismoaren promozioa indartzeko apustua egin du horrela.**



## IKER SANTOCILDESEK GAI OSO ANITZAK LANDU BEHAR IZAN DITU 2024AN GERTATUTAKOA LABURBILTZEKO, IZAN HIRIGINTZA ZEIN ZINEMA.

Testua eta argazkak:

**Aitor Aspuru Saez**

**Urte hasieran Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ) aldaketa egin zenuten, hutsik dauden orubeen gaineko prezio fiskala handitzeko.**

Egia esanda bi aldaketa egin behar izan ditugu, bat otsailean eta bestea azaroan. Alde bateatik, otsailean prezio fiskala igo genien hutsik dauden lursail eta orubeei. Arrazoia da Alde

Zaharreen orube ugari daudela erabili gabe. OHZren igoera ez da pizgarri zuzena eraikitzeke, baina gogoratzen die jabeei hor dutela erabili gabe. Jaberena bat harremanetan jarri da jadanik Udalarekin guri saltzeko edo eraikitzeke asmoa iragartzeko. Helburua da etxebizitza berriak sortzea. Bigarren OHZren moldaketa azaroan izan da. Bizkai-

ko Foru Aldundiak katastro baliok eguneratu ditu eta horren ondorioz 90.000 euroko galera genuen diru bilketan. Ez dugu guztiz eguneratu, baina galera murriztu dugu erdira. Gure gain har dezakegu, uste dugu ez dela orain unea zerga gehiago igotzeko, hondakinen bilketa tasa ere igo behar izan baitugu Europako araudiaren ondorioz.



# “Ikusten dugu ibilgailu gutxiago daudela jadanik Alde Zaharrean”

**Alde Zaharreko oinezkoentzako araudia onartu zenuten. Azalduko diguzu zertan aldatu den?**

Oso pozik gaude horrekin. Ikusten dugu ibilgailu gutxiago daudela Alde Zaharrean. Horretarako arautu dugu bi kamera bidez eta Urduñako jendea ohitu da. Hala ere, pedagogia gehiago egin behar dugu jendea gutxiago sartzeko. Guretzat argi zegoen Alde Zaharra ezin dela igarobide bat izan. Erosketak egiteko baliat

tu daiteke, baina ez bide bat izango balitz bezala. Jendeak jadanik ez du Alde Zaharra zeharkatzen ibilbide laburragoak egiteko, baina San Migel auzoko sarrera ez erabiltzea da hurrengo erronka. Lehenesten dugu suhiltzaileen sarrera baliatzea.

Argi dugu Alde Zaharra zaindu behar dela eta oinezkoentzako eremua bilakatuko dela etorkizunean, baina bide bat dagoenean sarrerako errotondatik Belatz Gorriraino.

**Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreapausoa eman zenuten hiru eredu ezberdin eskainita. Nola doa prozesua?**

Luze izaten ari da eta luzatuko da. Espero dugu laster Irizpide Objektiboan Plana eramatea udalbatzara eta horretarako iradokizun guztiak erantzutea. Horrekin hasierako onarpenetik gertuago egongo gara.

**Memoria historikoaren esparruan lanean jarraitu duzue.**

Udalak lan zaila izan du hor, baina erabakiak ondo hartu ditugu. Prozesu garrantzitsua zen eta indusketa berrietan 20 edo 25 herritar gehiago agertuko direla uste dugu. 2014an hasi zen lehen fasea eta hau hirugarrena eta azkena izango da.

Udalaren eginkizuna izan da egungo zati hori libre uztea eta horretarako eremu horretan hilotzak zituzten familiekin hitz egitea, baimena emateko gorpuk lekuz aldatzeko. Oso ondo ulertu dute egoera eta ez da arazorik egon.

Bide luzea falta da oraindik, espero dugu jende gehiago identifikatzea. Kanpaina gehiago egin behar dituzte DNA laginak jasotzeko Extremaduran zein Andaluzian.

**Urduña zinema plato bilakatu da. Zer eragin dauka horrek herrian?**

*El bus de la vida* izan da garrantzitsuena eta 300.000 euroko

ekarpena utzi du: ostatu hartu dute, jatetxeak, erosketak egin dituzte... Pozik gaude. Batzutan grabaketek buruko minak sortzen dituzte. *Los Muertimerekin* adibidez, Alde Zaharrean grabatu zituzten akzio pasarteak-, baina garrantzitsua da Urduñarako eta turismorako.

**Aurten *El bus de la vida* estreinatu duzue publikoki. Errepikatuko duzue?**

Ez dut uste. *El bus de la vida* Urduñan grabatu zen osorik eta Urduñako izena errespetatu dute. Hori oso garrantzitsua da. Hiru hilabetez egon ziren eta hemen egiten zuten bizitza. Horregatik egin genuen estreinaldia.

**Aurtengo otxomaietan eraso matxistak gertatu zirela salatu zenuten, baina erasotuak izan zirenen nahia jarraiki, ez zenuten mobilizaziorik egin. Nolako esku-hartzea egin zuen Udalak kasu hauetan?**

Zoritxarrez otxomaioen bigarren astean jazo ziren eta gure lana izan zen biktimaren alboan egotea. Une horretan batek esan zuen behar zuela adieraztea eta horretarako musika eten eta mikrofona eman genion. Eurek eskatzen dutena egiteko gaude, euren nahia errespetatuta.

**Belardi haragi eraldaketarako zentroa inauguratu da. Zein izan da Udalaren ekarpena eta nola baloratzen duzue?**

Lorpen oso garrantzitsua da. 2004an hasi zen Elikaduraren Plan Estrategikoa eta 20 urte beranduago ikusten dugu udal sakaldearekin eta Belardirekin

**“Belardi haragi zentroa proiektu aitzindaria da estatuan, oso potentea eta ondo joango da”**

emaitzak etorri direla. Udalak lursailak laga ditu eta ahal izan duen neurrian lagundu du.

Proiektu aitzindaria da estatuan, oso potentea eta ondo joango da.

**Uztailean Ana Maria Barañano Laburu alkate ohia hil zen, zerbait aipatu nahi duzu berari buruz?**

Ana Mari emakume ikaragarria izan zen. Zorionekoa izan nintzen eta duela bi urte egin nion elkarrizketa. 1983an sartu zen alkatetzan. Urte horietan oso arraroa zen emakumezkoak politikan sartzea eta Ana Marik lau seme-alaba zituen.

Berarekin izandako elkarrizketa baliagarria izan zen hautagai izateko. Eredu oso ona zen. Indar handikoa. Oso zaila zen garai horietan politikan egotea lehen lerroan emakume izanda: militarrei erosi zien aterpea eta kultura etxea eraiki. Esker hitzak baino ez ditut.

**Nola doa Alda Zaharreko harrisia?**

Abenduan irekitzea espero dugu eta urtarrilean inaugurazioa egitea Eusko Jaurlaritzarekin.

**Klartarren komentua eliza eta mojen arteko polemikaren ondorioz hustu da berriro. Udalak aurretik ahaleginak egin ditu komentua bizirauteko, nola baloratzen duzue egoera?**

Eraikin pribatua da hori eta gu ez gara sartuko baloratzera han gertatzen dena, are gutxiago hedabideetan sortu den polemika.



## Zutunik gaude urduñarrei gure onena ematen

**Eunate Molinuevo Olabarria**  
EH Bilduko zinegotzia

Udal-gobernuak ikusezin bihurtu nahi gaitu, eta gu bazterrean uzten saiatzen ari dira. Baina guk, betiko lez, zutunik jarraitzen dugu herriaren alde, urduñar guztiei gure onena ematen.

2024an buru-belarri aritu gara aurreko legegintzaldietan hasi genituen proiektuak aurrera atera daitezen, EAJK ez zitzaizkan batean ahaztuta utzi. Horren adibide dugu, besteren artean, Harresi Barrua Parkea: proposamen zehatzak egin ditugu espazio horren erabilera arautzeko eta herriarentzat lehenbailehen irekitzeko (bide batez, obrak abuztuan bukatu ziren; ez dakigu zeren zain dagoen udal-gobernua).

Azken hilabeteotan, aktiboki parte hartu dugu merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko kanpainan; aktiboki ari gara txosnen ordenantza prestatzen, elkarte eta urduñarron ahotsa entzuten, eta etengabe ekarpenak egiten Urduñan emakumeok\* askeagoak izan gaitezen. Auzoz auzo egon gara bizilagunekin, kalean, herri irisgarri eta jasangarriagoa erakitzen. Lokatzetan ere ibili gara –zentzu literalean– eta desobiratzeen 3. fasean parte hartu dugu, umiltasuna eskuan, Aranzadiko kideekin elkarlanean memoria historikoa berreskuratzen.

Urte berria, asmo berriak. Hala diote. Guretzat ere nobedadez beterik dator urtarrila, egoitza berria inauguratuko baitugu, gure bilgunea. Herritarrek aukera izango dute bertara hurbiltzeko, euren kezkek guri helarazteko, guztion artean Urduña biziago baten alde egin dezagun.

Eta 2025ari zer eskatzen diogu? Urduñarrok elkarren artean zaintzea, bizitzako edozein arlotan.



Orozkoko  
Udala

*Babestutako  
edukia*

# Orozkoko

## 2024ko mugarriak

### Udalaren balantzea

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA UZTARTU DITU OROZKOK AURTEN ERE. EKINTZA KULTURALAK, KIROL JARDUERAK, AZOKAK, JAIK... HERRIKO NORTASUNAREN ETA 2024KO MUGARRIEN ERAKUSLEHIO PAREGABEA IZAN DIRA.



*Orozko  
eraldatzen,  
berrikuntzak  
herriarentzat*





**Tradizioa eta  
zaporea Orozkon**



**Orozko,  
2024rako  
ezinbesteko  
helmuga**





Orozkoko  
Udala

**Babestutako  
edukia**

**Kultura  
eta kirola,  
Orozkoko  
bihotza  
2024an**





**Orozkoko jaiak:  
alaitasuna eta  
tradizioa txoko  
bakoitzean**





BEHIN GOBERNANTZAREN TEMPOA HARTUTA, ETA GABEZIAK ETA INDARRAK IDENTIFIKATUTA, LEGEGINTZALDIRA ERAMAN ZUTEN PROGRAMA GAUZATZEA DA AITOR IZA ALKATE JELTZALEAREN ASMOA HURRENGO URTEETAN. OPOSIZIOAREKIN AKORDIO BATERA IRITSI IZANAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU DU ELKARRIZKETAN ZEHAR, HERRIARENTZAT ONA DELA IRITZITA.

Testua eta argazkiak:

**Oihane Ozaeta Fernandez**

**Aurreko urtea kokatzeko eta egokitzeko urtea izan zen. Behin martxa hartu duzuela, zer balorazio egiten duzu urten?**

Urtebete egin dugu gure aurrekontuak gauzatu zirenetik, iazko abenduan onartu zirenak, eta egiten dugun balorazioa positiboa da. Ez genuen nahi elefante bat katxarro-denda batean bezala sartu, uste genuen ga-

rrantzitsuena zela ulertzea nola funtzionatzen duen Udalak, arlo desberdinek, zer behar zeuden barne mailan, eta herri baten gobernantzaren tempo hartzea. Horretan oinarritu da, batez ere, urtea. Orain ideiak argiago ditugu, badakigu zeintzuk diren gabeziak eta indarrak, eta horretan oinarrituta egingo dugu lan gainerako urteetan. Datozen urteetan saia-

tuko gara Udalean sartu ginenean genuen programa gauzatzen.

**Urte hasieran markatu zenuztuzten helburuei dagokionez, zer balantze egiten duzu? Zeintzuk bete dituzue eta zeintzuk geratu zaizkizue hanka-motz?**

Arazo handiena hirigintzan izan dugu. Ni sartu nintzenezan apa-rejadore berria etorri zen, aurten



# *“Bigarren urtez jarraian onartu ditu oposizioak aurrekontuak eta arrakasta handienetako bat da hori, herriarentzat ona delako”*

gaixotasun bat izan du eta baja hartu behar izan du, eta urrira arte ezin izan dugu ordezkatu. Beraz, arazo txiki batzuk izan ditugu lizentziei dagokionez, eta aurtan obra txikietarako lizentzia berri batekin aldatzen saiatuko gara. Horrek ere eragina izan du proiektu potoloenetan. Baina, hala ere, kiroldegian eta eskolan obrak egin ditugu, herriko eraikin nagusiak direla uste baitugu, eta asmoa da urtero eraikin horietan zenbait obra egitea. Gainera, zeharkakotasun handia duten eraikinak dira, arlo asko aplikatzen baitira (euskara, kirola, so-

ziazalizioa...). Kultura, Kirola eta Gazteria sailean bultzada handi samarra eman dugula uste dugu. Kulturaren partida handitu egin da, batez ere, egin ditugun ikastaro berriak garatu direlako, eta Orozkoko kultur taldeentzako dirulaguntzak ere handitu egin direlako. Kultur taldeak funtsezkoak dira Orozkon kultura egon dadin, Udalak ezin baitu guztia kudeatu. Guk uste dugu lagundu nahi duen jendea egonda, ekonomiko ki laguntzen badiegu, programa kultural handiagoak gauzatzen direla.

Komunikazioa, Hezkuntza eta

Euskara sailari dagokionez, Hezkuntzan egin dugun gauzarik garrantzitsuena eskolako erreformak izan dira. Bestalde, Euskararen plan estrategikoa egin da, aurtan lantzen ari gara eta herritarren parte-hartzearekin sustatuko da. Gainera, Orozkoko Udaleko Euskara Normalizatzeko Plana eta hizkuntza-irizpideak onartuko dira Osoko Bilkuran. Komunikazioari dagokionez, lizitazio bat egin genuen komunikazioaren gaia kudeatzeko, sare sozial berriekin gehiago komunikatzeko, WhatsApp kanal bat sortzeko. Ia % 33 handitu dugu komunikazio-aurrekontua, jendeak egiten dugun guztiaren berri jaso dezan.

Enpleguari dagokionez, Udaleko arlo ezberdinak sustatu ditugu. Indartu egin dira, Eusko Jaurlaritzaren laguntza bati esker, administrazioan gazteei lehen enplegua emateko aukera eskaintzen diona. Obretarako langile bat, teknikari administratibo bat eta ingurumen-teknikari bat kontratatu ditugu.

Iraunkortasuna, ingurumena eta turismoa sailean ere aurrerapausoak egin ditugu. Iraunkortasunari dagokionez, hainbat obra egin ditugu, hala nola eskolako eguzki-panelak, funtsezkoak direnak. Nekazaritzan partida % 130 handitu genuen, Orozkoko abeltzainen elkartek NPBk (Nekazaritza Politika Bateratua) ematen zuen finantzaketa galdu zuelako. Eta, gainera, azoka berri bat sustatu dugu. Nekazaritza Orozkoko sustaiaren parte dela uste dugu

eta mendiarekin dugun balio natural hori sortzen laguntzen digu.

Berdintasunarekin lotutako hainbat gai landu dira, horien artean LGTBI+ azterlana. Gustatuko litzaiguke parte-hartze handiagoa izan balitz, izan ere, oraindik ez da gauzatu ez duelako jende askok parte hartu.

**Abenduko osoko bilkuran adostaduna egon zen zinegotzi guztein artean, eta 2025eko aurrekontuak onartu dituzue. Ze balorazio egiten duzu?**

Pozik gaude. Herriarentzat ona da indar politikoen artean akordio bat egotea aurrekontuak guztion artean adosteko. Nahiz eta batzuek gobernatu eta beste batzuk oposizioan egon, uste dut denok maite dugula herria, eta horrek batzen gaitu, ez da beste erakunde batzuetako gauza bera. Gure asmoa oposizioari informazioa ematea da, ahal dugun guztia ematen dugu, ez dugu ezer ezkutatzeko. Horretan oinarrituta, komunikazio nahiko arina dago bi taldeen artean, akordioak lortzen ditugu, haiek beren gauzak proposatzen dituzte, guk uste dugu ekarpenek balioa dutela, eta, horregatik, aurrekontuetan islatzen saiatzen gara. Bigarren urtez jarraian onartu ditu oposizioak aurrekontuak, eta niretzat arrakasta handienetako bat da hori, herriarentzat ona dela uste baitut. Batez ere oposizioarekin akordio batera iritsi izanak pozten nau, herriarentzat ona dela uste dut eta horretan eragitea gustatzen zait, eta EH Bilduren laguntza ere eskertzen dut arlo guztietan. Harremana oso adeitsua izan da, bakoitza ideologia batekoak ga-

***“Urteko lehenengo helburua EH Bildurekin harreman atsegina izaten jarraitzea da, herrian modu koordinatuan lan egiten saiatzea, Orozko eta bertako jendea eta azpiegiturak hobetzeko”***

rela jakinda, baina hori herriarentzat balio garrantzitsua dela uste dut eta aurrera eramaten jarraitu behar dugu.

**Aurretik Orozkoko aurrekontu orokorretarako iradokizunak eta proposamenak aurkezteko aukera zabaldu zenieten herri-tarrei. Parte-hartzea zelakoa izan zen?**

Aukera hori ireki genuen herriari horren parte izan behar dela uste dugulako. 8-9 iradokizun jaso genituen eta baloratu dira aurrekontuetan, errepikakorrenak ziren batzuk sartu ditugu. Oso pozik gaude, nahiz eta jende gehiagok parte hartzea gustatuko litzaigukeen, beraz, hurrengo urteetan ere hala egingo dugu eta gehiago zabalduko dugu.

**Zeintzuk dira hurrengo urtera begirako helburuak?**

Lehenengo helburua oposizioarekin harreman atsegina izaten jarraitzea da, herrian modu koordinatuan lan egiten saiatzea, Orozko eta bertako jendea eta azpiegiturak hobetzeko. Eta behin Udalaren haria hartuta, proiektu beharrezkoenak gauzatzen saiatuko gara, gure legealdiko programan sartuta zeudenak. Urtarri-lean bilera batzuk koordinatuko ditugu oposizioarekin eta teknikariarekin, bai obra handietarako, bai mantentze-lan txikietarako. Helburu batzuk ezarri eta horien gainean lan egingo dugu. Azken batean, ideia hori da, bultzada bat ematea, zorionez Udala ekonomikoki oso saneatuta dagoelako. Dirua herrian eta herriaren mesedetan egikaritu behar dela uste dugu.



# Elkarlanaren emaitzak

**Aitziber Santamaria de la Hoz**  
EH Bilduko zinegotzia

2023ko bagilaren 17an agintaldia hasi zanetik, EH Bilduko Orozkoko Udal Talde Politikoa osatzen dogun lau zinegotziok orozkoarren bizitzak hobetuteko proposamen konkrituak Udalera eroan doguz. Holan, 2024 eta 2025eko udal aurrekontuak hobetu egin dabezen hainbet eta hainbet proiektu onartu direz EH Bilduren iniziatibari esker.

Beste batzuen artean, trantsiziño energetikoaren, gobernantza feministaren, herri irisgarri eta berde baten, etxebizitza eskubidearen, mugikortasuna hobetutearen eta tokiko merkataritza indartutearen aldeko ekarpenak egin doguz.

Jasangarritasunari begire, udal eraikinetan eguzki plakak imintea, energia komunitadeak martxan imintea sustatzea eta kaleko hondakinek gaika birziklatu ahal izeteko edukiontziak imintea. Feminismoan aurrera iteko, Emakumeen\* Etxea abiatuteko prozesua martxan imintea, zaintza beharren inguruko diagnostikoa eitea eta puntu beltzetan argiteria handitutea. Orozko hobetuteko, etxebizitza beharren inguruko diagnostikoa itea, Irisgarritasun Plana eguneratutea eta auzoen arteko mugikortasuna hobetutea eta herriko dendetan erostea animetako bono kanpaina aurrera eroatea. Danera, 80.000 €-tik gorako balioa daukien aurrekontu partidak adostu doguz Udal Gobernu Taldearekin.

Gauzek iteko beste modu bat posible dala erakusten gabiz. Diferenteen artean ados imini eta elkarlanean gure herriarentzako beharrezkoak eta positiboak direzen proiektuak martxan iminten gabiz.

EH Bildutik konpromisoa dekogu Orozkon bizi direzen pertsona danen alde lan egin eta gure herriak dekozen arazoeri eta erronkeri proposamen barriek eta soluziño barriek emoteko.



# Arrankudiaga-Zolloko 2024ko mugarriak

## Udalaren balantzea

GOITIK BEHERA ERALDATU DA ARRANKUDIAGA-ZOLLO AZKEN URTEAN. OXINBURU ERAIKINAREN ERABERRITZEAK ETA INAUGURAZIOAK MUGARRI GARRANTZITSUA UTZI DU UDALERRIAN, BAINA EZ DA 2024KO TITULAR BAKARRA IZAN.



***Bolalekuaren eraberritze obra burutu da. Ondare kulturala berreskuratzeaz gain, bultzada sendoa jaso du bola-jokoak. Jadanik martxan dago neguko txapelketa.***

***“Garondo Bizigunea” kooperatiba sortu eta erregimen kooperatiboan eratu diren 12 etxebizitza publiko eraikitzeko obrak hasi dira Garonon.***





**Uribarrin komun publiko autogarbigarren obrak hasi dira eta postontzi berriak jarri dira.**

**Arrankudiaga eta Zolloko zenbait gunetan errepide eta aparkalekuen seinalizazio bertikal eta horizontal berriak egin dira, mugikortasuna berregokitu eta erabilera hobetzeko asmoz.**



**Garondo eta Zabale auzoak lotzen dituen oinezkoentzako bidean argiteri publiko berria jarri da. Bidea gero eta gehiago erabiltzen da, umeak eskolara joateko bereziki, eta argiztatze berria oso egokia da segurtasuna bermatzeko.**




**2014 Azaroaren 2an Arrankudiaga eta Zollon egin zen A2 herri galdeketa 10. urteurrena ospatu da aurten, azaroaren 3an, A2 plataformak eta Gure Eskuk antolatuta.**

**Arrankudiaga-Zolloko XI. Trail Lasterketa burutu da aurten. Maila bikaina izan du parte-hartze zein antolaketa aldetik. Oso arrakastatsuak izan dira txakur-krosa, umeen krossa, trail herrikoia eta aurten maratoi erdia bihurtu den luzea.**



**Oxinburu eraikina eraberritu eta jarduera sozial eta kulturaletarako azpiegitura martxan dago. OXINBURU badago, orain BIZIGUNE bilakatu behar da.**





**Jaiak arrakasta handia izan dute berriro ere. Parte-hartze handia izan da eta jendeak oso ondo pasatu du Andramarietan eta Uribarri, Atxeta edota Zolloko jaietan.**



**Aiaraldeko Euskaren Egun oso arrakastatsua ospatu zen abenduaren 1ean, jende askok hartu zuen parte giro ederrean, eta umeak izan ziren jaiaren protagonista nagusiak.**





## POZIK AZALDU DA TXUTXI ARIZNABARRETA ZUBERO ALKATEA ARRANKU-DIAGA-ZOLLOKO UDALAREN 2024KO JARDUNAREKIN, ETA BI “ERRONKA ESTRATEGIKO” NABARMENDU DITU DATORREN URTERA BEGIRA.

Testua eta argazkiak:

**Txabi Alvarado Bañares**

### **Orokorrean, nola baloratzen duzu amaitzeaz dagoen urte hau?**

Balorazio positiboa egin dugu. Zenbait proiektu martxan jarri dira. Oxinburo bizigunea inauguratu da eta bertan jada ari gara jarduerak egiten. Oxinburo egin dugu, baina orain bizigunea egin behar da, eta hori denon artean egin beharko dugu, herriko elkarte eta eragile guztien artean.

Bolalekua ere berriztatu da oso-rik eta neguko txapelketa martxan dago. Jendea erabiltzen ari da eta

oso ondo baloratzen dugu alde horretatik.

Etxebizitza kooperatiboak izan ziren genuen apustu inportante bat etxebizitza-politikaren arloan. Kooperatiba sortu zen eta hasi dira dagoeneko 12 bizitoki eraikitzeke lanak. Espero dugu datorren urtean zehar lan horiek amaitzea.

Beste gauza batzuk ere egin ditugu. Argiztapen berezia jarri da hainbat bidetan, jendea igarotzen denean indartu egiten dena. Uste dugu oso garrantzitsuak izan direla lan horiek, segurtasun aldetik ba-

tez ere. Martxan jarri dugu baita ere Arrankudiagako Elexalde plazaren ingurua, espazio guztia berrantolatzeko plan bat egiteko.

Izan ditugu baita ospakizun batzuk: A2 herri galdeketa 10. urteurrena, Aiaraldeko Euskaren Eguna, jaiak, traila... oso harrera ona izan dute guztiek.

**Etxebizitza kooperatiboak aipatu dituzu. Uste duzue pisu horiek eraikita asetuko dela Arrankudiagan dagoen etxebizitza beharra, edo beste mekanismo**



# “Bi kontu estrategiko daude gure herriarentzat oso garrantzitsuak direnak, baina ez daude gure esku”

## batzuk ere martxan jarri behar dira?

Honekin guk jarritako helburua bete ditugu. Asmoa bazen 30 urtetik beherako gazteak lehenestea, herrikoei lehentasuna emanez. Pisu-tako 12 kooperatibistetatik 11 dira 30 urtetik beherakoak, 9 dira herrikoak, beste bi Ugaokoak eta bat Zeberiokoa. Zentzu horretan, helburuak bete dira, udalerrian zegoen behar puntual hori asetu egin delako.

Etxebizitza kooperatibo horietara sartu da konpromiso hori eusteko gaitasun ekonomikoa duen jendea. Baina hori izan ohi da bere bizitza laboral, familiar zein soziala Arrankudiaga eta Zollon kokatuta duen jendea. Baina badago beste jende bat oraindik ez duena etxe-

bizitza bat bereganatzeko gaitasunik, edo oraindik ez duena argi bere bizitza laborala non egongo den. Horregatik, akordio bat egin genuen Eusko Jaurlaritzarekin alokairurako hamar etxebizitza eraikitzeko. Horiek eraikitzeko obrak ere datorren urtean hastea espero dugu, eta hor ere lehentasuna izango dute herrian errolatutakoek.

## 2022 sinatu zenuten hitzarmena Bakiolako industriagunearekin, bertako enplegua sustatzeari begira. Nola baloratzen duzue bi urte hauetan lortutako emaitza?

Noizbehinka etortzen dira industriaguneko enpresa batzuetako kideak profil zehatz bateko langileen bila, eta guk bitartekari

lanak egiten ditugu. Ez dira asko, ez dagoelako enpleguaren gorakadarik. Zaila izaten da kontrolatzea, interesundak zuzenean jartzen direlako harremanetan Bakiolako poligonoko zuzendaritzarekin.

Urtero berritzen dugu hitzarmena. Aurretik zehaztuta dagoen plan baten barruan inbertitu behar du Bakiolak ematen zaion dirua.

## Parte hartze prozesu ugari egin dituzue, azkena Elexalde auzoaren eraberritzearen inguruan. Zer nolako erantzuna jaso duzue bizilagunen partetik?

Horretan gaude une honetan. Bere unean beste prozesu batzuk egin ziren bai Zollon eta baita Atxetan ere, eta horiek beren emaitzak eman dituzte. Horietan garatutako plana jarraitzen ari gara.

Une honetan garatzen ari garen horretan parte hartzeko aukera zabalik dago udalerrri osoko auzotar guztiei, Arrankudiagako gune urbano nagusia den Elexalderen etorkizunerako berrantolaketa plan bat adosten joateko. Hor sartuko litzateke plaza bera, bertako mugikortasun guztia, trafikoa...

## Arrankudiaga-Zolloko kontsultategia urteko lanegunen erdietan itxita dagoela salatu zenuten ekainean, Zeberio eta Zaratamoko alkateekin batera. Izan duzue hartu-emanik Osakidetzarekin?

Berdin jarraitzen du egoerak. Guk ez dugu anbulatoriorik. Gure kontsultategia Ugaoko anbulatortoria lotuta dago. Eguerditan ematen da zerbitzua mediku eta erizainen partetik, 12:00etatik

14:00etara. Baina badakigu nola dauden kontuak Osakidetzan eta mediku zein erizain gabe gaude batzuetan, uda partean batez ere.

Osakidetzatik erantzun digutena bada horretan lanean dabiltzala, baina momentuz ez dago emaitzarik.

### **Barne mailan, zer nolako urtea izan da 2024a Udalarentzat?**

Aurten bi une puntaletan izan dugu idazkari kontu-hartzailea, baina denbora gehiena langile hori gabe aritu gara, eta horrela gabiltza une honetan. Ez dago gure esku arazo hori konpontzea.

### **Nori dagokio?**

Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Dirudienez horrela dabiltza hainbat herri, hainbat herri txiki batez ere; eta horrek goitik behera baldintzatzen du gure jarduera administratiboa.

### **Zertan?**

Edozein jarduera administratibo, osoko bilkurak, lizitazioak, kontratazioak, mila gauzetarako behar diren txostenak... gauza horietan guztietan behar dira idazkari kontu-hartzaileen txosten eta onarpenak. Horregatik, gauza pilo ditugu blokeatuta.

### **Eta konponbidea, diozunez, ez dago zuen esku.**

Ez dago gure esku. Hor ari gara konpondu nahian.

### **Hurrengo urtera begira, zeintzuk dira Udaletik planteatzen dituzuen erronka nagusiak?**

Aipatu bezala, hor dago alokairurako etxebizitzaren kontua. Ez da gure arduraren baina hor egongo gara

## **“Etxebizitza kooperatiboak eraikita, jarritako helburua beteko dugu”**

guztia begiratzen eta kontrolatzen.

Bestetik, zirkulazioaren berrantolaketa burutuko da Garondon. Badago proiektua eginda eta uste dugu obrak datorren urtean hasiko direla. Aparkaleku plaza askoz gehiago lortzea da asmoa. Horrez gain, Atxetako lokal sozialeko obrak ere hasiko lirarteke datorren urtean.

Kontu horiez gain, baditugu aurrera begirako bi kontu estrategiko oso garrantzitsuak direnak gure herriarentzat. Ez dago gure esku lortzea, baina ari gara borrokan erakunde eta instituzioekin.

Alde batetik, saneamenduen kontua dago. Galindon dago hondakin-uren araztegia eta bertara doan ur zikinen kolektorea Ugaoraino iristen da. Ugaotik gora, Arrankudiaga-Zollon, ari gara gure putzu septikoetatik zuzenean erre-kara botatzen ur hori. Bakiola eta Arbidetako poligonoetako urak ere zuzenean doaz erre-kara. Hori onar-

tzeina da XXI. mendean eta erakundeek onartu egiten dute. Ur guztiak Galindora bideratzeko obra nork finantzatzen duen, hori da gakoa. Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Ur Partzuergoarekin ari gara guzti hori borrokatzen. Hori finantzatzen ez dutenez geldirik dugu baita Ur Patzuergoan sartzeko prozesua.

Bestetik, oinezko eta bizikletentzako bidea dago. Bizkaian aspalditik dago egina txirindula-bideetarako plana, badago ibilbidea zehaztuta eta hamarkada bat baino gehiago daramagu itxaroten. Susmoa dugu bidea Ugaoraino egingo dela eta berriro geratuko dela Arrankudiagako zatia egin gabe, sanemanduarekin gertatzen den bezala. Aiaraldeko parke lineala osatuta dago ia erabat, eta ez luke zentzurik izango Bizkaitik datorrenak horrekin bat ez egitea. Biak bat eginez gero aukera egongo litzateke Bilbotik Urduñara oinez edo bizikletaz joateko.

Gainera, bide hori guztiz beharrezkoa da gure kasuan, errekek izugarriko meandroak egiten dituelako auzo batetik bestera. Bide horrek auzoak lotuko lituzke minutu gutxitan erdigunearekin, eta lotuko luke baita Arrankudiagako guneko urbanoa Ugaorekin. Guk zerbitzu asko ditugu herri horretan, Institutua kasu. Horregatik, ulertezina da berriro ere bide hori Ugaon moztuta geratzea.

### **Baina, esan duzun bezala, bi gauza estrategiko horiek ez daukate Udalaren esku, mugatuta zaudete.**

Baina lehentasuna emango digu borroka horri, geroz eta indartasua jokatzen den terreno horretan.



# Herritarren bizitzak hobetzeko lanean

**Urtzi Vergara Belaustegigoitia**  
EAJ-PNVko zinegotzia

2024aren amaieran, azken urte honen balantzea egin behar da, ezer gutxi esan dezakegu... Aurrekontuak onartzetik hasi ginen, gure proposamen guztiak onartu ziren, gutxi jarri dira martxan, baina bai garrantzitsutzat jotzen genuena, hau da, Udalak herritarrekin duen hedapen-kanala abian jartzea. Urte honetan hainbat proposamen egin ditugu: garrantzitsuena 10.000 euroko aurrekontu-partida bat hornitzea izan zen tximiniak garbitzeko laguntzetarako, gaur arte erantzunik gabe egon dena eta oso beharrezkoa iruditzen zaiguna.

Beste behin ere, azken urteetan zergen igoera bat izan dugu, EAJk kontrako botoa eman du, eta oraindik ez dira igo hondakinen gaineko zergak. Aipagarria da Oxinbururen inaugurazioa. Kultur eraikin hori bideragarritasun, kudeaketa eta mantentze planik gabe egin zen, eta kostu handia izan du... baina dagoeneko irekita dago! Gobernu taldearekin batera lan egiteko prest gaudela eskotan esan dugu, baina beste behin ere ikusi dugunez, EH Bilduko taldea ez dago prest gurekin lan egiteko, partekatzen duten informazioa behin dena lotuta daukatenean ematen digute.

Zoritxarrez eta penaz esan dezakegu ez dugula interesik ikusten egunerokoa gurekin partekatzeko. EAJtik Arrankudiaga Zolloko herritarren bizitza hobetzeko proposamenak egiten jarraituko dugu.

Zorionak eta urte berri on!!!





# Aiarako

## 2024ko mugarriak

### Udalaren balantzea

ERRONKA HANDIEN URTEA IZAN DA HONAKOA AIARAN. ENERGIA JASANGARRITASUNAREN ARLOAN URRATS GARRANTZITSUAK EMAN DITU UDALAK, HALA NOLA, ETXAURREN IKASTOLAKO PLAKA FOTOVOLTAIKOEN INSTALAZIOA GAUZATZEA. BAINA IZAN DIRA MUGARRI GEHIAGO.



***Kulturaren aldetik,  
hainbat ekintza  
antolatu dira, haien  
artean, urtero  
bezalaxe inauteriak,  
udan ere gazteentzako  
lau irteera atolatu  
dira Okondo eta  
Artziniegako  
udalerriekin batera.  
Irteera horiek harrera  
ona izan zuten gazteen  
aldetik.***





**Etxaurren Ikastolan leiho berriak eta plaka fotovoltaikoak jarri dira aurten. Horrela energia aurreztu eta beste iturrietatik ateratzeko erronkari eutsi dio Udalak. Bide horretan pausu gehiago emango dira aurrerantzean.**

**Etxaurren Ikastolan patio berri bat diseinatzeko proiektua idatzi da, joan den ikasturtean egin zen patio inklusiboaren proiektuari eta klima-aldaketaren behar berriei erantzuteko. Proiektu hau 2025. urtean hasiko da gauzatzen.**



**Ibaguen auzoan, Etxaurren Ikastolaren ondoan, bere garaian kiroldegi bat egiteko indusi izan zen espazioa lurraz bete da. Espazio hori zapuztuta geratu zen, eraikitako egituran pitzadurak agertu baitziren. Udalak kirol ludikorako guno bat jarri nahi du bertan aiarar guztientzat.**



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**Babestutako  
edukia**



**Luiaondoko  
Patxika Etxeko  
goiko bi pisuak  
egokitzen ari dira.  
Arazo tekniko  
batzuk konpondu-  
ta, datorren irai-  
larako amaituta  
egongo dira.**

**Argi dago gure  
udalerrian  
mugikortasun-  
arazoak daudela.  
Horri erantzuteko,  
telefono bidezko  
aplikazio bat  
kontratatu da,  
doakoa, biztanleen  
artean autoa  
partekatzeko, energia  
aurrezteko (Arabako  
karbono-isurien  
% 40 ibilgailuen  
trafikoagatik dira)  
eta gure lurraldean  
mugikortasuna  
errazteko.**



**Adinekoei  
zuzendutako tailer  
ugari egon dira,  
adin horretan  
sortzen diren  
arazoei (erorikoak,  
memoriaren  
aktibazioa,  
bakardadea,  
etab.) aurre egin  
dietenak. Harrera  
ona izan dute, eta  
kasu batzuetan  
taxi zerbitzua jarri  
da lokomozio-  
baliabiderik ez  
zutenentzat.**



**Ekipamenduan inbertitu da, Udalaren hornidura zaharra baitzen eta matxurak etengabeak: eszenatoki bat, Lan rover bat, segarako ekipoa...**



**SORLASEAN**  
**MUGIMENDU ETA**  
**ANTZERKI JOLASAK**  
**FAMILIAN**

**Igandeetan Luiaondoko**  
**Sozialean, 12:00etan**

**4 SAIO**  
 Saio bakoitza: 2,25€ / 1,8€\*  
 4 saioak 9€ / 7,2 €\*  
 Plaza mugatuak!

**Laugarren saioa**  
**ABENDUAK 1**  
**Personaiak**

\*4 saioetik gora kontuztatze eta familiarizazio tailerrak.  
 Adin txikiagoak gustatzen badira, laguntza jonen beharria diru.  
 Izan ematea zehazki, esportu da saio bakoitzarenurretan zuzenean.  
 \*Tarifa murriztuak langabezia edo inaktibitatearekin.  
 Izan ematea udalaren edo egoitza elektronikoren bitartez.  
<https://udalarenpostea.araba.nu/experta/aiara>  
 Inskripzio orria bete behar da partean eta saio kopurua zehaztu.

Alabako Udala  
 Alabako Udala

Alaba 2030

araba alaya  
 Alabako Udala, Alabako Udala

E E E E

**Sorlasean antzerki eskola eskaini da ere bai. Antzerkiarekin lehen harremana izatea izan du helburu. Lau tailerretan eman da, eta parte-hartzea handiagoa izatea gustatuko litzaigukneen arren, jarduera mota horiek garapen pertsonalerako lagungarriak direla uste dugu. Pozik gaude emaitzekin.**



LAN HANDIKO URTEA IZAN DA AIARAKO UDALARENTZAT, ETA URTE HAU MARRKATU DUTEN GAIEI BURUZ MINTZATU DA PRUDEN OTEGI ALKATEA EZ DIRENAK GUTXI IZAN: ENERGIA AZPIEGITURA PROIEKTUEN OLATUA, KIROLDEGIA, ZUHATZAKO ERREPIDERAEN GATAZKA ETA GARRAIOAREN ARAZOA.

Testua: **Oihane Ozaeta Fernandez**

Argazkia: **Aiaraldea.eus**

### **Zer balorazio egiten duzu aurten?**

Lan handiko urte bat izan da gobernu taldea osatzen dugun bi indarrentzat, gaiak finkatzeko eta proiektuak aurrera ateratzeko. Horren erakusle da ikastolan plakak jarri izana, leiho berriak, itxidura egin izana, Patios por el clima proiektua ere martxan dago... Horretaz gain, Batzar administratiboekin bilerak egin ditugu, energia berriztagarrien

inguruan zer proiektu dauden azaltzeko batzartu gara, eta mugikortasunaren inguruan, adibidez, plangintza bat prestatu eta aurkeztu diogu Foru Aldundiari eta orain planteatzen diren hobekuntzen zain gaude. Arlo honetan, gainera, KudeaGo proiektua jarri dugu abian autoa partekatzeko, A15 eta A16 autobus lineak Luiaondotik pasatzen direnean bertan geldialdia egin dezaten eskatu, eta eskariaren

araberako taxi zerbitzuan hobekuntzak aztertzen ari gara.

Bestalde, energia aurrezteko bide berriak begiratzen ari gara bai zaborren arloan eta baita elektrizitate kontsumoan ere, eta ibilgailu berria eta makineria berria erosi dira udal langileen lana errazteko eta hobetzeko. Bukatzeko, hainbat egitasmo diseinatzeko prozesuan daude, adibidez, udaletxe zaharren eraberritzea.



# “Zuhatzako herriak eskatzen duena da trafiko astuna egokiagoak diren beste errepideetara desbideratu dadila”

**Aiarako udalerrriak jarraitzen du energia azpiegituren proiektuak metatzen bere gain: Ferosca I parke eolikoa, Solariako goi-tentsioko linea, energia berriztagarria biltegi-ratzeko baterien instalazioa Markixanan, Las Americas 20 zentral eolikoa eta Igebelar Solar azpiegitura fotovoltai-koa.**

Berriztagarrien zabalpenari dagokionez, hainbat proiektu daude: eolikoak, bateriak, plaka fotovoltaiakoak... Proiektuen olatu horren aurrean, horietako bakoitza aztertu eta saiatu gara adosten irizpideak zeintzuk izan behar diren eta zeintzuk ez. Aia-

ra landa eremua da eta tentuz begiratu behar diogu planteatzen denari, iruditzen zaigulako nekazal lurra toki errazen gisa har daitezkeela plaka fotovoltaiakoak jartzeko beste kokapenik begiratu gabe, eta gure ustez oso inportantea da ingurumena babestea halako proiektuen aurrean, eta neurrikoak izan daitezela, bailaran behar dugun energiaren neurrikoak.

**Irailean alegazioak aurkeztu zenituzten Igebelar Solar azpiegitura fotovoltaiakoaren harira.**

Ez dugu denbora askorik izan, luzapena eskatu genuen

oporren atarian heldu zelako, eta ez ziguten eman. Zaraobeko Mahaiaren beste aldean kokatu nahi dute proiektua. Beraz, has-teko, toki enblematikoa da gu-retzat. Gertatzen da, gainera, ez dagoela argi proiektu horietan ekoiztuko den energia noren-tzako den. Gure aldetik berriztagarrien zentzuzko zabalpen bat egiteko beharrezkoa den gutzia egingo dugu, eta erabiltzen di-ren lur motak aztertzen jarraitu-ko dugu.

**Uztailean ekin zenioten Iba-nuenen inoiz amaitu ez zen kiroldegiak utzitako zuloa be-tetzeari, eta Udaletik inkesta abiatu zenuten zuloaren era-bilera erabakitzeo herrita-rrekin. Zer ondorio atera ze-nituzten? Eta zer asmo duzue eremu horrekin?**

30 erantzun baino gehiago izan ditu inkestak, eta herri-tarrek bereziki kirolari lotuta-ko erabilerak adierazi dituzte beheko alderako, eta goiko aldea aisialdirako lekua izatea hobetsi da. Helarazitako ideiak aztertuko ditugu horietan oina-rritutako proposamen bat pla-zaratzeko, eta begiratu dugu ea horretarako diru laguntzak eskuratu ahal ditugun. Gure as-moa da aiara guztientzako ai-sialdi eta kirol ekipamendurako tokia izan dadila.

**Zuhatzako errepidean hainbat istripu egoten dira trafi-ko-astuna dela eta, eta erre-pidean egin nahi duen esku**

### **hartzeari buruz galdegin zenuen Foru Aldundiari. Zer dauzue eskatzen duzuenaz?**

Errepidearen arazoa errekurrentea izan da aurtén. Istripu ugari izaten dira kamioiak, bereziki, errepide bazterrera erortzen direlako. Ez dira kabitzen eta sarritan abiada handian doaz errepide horretatik. Zuhatzako herriak eskatzen duena da trafiko astuna egokiagoak diren beste errepideetara desbideratu dadila.

Kontuan hartu behar da Zuhatzako herri gehiena errepide alboetan dagoela. Errepidea zabaltzen bada, gure lehen kezka da baserri batzuekin zer gertatuko den, horietako 25 inguru errepide ertzean daudelako; eta bigarrena da, errepide zabalago batek abiadura handiagoa era-

gingo duela trafikoan. Gure herri txikia herri nekazaria da, eta den horretarako ez dugu egoki ikusten, iruditzen zaigu herri-arrantzat ez dela onuragarria izango. Errepidea konpontzearen alde gaude, baina ez zabaltzearen alde, eta trafiko astuna horretarako egokiagoak diren errepideetara bideratzea planteatu dugu.

**Foru Aldundiari helarazi diozuen beste eskaera bat A15 eta A16 autobus lineak Luiaiondon sar daitezela da. Izan ere, foru erakundeak ekainean iragarri zituen aldaketak zerbitzuak handitzeko, baina badirudi egindakoa ez dela nahikoa.**

Linea horiek Luiaiondotik pasatu eta bertan geldialdia egin

dezatela eskatu dugu. Herrira sartzearen alde denboran bi minutu gehiago dira, beraien ordutegiak kontuan hartuta. Horrek aukera emango lioke Luiaiondori eskualdeko gainontzeko herriekiko loturak izateko. A15 autobusa Gasteizera doa, eta gainera helmuga horretarako dagoen garraio bakarra da. Beraz, zentzukoa iruditzen zaigu, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta garraio publikoaren erabilera indartzeko.

Gehitu nahiko nuke autobuseko linea horiek ez direla Aiaran ematen den garraio arazo bakarra, eta oraindik hobetu behar direla zerbitzu batzuk. Hain zuzen ere, goizero instituturera joatekoa eta eskaerapeko taxi zerbitzua.





## Atzerapausoen urtea Aiaran

**Gentza Alamillo Udaeta**  
EAJ-PNVko zinegotzia

2024a Aiarako atzerapen eta aukera galduen urtea bezala gogoratuko da. Udal-aurrekontuak abuztuan onartu ziren, eta tarte txikia utzi zuten aurrekontua gauzatzeko. Elkarreentzako eta administrazio-batzarrentzako diru-laguntzak ez ziren urrira arte iritsi, eta horrek eragin larria izan zuen haien plangintzan eta funtzionamenduan.

Urte galdua izan da funtsezko proiektuetarako, hala nola Luiaondoko pista estaliaren itxiturarako, kalistenia-parkerako, Etxaurren ikastolako galdararen hobekuntzarako edo geltokiko aparkalekuaren handitzerako. Gainera, EAJ-PNVk planteatutako funtsezko eskaerak erantzunik gabe jarraitzen dute, hala nola fibrozementuaren inbentarioa, horiek kentzeko laguntzak, streaming bidezko osoko bilkurak, Etxaurrenen irisgarritasuna hobetzea edo zuhaitz malatoaren ondoko markesina aldatzea.

Erakundeen paralisia agerikoa da. Badirudi EH-Bildu eta Aiara Batuz buru dituen gobernu-taldea gehiago zentzuren dela bere barne-funtzionamendua doitzen, gure udalerriko beharrei erantzuten baino. 2023ra arte beren aldarrikapenak zirenak orain bigarren mailako gaiak dira.

EAJ-PNVk Aiararekin konprometituta jarraitzen du. Gure eskua akordiora luzatuta mantenduko dugu eta aiaratarren bizitza hobetuko duten proposamen erreal eta erabilgarriekin lanean jarraituko dugu. Gure helburua argia da oraindik: Aiara hobea eraikitzea.



## 2024. urtea hiru ideia nagusitan

**Iratxe Parro Uzquiano**  
Aiarako Batuzeko zinegotzia

Aiara Batuzek hiru ideia nagusirekin laburbildu du aurtengo urtea:

1. Aurreko proiektuak eta kontratazioak berrikusi eta egokitu diren urtea, akatsak konponduz: Patxita etxea, ikastolako eguzki-plakak, Barrena kaleko aparkalekua (Luiaondo), HAPOnen uholde-arriskugarritasunari buruzko azterlanak, Aiararako ongietorri eta baliabideen gida, etab. Izapide guztiak arintzen saiatu ziren, aurreko gobernu-taldek, gure harridurarako, ez baitzuen hasitako proiektuen jarraipen jarraitua eta eraginkorra egin, eta, besteak beste, gehiegizko atzerapenak, proiektuetan antzeman gabeko akatsak eta abar aurkitu dira.

2. Udaleko langileen mugimendu-urtea: idazkari berria eta arkitekto berria sartu dira.

3. Aurrekontua egin eta erabili den lehen urtea, idazkari-Kontu-hartzailearen figurarekin gure udalaren eta joan behar zuenaren artean, eta horrek asko ikastea ekarri du, datozen urteetan aplikatzeko. 2025. urterako, Aiara Batuzen erronka nagusia izango da TAOk (Administrazio Orokorreko teknikariak) lanaldiaren erdia Administrazio Batzarrei eskaintzea. Gure taldeak eta EAJ-PNVk sinatutako akordioa izan zen, kudeaketa-apustu garrantzitsua Administrazio Batzarretan modu altruistan karguak dituztenen izapidetze burokratikoak errazteko. Orain, idazkariaren figura egonkorrekin, apustu egiten dugu TAGek Batzarrei dagokien denbora eskaini ahal izatea, hau da, duela urte batzuk bete behar zuen eta hasieratik gobernu-taldek (EAJ-PNV garai hartan) behar bezala antolatu ez zuen denbora.



# Artziniegako 2024ko mugarriak

## Udalaren balantzea

MUGARRIZ BETETAKO URTEA IZAN DA 2024A ARTZINIEGAN. URTEURRE-NEK ETA EFEMERIDEEK MARKATU DUTE UDALERRIKO AGENDA. HALABER, HAINBAT PROIEKTU ESTRATEGIKO GAUZATU DITU UDALAK, DATORREN URTEAN ERE JARRAIPENA IZANGO DUTENAK.



***Kultur Etxeko obrak amaitu dituzte aurtun, eraikina goitik behera zaharberrituz. Azpiegitura berria 2025ean egongo da funtzionamenduan, eta artziniegarrek kultura bizitzeko espazio berria izango dute herrian.***





**Udalak urrats garrantzitsuak eman ditu energia kontsumoaren aurreztearen eta jasangarritasunaren bidean: Arteko gure Ama ikastetxean eguzki plakak instalatu dituzte, komunitate energetiko baten sorrera sustatu dute, eta hobari fiskalak ezarriko dizkiete energia aurrezteko inbertsioak egiten dituzten herritarrei.**



**Garai Plazako erlojuaren dorreak fatxada berria du, Txerra Ortega artista madrildarraren lanari esker. Artziniegako udalak aurreratu duenez, gisa honetako horma-irudi gehiago egingo dituzte herrian, ibilbide artistikoa osatuz.**



Artziniegako  
Udala

**Babestutako  
edukia**



**Antzinako  
Azokaren XXV.  
edizioa ospatu dute  
aurten Artziniegan,  
EAEko gisa  
honetako azokarik  
zaharrena**





**Artea Etnografia Elkarteak 40 urte bete ditu. 1980ko hamarkadan gazte talde batek herriko dozenaka objektu biltzeari ekin zion, eta haien ahaleginari esker etnografiaren Guggenheim museoa” sortu zuten. Urteurrena ospatzeko dozenaka ekintza antolatu dituzte aurten.**





## TRANTSIZIO URTETZAT JO DU 2024A JOSEBA VIVANCO RETES ARTZINIEGAKO ALAKATEAK. GOGOTSU DAGO AURTEN BUKATUTAKO LANAK FUNTZIONAMENDUAN IKUSTEKO, HERRIAN ALDAKETA NABARIA DELA DIO.

Testua eta argazkiak:

**Aimar Gutierrez Bidarte**

### **Zer nolako urtea izan da 2024a Artziniegan?**

Urte korapilatsua izan da, mundu guztiarentzako bezala. Nagusiki nabarmenduko nuke trantsizio urtea izan dela honako hau Artziniegako Udalean. Trantsizioa bai, baina trantsizio eraginkorra. Nik uste, azkenengo hilabeteetan, lortu dugula legealdiko hurrengo bi urteetarako oinarri sendoak jartzea.

Hainbat aspektutan uste dut izan dela trantsizio urtea. Alde batetik, udaletzeko idazkariak

erretiroa hartu du, baita obra eta zerbitzuen arduradunak ere. Oinarrizko bi pieza dira horiek udalaren funtzionamenduan. Uda hasieran bi pieza horiek galtzea, hankaz gora jarri du gure funtzionamendua hainbat hilabetez. Egoerak aldaketak egitera behartu gaitu, Udalaren barne antolaketan eragina izan dutenak. Barne antolaketako aldaketa horiek, gerora, eragin zuzena dute herritarrengan. Adibide bat jartzearren, ordainketa epeen bataez bestekoa handiegia zen

Udalean. Irailerako epe hori erdira jaitea lortu genuen, eta urte amaierarekin are gehiago jaitsi dugu. Guretzako hori barne mailako lorpen handia da, kanpora begira, agian, igarri egiten ez dena, baina eragin zuzena duena herritar eta ekoizleengan. Lanpostuen balorazioa eta langileen estabilizazioa ere gauzatu dugu aurten, horiek ere barnera begirako lorpen handiak dira.

Beste arlo zeharo desberdin batzuetan ere, trantsizio urtea izan da 2024a. Kultur etxeko la-



# “Trantsizio urtea izan da honakoa, eta oinarri sendoak jarri ditugu datozen bi urteetarako”

nak amaituta daude honezkero. Ekipamendua lizitzatzeko pleguak prest ditugu. Beraz, 2025eko lehenengo hiurhilekoan abian egongo da kultur etxea, eta izugarritzko potentzialitatea emango dio herriari. Eguneko zentro berriaren proiektua prest daukagu ere, Foru Aldundiko onespeneren zain gaude; hori jasotzen dugunean buru-belarri jarriko gara lanean. Dorretxea ere amaituta egongo da; hotel zerbitzua lizitatu eta funtzionamenduan izango dugu 2025ean. Hiru proiektu handi dira hauek, datorren urtean martxan baditugu oso garrantzitsua izango da udalerrirantz.

**Energia-kontsumo jasanga-**

**rrirako bidean zenbait neurri aplikatu dituzue.**

Bai, energiaren aurreztearen eta jasangarritausn energetikoa-ren gaian murgildu gara aurten. Aspalditik genuen tintontzian, eta aurten lortu dugu behingoz gaiari heltzea. Oinarri sendoak jarri ditugu. Udalerrriaren plan-energetikoa gauzatu dugu, lehenengo eguzki plakak-jarri dira ikastetxean, datorren urtean frontoian jarriko dira... Ener-gia-komunitate baten sorreran ere aurrerapausoak eman dira, interesa duten zenbait bizilagun elkartzen hasiak dira. Guretzat garrantzitsua zen hori, ezinbetsekoa zen bidea urratzea, horrek erraztasunak ekarriko dizkigu etorkizunean.

**Horma-irudien ibilbideari hasiera eman diezue aurten.**

Gogoia genuen proiektu horri ekiteko, eta aurten lortu dugu hasiera ematea. Erlojuaren dorreko horma-irudiarekin hasi ginen, eta jendeari gustatu egin zaio. Gure ideia da datozen urteetan proiektuan lanean jarraitzea eta urtez urte mural berriak egitea. Alde zaharrea egin nahi dugu hurrengoa, baina korapilatsua da bertan ezer egitea. Hasi gara gauzak mugitzen.

Bide berdinetik, Xabier Santxotenak 750. urteurrenerako egin-dako eskulturetako bat erostea erabaki dugu, herriaren ondare izan dadin. Lau eskultura egin zituen Santxotenak, eta urtebe-terako lagatu zizkion herriari. Parrokia aldamenean dagoena eroskiko dugu, udalerriko on-dare kulturala aberasteko.

**Ondare kulturalaz ari garela, aurten Artziniega Museoren 40. urteurrena izan da.**

750. urteurrenetik gentozen, eta hori nahiko *kañeroa* izan zen, baina herri honetan ez dago atsedenerako tarterik. Urte osoan antolatu dira ekintza desberdinak urteurrena ospatzeko, azken hilabeteetan gehiago egin dira.

Museoari dagokionez, datorren urtean horren kanpo proiektzioan egin behar dugu lan. Alor horretan, Aiaraldeko Sustapen Ekonomikorako Planetik eratorria, eskualdeko museoak barnebilduko dituen ibilbide bat

osatuko da, eta horren baitan museoen web-orrria atonduko da. Horrek asko lagunduko du Artziniega Museoaren proiektzioan.

Bide horretan, aurreko legealdian gure buruari jarritako helburu bati eman diogu segida: Artziniega mapan jartzea. Museoaren urteurren ekitaldiak ez ezik, beste hainbat ekimenek zabaldu dute Artziniegaren izena mundu zabalean: Emakundek EAE mailako Beldur Barik sariketa Artziniengan antolatzea, Arabako atletsimo txapelketa, ONCEn zozketako kupoietan Artziniega agertzea, santutegiko artea urteko zuhaitz izateko jaso duen hautagaitza... Proiektzio hori oso garrantzitsua da guretzako. Geroz eta jende gehiago dator herria bisitatzen ere. Asteburuetan asko dira ingurura datozen mendizaleak, eta astebarruan ere jende asko hurbiltzen da Artziniagara.

Pozgarria da kanpotik Artziniengan arreta jartzea, baina gu geu gara (herritarrak, Udala, elkar-teak) giro hori sortzen dugunak. Erakunde asko datoz Artziniagara ekimenak antolatzen, hemen-go elkarte eta bizilagunek erraztasunak jartzen dituztelako. Herri jator eta aktiboa daukagu.

Horren erakusle da ere Antzinako Azokaren XXV. edizioa. Azoka antolatzeko lana bere gain hartuko zuen komisia sortzea bera egundoko arrakasta izan zen guretzako. Bi urte daramatzate lanean eta oso edizio arrakastatsuak utzi dituzte.

**Fiskalitatean berriketa egin duzue aurten, etxe-hutsei errekarquak jarritz edota ener-**

***“Legealdia amaitzean ohar-tuko gara egundoko aldaketa bizi izan duela herriak. Ilusionagarria da horren parte izatea”***

**gia-azpiegiturak hobetzeko hoberiak eskainiz.**

Lan sakona egin dugu hor. Ordenantza andana genituen oso aspalditik inolako berrikuspenik gabe. Ordenantza esanguratsuei buelta bat ematea erabaki dugu aurten. Arreta berezia jarri diogu energia-aurrezteko ekin-tzei ematen zaizkien bonifikazioei; bai autoen zerga dela, bai obra lizentziak direla.

Etxe hutsei errekarquak jarri diegu ere bai. Ikusteko dago zenbat etxebizitza huts dauden udalerrian. Uste dugu ez direla asko izango, gehienak etxe zaharrak izango dira. Gaur egun Artziniengan, prezioak oso altuak diren arren, alokairuan edo salmentan jartzen den etxe orok oso gutxi aguantatzen du. Etxeak okupa-

tzeko eskaria badago udalerrian. Materia honetan dugun arazo handiena da, udalerrian ez dugula behar betse lursail Eusko Jaurlaritzari edo betse administrazio bati eskaini eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke. Eskuragarri ditugun lursail gehienak txikiegiak dira Jaurlaritzaren aburuz. Udal Gobernu gisa sako-nean landu beharreko gaia da, guri gustatuko litzaiguke.

**Trantsizio urte honen ostean, nolakoa aurreikusten duzu gainerako legealdia?**

Niri ez zait bereziki gustatzen atzera begira jartzea, jakin badakidalako aurrean dugun lana izugarria dela. Baina, perspektiba hartuta, legealdia amaitzen denean, oso nabaria izango da azken urte hauetan herrian gertatu den aldaketa. Azpiegitura berriak izango ditugu erabilgarri, udalerriaren potentzialitatea nabarmen handituko dutenak. Herriak duen kanpo proiektzioa ere nabarmen aldatu da azken urteetan. Datozen bi urteetan, lan oso garrantzitsuak egongo dira amaituta hala nola Garai hiribideko trabesia. Lanak lan, ziur naiz pozez begiratuko dugula atzera, demagun 2027an, ikustean zenbat azpiegitura eta ekipamendu berri dituen Artziniagak.

Gure ardura da abiatutako bi-dean aurrera egiten jarraitzea. Jarrai dezala kanpoko jendeak Artziniega ezagutzen. Eta guk ere jarrai dezagun hain ezinbestekoa dugun Artziniagako bizitza sozial eta kulturala mantentzen. Ilusionagarria da horren guztiaren parte izatea.



# Konponbide eta proposamenen urte galdua

**Encina Castresana Astarloa**  
EAJ-PNVko zinegotzia

2024 hau urte zaila izan da Artziniegarentzat, udalerrri bezala gure garapena konprometitu duten erabakiek markatuta. EAJ-PNVk arduraz eta proposamen zehatzekin lan egin du EH-Bilduko gobernu taldearen kudeaketa falta arintzeko. Gure konpromisoa beti izan da eta izango da etorkizun iraunkor eta oparoa eraikitzea gure bizilagunentzat.

Oinarrizko zerbitzuetan inbertsiorik ez egitea eta funtsezko azpiegiturak bertan behera uztea kezka-garriak dira. Udal igerilekuek hutsuneak izaten jarraitzen dute urtez urte, kontrol egokirik ez egotetik hasi eta erabiltzaileak arriskuan jartzen dituzten egiturazko arazoetara arte. Gainera, saltokien itxie-  
rak eta tasen igoerak, hala nola OHZk edo zabor-bilketak, familiak eta autonomoak itotzen ari dira une ekonomiko zail batean.

Errealitate horren aurrean, alternatiba argiak eta bideragarriak ekarri ditugu. Etxebizitza hutsak suspertzeko, kirol-instalazioak hobetzeko eta udal-zerbitzuak gardentasun handiagoz indartzeko partidak eskatu ditugu. Baliabideen kudeaketa arduratsua ere proposatu dugu, Udalaren etorkizun ekonomikoa hipotekatzen duten aurrekontu-erabaki batzuen iraunkortasunik eza salatuz.

2025erako, Artziniega garbiago, eskuragarriago eta aukeraz betea egotearen alde lan egitea da gure helburua. Ziur gaude elkarriketarekin eta ahaleginarekin egoera horri buelta eman diezaiokegula eta gure udalerrria merezi duen tokian kokatu: iraunkortasunaren, bizikidetzaren eta bizi-kalitatearen erreferente gisa. EAJ-PNVk indar eraikitzaile eta konprometitu izaten jarraituko du.



# Okondoko

## 2024ko mugarriak

### Udalaren balantzea

HERRI BIZIA ETA SOLIDARIOA DELA ERAKUTSI DU OKONDOK AURTEN BERRIRO ERE. MAKINA BAT EKIMEN ANTOLATU DITUZTE BIZILAGUNAK ELKARTU ETA ELKARBIZITZA OSPATZEKO: JAIK ETA TXAKOLIN EGUNA HORREN ERAKUSLE DIRA.



*Berdintasun arlotik, makina bat ekintza antolatu ditugu aurtan, berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzeko. Herritarrak sentsibilizatu ditugu genero-berdintasunaren eta sexu edota genero-aniztasunarekiko errespetuaren alde.*





**San Prudentzio, San Sebastian, Santa Ageda, San Roman, San Bartolome eta Irabiengo jaiak oso jai parte-hartzaileak izan dira, non bizilagunek udalak elkarteek eta koadrilek antolatutako ekitaldiez gozatzeko aukera izan duten.**





**Martxoko XXV. Baserri Azoka eta ekaineko Txakolin Eguna protagonista izan dira, beste behin Okondon. Ane Gabarain izan zen festaren enbaxadore, eta bidelagun izan genuen Arabako txakolin desberdinak dastatzerako orduan.**





**Ekintza andana egin dira euskaraz herrian, hizkuntzaren normalizazio lingustikoaren alde urratsak emateko helburuarekin, adin guztientzako egitarau kultural oparoa eskainiz.**



**Euskarazko kultur eskaintza oparoa ere egon da aurten Okondon, hizkuntzaren normalizazioa modu jarraituan sustatuz.**



## JON ESCUZAK AMAITZEAR DAGOEN URTEAREN NONDIK NORAKOAK AIPATU DITU ETA HERRIKO GAIK EZ EZIK, VALENTZIARA EGINDAKO ELKARTASUN BIDAIA ERE AZALDU DU.

Testua eta argazkiak:

**Aitor Aspuru Saez**

**Aurten Udalak antolatu zuen lehenengo ekitaldieta-ko bat SUA suteak prebenitzeko sistemaren aurkezpena izan zen. Nola inplikatu zarete horretan?**

SUA sistema aurrerapen teknologikoa da, sukaldeetako suteak azkar eta eraginkortasunez prebenitu eta kontrolatzeko aukera ematen diguna. Gure

udalerriko aurkezpena bereziki esanguratsua izan zen, aurreko gertaera batek biziki hunkitu gintuelako. Gertaera horrek mugarri bat markatu zuen, sute baten aurrean zein kalteberak izan gaitezkeen eta horrek ekar ditzakeen ondorioak erakutsi baitzizkigun. Udalean suteen aurkako segurtasuna hobetzeko ahaleginak areagotu ditugu,

eta laster gauzatuko direla eta Okondoko bizilagunek harre-  
ra ona egingo dietela espero  
dugu.

**Datorren urtean Okondoko emakumeei buruzko liburua aurkeztuko duzue, nahiz eta dagoeneko lantzen hasi zareten, nola doa?**

2024ko martxoan jarri ge-



# “Oso harro gaude Okondoko herriak Valentziako euriteen kaltetuekin erakutsitako elkartasunagatik”

nuen abian Okondoko emakumei buruzko liburua egiteko prozesua, Okondoko Ametsuts Emakumeen Elkartarekin batera. Inma Roiz idazle okondoarrak idatzi du liburua, eta hainbat ekarpen egiten ari zaie herriko emakumeei, kontuan izanik liburuan emakumeen aniztasun osoa jaso nahi dugula, lehengo eta oraingo emakumeen aniztasuna. Emakumeen historiari gabe historia osorik ez dagoela uste dugulako. Beraz, liburuarekin Okondoko historia osatu nahi dugu, emakumeen ekarpenak ikusaraziz eta aitortuz, emakumeen historiari gabe herriaren historia erdia falta baita.

Liburua 2025eko martxoan aurkeztu nahi dugu, Emakumeen Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko modu egokia izango delako.

**Maiatzean Lur Jareetako ohiko osoko bilkura egin zenuen. Nola baloratzen duzu ekitaldia?**

Lur Jareetako ohiko osoko bilkura hartzea ohore eta eran-

tzukizun handia izan zen Okondorentzat. Tradizio hori XV. mendekoa da, eta aukera paregabea da Arabako udalerrien lehentasunak bateratzeko. Gainera, Udalen arteko lankidetzarekin dugun konpromisoa eta garrantzi historiko eta politiko handiko ekitaldi baten anfitrioi gisa dugun harrotasuna adierazteko aukera eman zigun.

**Artziniegako alkatearekin ika-mika txiki bat izan zen, ez baitzegoen ados Okondon bere udalerrian baino lehenago egitea. Gai hau jorratu duzue?**

Ez dugu gai hau zuzenean Artziniegako alkatearekin jorratu. Ulertzekoa da alkate bakoitzak bere herriaren interesak defendatzea, eta zentzu horretan ulertzen dut Joseba Vivancoren jarrera. Hala ere, uste dugu Okondok, beste edozein udalerririk bezala, eskubidea duela Lur Jareetako Osoko Bilkura bezalako ekitaldi garrantzitsu baten egoitza izateko, eta hala defendatu genuen bere garaian.

**Igerilekuetako tabernak buruko min txiki bat izan dira Udalarentzat; zer gertatu da zehazki?**

Udalean, eta bereziki gobernu talde honetan, beti bilatzen dugu bikaintasuna proiektuak gauzatzean. Igerilekuetako taberna eta estruktura ertaina erronka handia izan da, kalitatearekin dugun konpromisoak

xehetasun guztietan zorrotzak izatera garamatzalako, garapenetik hasi eta azken erremateetara arte. Hirigintza sailarekin batera egindako lan baten bidez, bizilagunen itxaropenen mailan dauden emaitzak lortzen saiatu gara.

**Aldundiaren hainbat dirulaguntza jaso dituzue, besteak beste, San Roman eskolarako eta kirol-gune baterako. Nolakoak eta izango dira esku-hartze horiek?**

Aldundiaren laguntzari esker, esku-hartze garrantzitsuak egin ditugu. Obra txikien deialdiaren bidez, San Roman Eskolan kanpoko arotzeriak ordeztu dira eta estalkia berrikusi eta konpondu da, eraikina hezetasunetik babesteko.

Bestalde, eta auzoen arteko harremanei esker (auzolana), kirol-gunean kalistenia parke bat eraiki da futbito zelaiaren ondoan. Bi obrak amaituta eta justifikatuta daude, eta bisita teknikoa baino ez da geratzen behin betiko ixteko.

**Nola erabaki zenuten erabilera anitzeko gela Aurora Mendietaren omenezko fundazio batek eman zuen?**

Erabilera anitzeko aretoa hartzen duen eraikina Aurora Mendietaren omenezko fundazioaren izena fatxada nagusiko plakan eta beheko solairuan dagoen haurreskolan ageri da. Pertsona hori eta haren ekarpena eskertzeko, Udalak erabaki zuen aretoak ere haren izena eramatea, errespetua eta esker ona adierazteko.

**“Erabilera anitzeko aretoa hartzen duen eraikina Aurora Mendietaren omenezko fundazio batek eman zuen”**

**Urtea Valentziara jaisten amaitu zenuten, nolakoak izan zen esperientzia?**

Oso esperientzia aberasgarria izan zen, baina baita esfortzuz eta zailtasunez bete ere. Taldean izandako elkarrizketa batekin hasi zen dena, eta bertan erabaki genuen parte hartu behar genuela. Komunitate txartaren eta udalerriko informazio-pantailen bidez mezu bat zabaldu genuen, eta herritarrei bilera batera deitu genien, gure ideia azaltzeko eta laguntza

eskatzeko. Bost ordutan, 30 pertsona inguru hurbildu ziren proposamenak eta baliabideak aurkeztera. Ikaragarria izan zen ikustea Okondoko herria, inguruko herrietako pertsonekin batera, buru-belarri aritu zela ekimen horretan. Oso harro gaude erakutsi zuten elkartasunaz.

Azaroaren 6an, asteazkena, gauerdian, Valentziara abiatu ginen, dohaintzaz betetako hiru furgonetarekin. Erantzukizun handia sentitu genuen, pertsona bakoitzak bere konfiantza jarri zuelako gugan. Heltzean, zailtasun asko aurkitu genituen: moztutako ibilbideak, sartzeko arazoak eta itxaronaldi luzeak.

Etengabe inprobisatu behar izan genuen, inguruko pertsonekin harremanetan jarri des-karga-puntuak aurkitzeko. Hala eta guztiz ere, dohaintzak banatzea lortu genuen: lehenengo furgoneta Picanyako ikastetxe batean deskargatu genuen, bigarrena beste ikastetxe batean, eta hirugarrena auzoko puntu batean, Aldayan. Gainera, animalientzako produktuak Mislatako albaitaritza-klinika bati eta Aldayako animalien babeserako aterpe bati eman genizkien.

Ostegunean, deskarga lekuak bilatzen ari ginela, lokatzez eta kaosez betetako paisaia lazarria zeharkatu genuen. Zaila izan zen, baina laguntza jaso zuten pertsonen esker onak indarra eman zigun jarraitzeko. Esker oneko keinu horrek bidaia hau zergatik hasi genuen gogorarazi zigun: herri bezala, elkarrekin lan egiten dugunean diferentzia markatu dezakegula erakustea.



## Opakotasunaren urtea

**Joseba Ruiz 'Piru'**  
EH Bilduko zinegotzia

Urte hau hitz gutxitan laburbildu beharko banu, opakotasun hitzarekin sintetizatuko genuke. Urtea aurrekontuen eztabaidarekin hasi genuen, baina eztabaidarako tarterrik ez zuten eman, aportazioak egiteko egun gutxi eman zizkigun gobernu taldeak. Eta hortik aurrera... kaosa.

Okondoko EAJ gehiengo absolutua duela badaki, eta horretaz harro daude eta Udalak zuen gardentasuna opakatu dute. EH Bilduri oztopoak jarri dizkiote oposizio lanak egin ahal izateko, ez digute informazioa bilatzen uzten, ez digute informaziorik ematen ezta Udalak egiten dituen ekimenen berri eman ere ez, adibidez proiektu energetikoei jarritako alegazioak ez ditugu ikusi. Gehiengo osoa dutenez haiek nahi dutena egiten eta desegiten dute.

EH Bildu Okondoren egiteko era ezberdina da, talde guztien elkarlanean sinisten dugu. Herritarrentzako lan egiten dugulako, eta Okondoko herritarrek ez dute EAJ bakarrik bozkatu, beste talde politikoen presentzia dago udalean eta hori nabaritu beharko litzatekeela uste dugu.

Esan beharra daukagu EH Bildu gobernuan zegoenean proiektu batzuk diseiniatu genituela, Kultur Etxeko teilatua kentzea, amiantozko plakak zituelako, adibidez, eta oraingo gobernuak gauzatu duena. Herritarren bizitza hobetzeko proiektu amankomunak baditugu, eta akordioetara heltzeko prest gaude.



## Dena dabil ongi

**Sergio Tato Eguren**  
Aurrerako zinegotzia

Urte berri bat amaitzear. Atzera begiratu eta sortzen ari garen herria aztertzeke garaia da. Okondoar etorkizuneko belaunaldiek bizi beharko duten herria. Zaila da gaur egun oso baikorrak izatea. Azkenaldian herri desaktibatu batean bihurtzen ari gara, non auzotarrek gero eta gutxiago parte hartzen duten erabaki publikoetan, udal osoko bilkurak lanorduetan egiten direlarik, eta horrek zaildu egiten du herritarrek tokiko politikan parte hartzea. Bizitza sozial eskasa dugu gure kaleetan, ostalaritzako ia hamar bat lokal izatetik pare bat izatera igaro baikara. Bitartean, Okondoko aktibazio ekonomikorako laguntzak desagertuta daude oraindik. Ez dugu etxebizitzari buruzko udal-politikarik, eta berandu baino lehen, gure herriko gazteek aukera hobek bilatu beharko dituzte. Okondoar ondarea bere patura edo bere zoritxarrera abandonatua. Ingurumen politikan ez dago aurrerapausorik, bitartean mendi publikoak arriskuan daude multinazional energetikoen makroproiektuengatik. Horiek gero eta etekin handiagoak dituzte eta batzuek ez dute zergarik ordaintzerik nahi. Horretarako gaude herri xehea.

Azkarregi bihurtzen gara beste batzuen kontrolpeko sare sozial. Behatzaileak eta kontsumitzaileak gara. Teknologiarren aroa, kontsumismoaren garaia, individualismoaren adina. Abestiak zioen bezala: Dena ongi dabil, Zer esan beharko, Modernitasunaren alua.

Ba hori, Okondorentzat garai hobek iristen diren bitartean eta dena galduta dagoela dirudien arren, beti geratzen da traba gitea.

# Alkate aldaketak ezaugarritu du 2024a Arakaldon

SONIA HIDALGO ALKATEAK EKAINEAN DIMITITU ZUEN, ETA ARAKALDOKO TALDEKO BESTE ZINEGOTZI GUZTIEK UKO EGIN ZIOTEN BERE LEKUKOA HARTZEARI. ONDORIOZ, HUMBERTO PEREA JELTZALEA SARTU ZEN ALKATETZAN, "ARAKALDO TALDEKO KIDEAK ETA HERRITARRAK LAGUNTZEKO".

Testua: **Txabi Alvarado Bañares**

Argazkiak: **Aiaraldea.eus eta EAJ-PNV**

175 biztanleko herria izanda, aktualitatea ez da bereziki bizia izaten Arakaldon, are gutxiago politika instituzionalaren gorabeherei dagokionez. Baina 2024a salbuespena izan da zentzu horretan. Sonia Hidalgo alkateak dimisioa aurkeztu zuen ekainaren amaieran. Arrazoia? Herrian idazkari kontu-hartzailerik ez zegoela eta horren ondorioz lan-karga pilatu zela. "250 biztanle baino gutxiagoko herrietan, alkatea astean egun batez liberatuta dago Udalaren zereginetarako", azaldu zion Hidalgo berak Aiaraldea Komu-

nikabideari, "urtarrilean idazkari kontu-hartzailerik gabe geratu ginen, eta gaur egun oraindik ez daukagu teknikari egonkorrik. Hau funtsezko pieza da udaletxe batean".

Horrez gain, bestelako "egoera pertsonalak" ere argudiatu zituen alkateak. "Gauzak hala, une honetan erabaki ardurtsuena da zeregin horiek bete ditzakeen norbaiti paso ematea", ondorioztatu zuen.

Hidalgok alkate makila utzita, egoera zail eta nahiko atipikoan geratu zen Arakaldoko Udala. Arakaldoko Taldeko zinego-

tziek gobernuburu izateari uko egin zioten eta, egoera horretan, Humberto Perea jeltzalea sartu zen alkatetzan. Erakunde eta politika erantzukizunagatik hartu zuen erabakia, Aiaraldea Komunikabideari azaldu zionez: "Udalak lanean jarraitu behar du politikoki eta administratiboki eta hori errazteko prest nago, Arakaldoko Taldeko kideak eta herritarrak laguntzeko". Bere ustetan, horrelako egoerak ohi-koak dira herri txikietan, eta "demokraziarentzat arriskua" da hori, "ez baita lortzen herritarrek eskura dituzten erabakitzeko





Ezkerretik eskumara, Sonia Hidalgo eta Humberto Perea.

tresnak baliatzea. Suposatzen dut jendeak ikusten duela desabantailak handiagoak direla, abantailak baino". Perek badu eskarmentua alkatetzan, Zeberriko alkate izan baitzen bi legegalditan, 2003tik 2011ra bitartean. Horrez gain, ardurak izan ditu Bizkaiko Foru Aldundian eta EAJren Bizkaiko Buru Batzarrean ere.

Aiaraldea Komunikabideak elkarrizketa egiteko gonbita luzatu dio baina, momentuz, ez du egin nahi izan, kargu berriari neurria hartu nahi diolako lehenbizi.

***Ekainean aurkeztu zuen dimisioa Sonia Hidalgok, idazkari kontu-hartzailearen gabeziak sortutako lan zamagatik eta bestelako arrazoi pertsonalengatik. Uztailean hartu zuen aginte makila Humberto Perea jeltzaleak.***

# Hamabost urte, hamaika erronka

2025a urte berezia izango da Aiaraldea Komunikabide Faktoriarentzat. Apirilaren 17an hamabost urte beteko dira eskualdeko euskara hutsezko komunikabide bakarra jaio zenetik. Orduetik hona mugarri ugari utzi ditu proiektuak bidean: Aiaraldea.com webgunea sortu zen lehenbizi (gerora Aiaraldea.eus ataria izango zena), Aiaraldea Hemen paperezko hamabostekaria jaio zen gero, eta bere atzetik etorri bestelako egitasmoak: Aiaraldea Irratia 2012-2015 urteen artean, Aiaraldea Jaietan aldizkaria, esku artean duzun urtekari hauxe...

Pausoz-pauso baina etenik gabe haziz joan da proiektua 15 urte hauetan zehar. 50 boluntario inguruk eman zioten forma egitasmoari, eta apurka apurka joan ziren langileak sartzen, gaur egungo egitura mistoa lortu arte. Gaur-gaurkoz, kazetariak egiten dute ohiko erredakzio lana, baina lan hori erabat hankamotz egongo litza-teke eskualdean barrena berriemaile lanetan diharduten dozenaka boluntarioen ekarpenagatik izango ez balitz.

## Erronka berriak

Zintzoki hitz eginda, oraindik ez dugu pentsatu zehazki zer egingo dugun 15. urteurrena behar bezala ospatzeko, baina badakigu nola egin nahi dugun: ibiltzen jarraituz. Izan ere, hainbat proiektu ditugu esku artean, hurrengo urtean mamituko direnak.

Ikus-entzunezkoena dugu erronka nagusietako bat. Orain arte egin dugunari eusteaz gain, urrats berriak eman nahi ditugu esparru horretan, Internet bidezko telebista programazio jarraitu bat osatzea helburu. Ekin diogu horretarako giza baliabideak zein baliabide materialak eskuratzeari, eta 2025eko lehen hilabeteetan ikusi ahalko dira lehen emaitzak.

Horrez gain, berebizikoa zaigu gure eguneroko jarduna egonkortu eta fintzea, salto kualitatibo bat emateko. Garai korapilatsuak datoz komunikabideen esparrura. Desinformazioaren olatuak, *fake news*-ak, ohiko hedabideen krisiak, digitalizazio azeleratua, sare sozial komertzialen erabateko hegemonia... ez dira erronka makalak inorentzat, eta are gutxiago euskara dugun hizkuntza gutxitu batean jarduten duten tokiko komunikabideentzat. Horri begira urratsak eman ditugu aurrean, eta erredakziora kazetari bat batu zaigu; urrats gehiago eman behar ditugu. Horretan zentratuko gara 2025ean zehar, hemendik 15 urtera ere zer ospatu izan dezagun.

Abenduak 3.  
Euskararen Nazioarteko Eguna



Zu zeu izan Kutxabanken ere,  
bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.  
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika  
ikusi hemen: [www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)



Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.  
5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.

*Aiaraldetik mundura, eta mundutik Aiaraldera. 2024ak utzi dizkigun mugarri nagusien bilduma osatu dugu argitalpen berezi honetan, kronologia, iritzi artikulu, analisi eta bestelako edukien bidez, lokaletik globalera doan begiradarekin.*



**AIARALDEA**

KOMUNIKABIDE  
FAKTORIA